

HITZAURREA

GIZA EZAGUTZAREN PRINTZPIOEI BURUZKO TRATATUA.

Biografi datuak

George Berkeley 1685eko martxoan jaioa dugu Irlandan. Haren familiak egoera ekonomiko nasaia zuen, honek hezkuntza bikaina izateko aukera eskaini ziolarik, Dublineko Kilkenny College-n lehenengo eta Trinity College-n gero. Dublineko Unibertsitatearen maila XVII mendearen amaieran oso altua zen, eta han ematen ziren irakaspenak, Oxford edo Cambridgekoak baino aurreratuagoak ziren. Berkeleyk, berebiziko ikaslea izaki, formakuntza bikaina hartzen du, klasiko greko eta latindarren eta are hebraieraren ezagutza hornitua bereganatuz. Berezik matematikak eta fisika ikasi zituen, zeina garai hartan, jakina, newtondarra zen. Filosofian, Lockeren Giza enteleguari buruzko saioa ikasketa eta kritika liburu funtsezkoa zen.

1707an graduatu eta ordena sakratuak hartu ondoren (Trinity College-ko estatutuak bertako irakasleei agintzen zieten bezala), fellow gisa jardun zuen aipatu ikastetxean zenbait urtez. Eta une horretantxe, graduatu berritan, ohar-koaderno batzuk betetzen hasten da, A.A. Luce-k Philosophical Commentaries deituak, zeintzuetan arazo filosofiko nagusiei buruz dituen pentsamenduak moldatuz doan, era honetan filosofi eremuko bere aldi kreatzaile goiztiarrari hasiera emanez. Ohar hauek hainbat apunte pertsonal dira, argitaratzeko barik gero bere obrak burutzeko zirenak. Aipatu koadernoak funtsezkoak dira Berkeleyyren pentsamenduaren abiapuntu diren iturriak ezagutzeko. Filosofo eta zientzialari (edo hobeto, filosofo-zientzialari) modernoek ezagutzaile bikaina izaki, askotan agertzen dira koadernootan aipatuak Locke, Descartes, Malebranche, Spinoza, Newton, Barrow, Hobbes, e.a., bere pentsamendua autoreonarekin kontrastatzeko gehienbat. Arestian aipaturikoez gain, Berkeleyyengan eragin oso nabarmena izango duen beste autore bat dago: P. Bayle-z ari gara. Haren Hiztegia ospetsuak, bereziki “Zenon” eta “Pirron” artikuluek, eszeptizismoari ihes egin ahal izateko irtenbide baten bila jarriko dute Berkeley.

Laster hasi zen plazaratzen irlandarraren lan filosofikoak: 1709an Essay towards a New Theory of Vision argitaratzen du Dublinen, bere funtsezko obra, Treatise concerning the Principles of Human Knowledge, zeinetan bere filosofia immaterialista azalduko duen, prestatuz joateko asmoz dirudienez.

1713an Londresera doa, non hainbat idazle argirekin harremanetan izango den –besteak beste Pope eta Swift-ekin-- eta Ana erreginaren gortean aurkeztuko duten. Zenbait bidaiatan abiatzen da kontinentean zehar, horrek 1713an Nikolas Malebranche pertsonalki ezagutzeko aukera eskainiko diolarik. Elkarraldia, dirudienez, ez zen adiskidetsuegia izan, eta filosofo biok bero jardun zuten eztabaidan.

1720an, Pariseko Zientzi Akademiak saria eskaintzen du higiduraren kausari buruzko azterlan onenarentzat. Berkeleyk tratatu txiki bat idazten du latinez, De motu, lehiaketa horretarako. Derryko dean izendatua, Amerikan ebanjelioa zabaltzeko proiektu bat ideiatzen du eta Bermudetan College bat fundatzea erabakitzen du. Ana Foster-ekin ezkontzen da 1728an eta handik lasterrera kontinente berrira abiatzen dira. Eta hementxe, Newporten konkretuki, idatziko du jendartearen arrakastarik handiena lortuko duen obretariko bat, Aciphrom, libre-pentsalarien aurkako eraso bat dena. Ikastetxea sortzeko behar zuen gobernu ingelesaren laguntzari begira aspertuta, laguntza sekula ez

dela iritsiko ziur jakin ondoren, Londresera itzultzea erabakitzen du, non Cloyneko Apezpiku izendatzen duten, elizbarruti honetan hamazortzi urtez biziko delarik. 1744an Siris publikatuko du, arrakasta ikusgarria izango duen eta zenbait hizkuntzatara itzuliko den obra berau. Arrakastaren zergati nagusia, liburu horretan Amerikan egon zenean indiarrei ikasitako errezeta bat sartu izana da, zeinak, alkitran-urak dituen sendatzeko tasunak aprobetxatuz, gaixotasun askori erremedioa aurkitzeko balioko zukeen. Eta emaitzak nahiko onak bide ziren, zeren Ingalaterrako erreginak berak eta are Berkeleyk eta beronen familiak ere edan zuten edabe hori.

Osasunez nahiko jota, Cloyneko urte luzeen ondoren, Oxfordera doa bizitzera, bere semeak ikasketei jarraipena han eman ahal izateko. Hiri horretara heldu eta hilabete gutxitara hil egiten da, 1753ko urtarrilean¹

GIZA EZAGUTZAREN PRINTZPIOEI BURUZKO TRATATUA

a) Obrak honek letren errepublika izan zuen harrera

Berkeleyren obrarik garrantzitsuena eta haren pentsamendua ongien islatzen duena, ezbairik gabe, jarraian itzulita eskaintzen den Giza Ezagutzaren Printzipioei buruzko Tratua da. Obra hau 1710eko maiatzean argitaratu zen Dublinen, autoreak hogeita zortzi urte besterik ez zituela. Berkeley, Humekin batera, euren obra funtsezkoa gaztaro-gaztaroan burutu duten filosofo gutxi horietako bat dugu, hau ez baita sarri gertatzen filosofiaren munduan.

Ezin esan daiteke liburuaren argitarapena arrakastatsua izan zenik. Berkeleyk, kontu horretaz kezkatutik, bere lagun ingelesei idazten die, ezagunei galdetzeko eta liburuak egin dien inpresioaren berri bidaltzeko eskatuz. Esanguratsua da, hortaz, John Percival-ek gure filosofoari idazten dion gutuna;

“Sinestezinezkoa da zenbateko eragina izan dezaketen aurreiritziak adimenik onenetan, are berrizaleak direnetan ere; zeren aipatu besterik ez zure liburuaren kontua nire lagun irtentxoenei, liburuaz trufatzen hasi ziren, ez zutela inola ere irakurriko esanez, oraindik ez dudalarik batek berak era irakurtzerik lortu”²

Asko izan ziren Berkeleyren teoriak gaixotasunen baten (burukoa, jakina) ondorio zirela eta haiek argitaratzean zuen joran bakarra jendearen arreta bereganatzea zela uste izatera iritsi zirenak. Leibnizek ere iritzi bera izan zuen³, honek kalte besterik egiten ez ziolarik filosofo gazteari, haren ospea eta kategoria kontutan izanda. Giza Ezagutzaren Printzipioak-en aipua Bibliothèque choisie-n, Amsterdamen argitaraturiko publikazioa berau, egin zen 1711n. Obra honi buruzko lehenengo erreseina kritikoa Journal des Sçavans-en, bere garaian garrantzi handia eduki eta bizitza luzea izatea lortu zuen

¹ G. Berkeleyren biografiak onena A. A. Lucek argitaratua da, *The life of G. Berkeley, Bishop of Cloyne*, Th. Nelson & Sons Ltd. ed., London, 1949.

² Gutuna Londresen 1710eko abuztuaren 26an datatua da. Ikus B. Rand. *Berkeley & Percival*, 80 or., Cambridge University Press, 1914.

³ “*Qui in Hybernia corporum realitatem impugnatur, videtur nec rationes afferre idoneas, nec mentem suam satis explicare. Suspicio esse ex eo hominum genere, qui per paradoxa cognosci volunt*”. Des Bosses jesuitari egindako gutuna, 1715eko martxoaren 15ean datatua. *Philosophische Schriften* C.J. Gerhardt ed., Berlin 1879, II lib., 492 or.

aldizkaria berau, agertu zen, 1711an hau ere⁴. Han agertzen den erreseina Berkeleyren obraren laburpen batean oinarritua da, eta horregatik ez dira ageri obraren eraikuntzako oinarritzko zutoinak; honez gain, aukeratzen diren testuak eta euroi buruzko parafrasiak Berkeleyren pentsamenduaren irudi esperpentikoa ageri dute, eta filosofo honek gorputzak eta materia ez direla existitzen frogatu nahi duela esateraino iristen da.

Beste erreseina bat "Mémoires pour l'Histoire des Sciences & des Beaux Arts" – "Mémoires de Trévoux" izenarekin eskuarki ezagutua-- jesuiten aldizkarian agertu zen 1713ko maiatzean⁵. Bertan "malebranchiste de bonne foi" esaten diote eta bere printzipioetan sen arruntaz handik jarri izanaz akusatzen dute. Jesuitek Berkeleyren filosofiaz egin zuten interpretazioak onarpen historiko handia eduki zuen, zeren, garrantzi txikiko zenbait aldaketarekin, praktikan gure egunotaraino eutsi izan baitzaio, eta are gaur egun uste da filosofo honek errealitate sentigarri guztia gure adimenduetan bakarrik existitzen den ideien mundura mugatu eta murriztu nahi duela.

Printzipioek garaiko eremu intelektualetan lortu zuten ulerpen eskasak eraman zuen Berkeley obra berri bat idatzi eta argitaratzera, Hylas eta Philonousen arteko hiru elkarrizketa, Londresen 1713an plazaratu zena, aurreko obraren ilunguneak argitu asmoz. Baina ezin esan daiteke obra honek besteak baino arrakasta handiagorik izan zuenik. Berkeleyren filosofia, Alciphron 1732an argitaratu zenetik, eta ez lehenago, hasi zen interesa sortarazten. Honek Printzipioak berrargitaratzeko abagunea eskaini zion, oraingo argitarapena Londresen egin zuelarik 1734an, edizio honetan obra honekin batera Hiru Elkarrizketa ere agertuz.

b) Obraren jatorrizko kontzepzioa

Lehenengo edizioan Printzipioak I parte moduan agertu ziren, bigarrenean izendapen hau kenduta agertu zelarik. Dirudienez, Sarrera hiru parte izango zituen obra osoari erantzuteko idatzia zen⁶. Lehenengo partean ezagutzaren teoria azaltzen du Berkeleyk, ontologia ere, bidezko denez, barnesartuz. Bigarrena filosofia moralaz zatekeen, zabal ulertuta berau; dirudienez, parte honetan Berkeleyk arima eta gorputzaren arteko bereizpena, Jainkoaren izaera, askatasunaren arazoa, e.a., aztertu zituzkeen. Kontutan hartu behar dugu garai honetako filosofoek funtsean moralak landu eta eraiki nahi dutela, hau, aurretik ezagutzaren teoriarik izan gabe, ezinezko dela uste badute ere. Zergatik ez zen argitaratu aipatu bigarren partea? Berkeleyk 1729ko azaroan Samuel Johnson filosofo amerikarrari idatzi zion gutun batean jakinarazten dio ezen, parte horren zirriborroa dezente aurreratua zuela, galdu ezin zuela eskueskribua Italiara egindako bidaia batean, hamalau bat urte lehenago, eta "geroztik ez zuela izan astirik gai berari buruz birritan idaztea den lan aspergarria egiteko"⁷.

⁴ Aipatu aldizkariaren bi edizio daude: bat Amsterdamen L liburukia, 1711ko iraila, 321-330 orrialdeak; bestea Parisen, 1771ko Uztaila. Edizio bien testua funtsean berdina da. Kontsulta H.M. Bracken-en obra, *The early reception of Berkeley's immaterialism*, 6. or., 2. oharra. Erreseina honen testu osoa obra berean aurki daiteke, Appendix B, 97-100 or.

⁵ Mémoires de Trévoux, 1713ko maiatza, 921-2 orr.

⁶ Ikus *Philosophical Commentaries*, 508, 807, 878. entries, *The Works of George Berkeley, Bishop of Cloyne* obran, A.A. Luce eta T. E. Jessop ed., 9 lib. Nelson & Sons Ltd., Londres, 1948-1957, I. lib., 63, 97 eta 103 orr. errespektiboki. Berkeleyren obran aipua edizio honexen arabera egingo dira beti (laburduraz, *Works*), liburukia eta orrialdea seinalatuz.

⁷ S. Johnson-i idatzitako gutuna, *Works*, II, 282 or.

Hirugarren liburua, *Philosophical Commentaries*-n aipatua⁸, filosofia naturalaz zatekeen. Dirudienez, parte hau idazteko prestaturik zuen materialeak De motu saioa egiteko balio izan zion. Are uste da Berkeleyk laugarren parte bat idaztea ere burutan zuela, hemen matematikez ari zatekeelarik, eta T.E. Jessop-en iritziz⁹ *Analyst* (1734) lehenengo pentsamendu horien fruitu litzateke.

Oraindik argitu ez den misterio bat da zergatik ez zuen burutu Berkeleyk hasieran Giza Ezagutzaren Printzipioei buruzko Tratatu osatu behar zuketenean parte horien idazketa eta argitarapena. Jessopek zenbait hipotesi iradokitzen du, euren artean aipatzen dituelarik: Berkeleyk bere bizitzan egindako lan eskerga, intelektualek izan ohi duten nagusitasuna, edo agian filosofo irlandarrak filosofia benetako aisiatzat zeukala, honetara astiarteak bakarrik eman bide zituelarik. Erdiesaten du baita ere Jessopek, honez gain edo hau gabe, gertatzen zena zela Berkeleyk bere sistemaren barruan soluziobide errazik gabeko zenbait arazo zuela. Eta uste dugu hauxe izan zela, izan, nagusiki, eta ez bigarren mailan, Berkeleyk eduki zuen zioa lehenengo partean lehen lerroak markatuta soilik utzitako eta bigarren partean aztertu beharreko adimenduaren eta beronen jardueraren ezagutza bezalako gaiak, lehenengo partea ongi ulertzeko hain inportanteak zirenak, garatu behar zituzten parte horiek ez argitaratzeko.

c) Obraren egitura eta teoria nagusiak

Ondoren, Printzipioak-en egituraren azalpen labur bat egingo dugu, gero, hitz gutxiz, eurotan dauden teoria nagusiak aztertzeko.

Sarreran Berkeleyk dio ezen filosofiaren arazoen kausak, gure ahalmenen ments edo akatsetan baino gehiago, zenbait printzipio faltsutan aurkitu behar direla, berauek baitira euren gainean jasotako eraikin guztia oinarri irmo eta seguru gabekoa izatea egin dutenak. Eurotan printzipala, haren ustez, filosofoek ideia abstraktuen existentzia admititzen da. Hori onartzeak suposatzen du, lehenbizi, bereiz atzeman ahal dugula bereiz existitu ezin dena. Eta, bigarrenik, genero bereko kualitate edo gauzei komunzki dagokienaren ideiak, hala nola gizakumearen ideia jeneralean, eratzeko gai garela. Teoria abstrakzionista honen kontra altxatzen ditu Berkeleyk bere kritikak, erakutsiz ezen gure baitan ez dagoela horrelako ideiarik eta inoiz ere ezingo direla egon, zeren ideia oro, berez, partikularra baita, mundu natural edo sentigarrian dagoen oro ere partikularra delako. Irudikatzeko funtzioak bakarrik bilakarazten du orokor ideia partikularra. Berkeleyk uste du errore honen iturburua hizkuntza dela.

Eginkizun nagusi lurra prestatzea duen sarrera honen ondoren, Berkeley bere filosofia inmaterialari eusteko oinarri izango diren printzipioak azaltzera pasatzen da obraren lehenengo hogeita hamahiru ataletan. Mota ezberdin bitako izakien existentzia ezartzen da: ideiak eta adimenduak edo espirituak. Ideiak espiritu edo adimendu horiexek hautemanak izatean datzate; aitzitik, adimenduak bere-berea eta karakteristikoa duena, hautematea eta nolanahiko jardunean aritzea da. Ideia definiziotik hainbat ondorio etorriko dira, Berkeleyk azalduko dituenak, hala nola ideiak ez direla objektu sentigarrien kualitateen irudikapenak, objektu sentigarriak eurak baizik. Ez dago zerbaiten ideiarik, zeren, ideiaz aparte, berauek hautematen dituzten adimenduak bakarrik baitaude. Beste batzuen artean Descartes eta Locke defendaturiko

⁸ 583. entry, *Works*, I, 72 or.

⁹ *Printzipioak*-i editoreak egindako sarrera, *Works*, II, 6 or. Laugarren parte honi egindako erreferentziak *Philosophical Commentaries*-en aurki daitezke, 853 eta 676. or., *Works*, I, 101 eta 82 errespekt.

errepresentazionalismoaren eta ideia primario objektibo eta ideia sekundario subjektiboen arteko bereizpenaren kritika egiten da: denak dira subjektiboak, existitzeko adimenduren bat behar dutelako; eta sekundarioak (kolorea, usaina, zaporea, e.a.) subjektiboak direla baiesteke balio duten argudioek berdin balio dute primarioak ere (figura, tamaina, higidura, e.a.) subjektiboak direla demostratzeko. Honek guztiak tradizioz substantzia materiala deiturikoa ezertarako ere ez dugula behar baiestera darama gure filosofoa, zeren ideien substratu edo euskarria ezin baita materia izan (materia ez da, definizioz, zerbait sentigarri eta mentala, kasu horretan ideia edo adimendu bat litzateke eta); adimendua, beraz, ideien substratu edo euskarritzat besterik ez da geratzen. Hemendik materiari ez dagoela garbi esatera pausu bat baino ez dago eta Berkeleyk berehala egingo du, zeren materiaren existentzia onartzea inola ere ez dela beharrezko uste baitu, hura gabe ere berdin-berdin esplikatzen delako dena. Sinpletasunaren printzipio ockamista aplikatuz, materia ezabatu egiten da Berkeleyren filosofi eremuan.

Filosofu irlandarrak argi dauka adimendua bakarrik dela aktiboa eta, beraz, bera bakarrik izan daitekeela kausa zentzu propioan. Arbuiatu egiten du, bada, kausalitatea mundu sentigarrian, adimenduaren eremuan bakarrik onartuz. Geure nahiaren kontra ere ezartzen zaizkigun ideiak existitzen badira, zentzuetako ideietan gertatzen den moduan, horrek ez du esan nahi ideia horiek eraginkorrak edo aktiboak direnik, baizik beste adimendu bat dagoela, giza adimenduen ezberdina, gure baitan ideia horiek eragiten dituen. Adimendu hori Jainkoaren Adimendua besterik ez da, hark hautemateak eratzen eta existentzian mantentzen duen mundu materiala giza adimenduek hautematen ez dutenean.

Ideiak erabat pasiboak direnez, ez dira gauza jarduera ezaugarri duten errealitateen, hots, adimenduen eta euron egintzen ezagupenik guri emateko. Ezagutza-molde diferente bat, ideien ezagutzaren ezberdina, ageri zaigu horrela, Berkeleyk, Printzipioak-en bigarren edizioan, modu teknikoago eta zehatzagoan, ezagutza nozionala deituko duena.

Logika handiz eta trinko eta laburki bere filosofiaren printzipioak azaldu ondoren, Berkeleyk bere obraren zati handi bat (zehazki 34. ataletik 85era) dedikatuko du printzipio horiei egin dakiekeen objektioei kontra egitera, hala nola natura ilusio huts bihurtzen duela, erreala eta irudimenezkoaren arteko bereizpenik ez duela egiten, gauzei izaera ezegonkorra iratxekitzen diela, hautemanak direnean bakarrik existituko liratekeelako, eta horrelako objektioen kontra. Era berean kontra egiten die substantzia materialaren alde jar daitezkeen argudio guztiei ere.

Azken zatia, 85. ataletik azkenera, jarritako printzipioetatik datozen ondorioak ateratzera dedikatzen da. Ondorio nagusia eszeptizismo eta ateismoari ihes egin behar zaiela litzateke, zeren Berkeleyren filosofiak balio handia ematen baitio zentzuen bidezko hautemateari, munduarekin eta beronen Egilearekin kontaktuan jartzen gaituelako. Haren printzipioetatik zientziarako datozen ondorioak ere garrantzitsuak dira, euron bidez teoria newtondarrak espazio, denbora eta higiduraren inguruan sorturiko zailtasun eta paradoxak ekiditen baitira, Berkeleyk berauen izaera erlatiboa nabararazi zuen. Aipatu printzipioen arabera ezin dela adimendua ezagutu ere ezin daiteke esan, haren ideiarik ez badaukagu ere (bururaezina den zerbait berau), bai baitaukagu beraren zelabaiteko nozio bat. Norbere adimendua, beste gizakiena eta Jainkoarena, mundu sentigarria ezagutzeko erabiltzen dugun prozeduraren ezberdina

den beste batez ezagutzen ditugu: aktibo denaren ezagutza da, Berkeleyk nozionala deitzen diona. Obra, bertan ezarritako printzipioak erlijioarentzat duten balioaren analisisa eginez bukatzen da.

Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua-n azaldutako filosofiak parte bi dituela esan daiteke: “pars destruens” bat, Berkeleyk ideia orokor abstraktuei egiten dien kritikak betetzen duena eta Humek letren errepublikan buruturiko aurkikunderik baliozkoenatarikotzat joko duena¹⁰; eta “pars construens” deituko dugun beste parte bat, Esse est percipi aut percipere printzipio ospetsuan oinarritua, Berkeleyk abiapuntutzat hartu zuen eta bere filosofia inmaterialista guztia garatzeko aukera eman zion printzipioa berau. Gure filosofoak bistako eta bidezko egiazat zeukan printzipio honek, existitzen diren izakien eremua mugatzeko balioko dio, zeren gauza bat existitzen dela, hautematen badu eta hautemana bada bakarrik esan baitaiteke. Hautematen duten izakiei Berkeleyk adimenduak edo espirituak deitzen die, eta hauteman aditzak, forma aktiboan, adimenduen ezaugarria hain zuzen ere jarduera dela adierazten digu. Ezin dugu, sarrera txiki honetan, “hauteman” terminoak Berkeleyren filosofian duen esanahia aztertu, baina esan behar dugu hemen eskuarki ematen zaiona baino askoz esangura zabalagoa duela, zeren hautemanezko ezagutza ez baita beti zentzuei dagokiena; gero ikusiko dugun bezala, mundu sentigarria osatzen duten ideiak Jainkoak hautematen ditu giza adimenduek egiten ez dutenean, eta Jainkoak ezin du zentzuez ezagutu, horrek akatsa suposatuko lukeelako.

Hautematea adimenduari berez dagokiona bada, ideien karakteristika hautemanak izatea da. Adimenduen eta ideien artean ez dago inolako antzekotasunik, aktibo eta pasiboaren artean ez dagoen bezalaxe. Elkarren artean duten lotura bakarra hautematean sortzen den ezagutza-erlazioa da. Ideien eta adimenduen munduak erabat heterogenoak dira, ezagutzeko egintzak bakarrik elkarerlazonatuak.

Printzipio berria gutxi “existitu” terminoaren esanahia eskaintzeko baino ez da. Existitzen den orok edo hauteman egiten du edo hautemana da. Hautematea, horrela, existitzen den zernahiren esanahia deszifratzeko era bihurtzen da. Definizioz, hautematearen mendelurrean sar ezin daitekeena existentzi eremutik kanpo geratuko da. Ezagutza, hautematea zehazkiago, existentziaren irizpide bihurtuko da.

Printzipio berriak baita ere balioko dio Berkeleyri materia ez dela existitzen demostratzeko molde berriz (ez du hautematen eta ez da hautemana), eta eszeptizismo arrisku orori ihes egiteko, zeren printzipio horrek zentzuen bidezko ezagutza birbalioztatzen du, hots, gorpuzdun munduarekin, mundu naturalarekin kontaktuan jartzen gaituena.

Berkeleyren filosofia guztia, printzipio berri honexetatik eratorria da sinple, logiko eta koherenteki.. Egin zitzaizkion kritikarik gehienak beronen ezezagutza sakonean oinarriturik daude, honek batzuk Berkeleyri berak nabariki arbuiatu zuena egoztera eraman dituelarik. Eszeptikotzat jo zuten Hume¹¹, Reid¹² eta Beattie-k¹³; gorputzen

¹⁰ Hume, D., *A Treatise on Human Nature*, I, I part. 7. atala

¹¹ *An Enquiry concerning Human Understanding*, XII at., 1. parte

¹² *Inquiry into the Human Mind*, I kap., 5 eta 7 at.

¹³ *Essay on the Nature and Immutability of Truth in opposition to Sophistry and Scepticism*, 2. kap.; eta II, 2 kap., 1. at.

benetako existentzia ukatzeaz akusatu zuen Wolffek, beste batzuen artean¹⁴, eta Kantek berak idealista izatea egotzi zion behin betiko Arrazoimen hutsaren kritika-n¹⁵.

Horregatik guztiagatik, zilegi da galdetzea, Steinkrausek egiten duen bezala¹⁶, Berkeleyren kontra eraso horiek egindakoek Printzipioak-en hogeita hamahirugarren ataletik gora pasa ote ziren. Ez dago dudarik filosofo irlandarra irakurria baino kritikatuagoa izan dela. Espero dugu ondoren eskaintzen den itzulpena Berkeleyren pentsamendua hobeto ezagutzeko balioko duela, eta nahi ere horixe nahi dugu, hauxe izan baita lan honetarako izan dugun asmo bakarra.

Concha Cogolludo Mansilla

Egilearen hitzaurrea

Hemen publiko egiten dudana, ikerketaldi luze eta zehatz-mehatz baten ondoren, nabariki egiazkoa dela uste izan dut, eta ez emendio eta onura gabekoa berau ezagutzea, batez ere eszeptizismoak kutsaturik daudenentzat edo "Jainkoaren" existentzia eta inmaterialtasunaren edo arimaren berezko hilezkortasunaren demostrazio bat behar dutenentzat. Hau egia den ala ez, irakurleak inpartzialki aztertzea nahi dut. Zeren, idatzi dudanetik espero dudana arrakasta bakarra "egiarekin" bat etor dadin baita. Baina "honek" kalterik paira ez dezan, irakurleari eskatzen diot zintzilik utz dezan bere judizioa, harik eta obra guztia, behin bederen, irakurri arte, jorratzen den gaiak merezi bide duen adinako aditasun eta hausnarketaz. Zeren, pasarte batzuk baitaude, banan hartuta, (ezin ekidin izan baitzen) gaizki interpretatuak izateko eta ondorio absurduenen akusazioa jasotzeko arrisku handia dutenak, halarik ere, irakurketa oso baten ondoren ikusiko den arren pasarteetatik atera ezin diren ondorioak direla. Eta era berean, irakurketa osoa eginda ere, baina arinki, ziurraski gaizki ulertuko litzateke esan nahi dudana. Baina irakurle arretatsuak dena argi eta bidezko aurkituko duela uste dut neure burua lausengatuz. Agertuko diren zenbait noziok ukan lezaketen nobedade eta singularitasun kutsuari dagokionez, ez dago, hala espero dut, inolako defentsarik egin beharrik. Demotra daitekeen egia bat, oraintsutik ezagutzen delako eta gizateriaren aurreritziaren kontrakoa delako soilik arbuiatzen duen pertsona, nahitaez eta dudarik gabe, edo oso laburra da, edo zientzi kontuetan gutxi ibilia. Horrexegatik jo izan dut oso egokitzen hitzaurre hau egitea, ondo ulertu aurretik eritzi bat kondenatzeko gertu agertzen diren batzuen kritikak, ahal balitz, aurremozteko.

¹⁴ *Psicología racional*, 1734, 36. at.

¹⁵ Losada ed., I lib., 349-350 or., Bs. As, 1967, 5. ed.

¹⁶ "Berkeley and his modern critics", *New Studies in Berkeley's Philosophy*, 148 or, New York, 1966

Sarrera

1. Jakituriaren eta egiaren estudioa besterik ez delarik Filosofia, arrazoiz espero zitekeen horretan denbora eta ahaleginik ugarien eman dutenak adimendu-sosegu eta baretasun eta ezagut-argitasun eta ebidentzia handiagoren jabe izatea, eta halaber, zalantza eta eragozpenen eragina gorabehera, beste batzuk baino gutxiago kezkatuta bizi izatea. Hala ere, gizateri moltso eskolagabea da, oso-osoko zentzu komunaren errepidetik eta naturaren esanek gidaturik doana, lasai asko eta kezkarik gabe dakusaguna gehienbat. Ohizko gauzetan ezertxo ere ez zaie iruditzen horiei azalgaitz edo ulerkaitz. Ez dira kexu beren zentzuen inolako ebidentzi faltaz eta eskeptiko bihurtzeko arriskutik at daude erabat. Baina guri, zentzu eta intuitutik harantz abiatu bezain laster, goragoko mailako printzipio baten argitan gauzen izaerari buruz arrazonaketa, gogoeta eta hausnarketa egitera, milaka kezka sortzen zaizkigu geure adimenduetan lehentxeago guztiz ulergarritzat genituen gauzei buruz, hain zuzen ere. Handik eta hemendik azaltzen zaizkigu begi bistara aurreritziak eta zentzu akatsak; eta arrazoimenaz zuzentzen saiatzean, igarri gabe irristatzen gara paradoxa, zailtasun eta inkontsistentzia zabarretan, ugalduz eta gailenduz doazkigularik espekulazioan aurrera jo ahala; eta hamaika labirinto korapilotsutan ibili ondoren noraezean, lehengo lekuan edo, are okerrago dena, eskeptizismo etsi-etsian murgilduta gaudela ikusteraino gailendu ere.

2. Honen zergatia gauzen iluntasuna dela esan ohi da, edota geure ezagumenaren berezko ahultasuna eta imperfekzioa. Ditugun ahalmenak urriak direla esan ohi da, eta dauzkaguntxoak bizitzaren sostengu eta erosotasunerako taiutuak, eta ez gauzen barne-esentzian eta izaeran sakontzeko. Gainera, giza adimendua mugatua izanik, ez da batere harritzekoa, infinituaz zerikusi duten gauzez ihardutean, absurdu eta kontraesanetan erortzea; zeintzuetatik sekula ere ezingo den askatu, infinituaren izaerari dagokiona baita finitua den izakiak hura ezin ulertu izatea.

3. Baina, beharbada, alderdikoiegiak izan gaitezke geure buruaren alde, ditugun ahalmenetan kokatzean lehenengo eta behin akatsa, eta ez horrenbeste izan ohi dugun ahalmenon erabilera okerrean. Latza da, izan ere, suposatzea egiazko printzipioetatik datozen dedukzio zuzenak, gero zutik eutsi eta manten ez daitezkeen ondorioetan buka litezkeela noizbait ikustea. Sinestekoa da Jainkoak ontasun handiagoz jokatu duela gizasemeekin, hain irrits bizia eman aipaturiko ezagutzarako eta gero haien irispidetik guztiz kanpo jartzeko baino. Hau ez legokio Probidentziaren ohizko jokamolde gupidatsuari, Berak, kreaturretan jarri duen edozein irrikarekin batera, eurok porrotik gabe asetzeko medioz ere hornitu baititu eskuarki, mediook ondo erabiliz gero. Oro har hauxe pentsatzera naiz aiher, orain arte filosofoak deitoratu dituzten eta ezagutzaren bidea eragotzi dieten oztopo gehientsuak, denak ez esatearren, gu geugandik sortuak direla. Geu garela aurrenik hautsa astindu dugunok eta gero, ikusterik ez dugula eta, erostaka gabiltzala.

4. Aurkitzen saiatzeko asmoa dut, beraz, zeintzuk ote diren zalantza eta ziurgabetasun hau, absurdu eta kontraesan hauek, sortarazi dituzten printzipioak filosofi eskola bakoitzean; izan ere ziurgabetasuna, gizon jakintsuenek gure ezjakintasuna sendagaitza dela uste izaterainokoa delarik, gure ahalmenen berezko dorpezian eta mugapenean duela sorburua pentsatuz. Eta ziurraski merezi duen lana dugu ikerketa zehatz bat egitea giza ezagutzaren oinarritzko printzipioei buruz, alderdi guztietatik aztertuz eta miatuz; batez ere zenbait arrazoi izan daitekeelarik susmatzeko, egiaren bilakuntzan adimendua lotu eta oztopatzen duten traba eta zailtasunen iturburua ez datzala objektuen ezein iluntasun eta konplexutasunean edo ezagumenaren berezko akatsen batean, baizik eta mantendu izan diren gezurrezko printzipioetan, ekidin zitezkeenak bestalde.

5. Zein gizon handi eta apartak izan diren nire aurretik asmo berdinez gogora ekartzen dudanean, saiakera honek zaila eta etsigarria dirudien arren, ez naiz itxaropenik gabe aurkitzen ikuspegi zabalenak ez direla beti argienak izaten pentsatuz gero, eta bista laburrekoak, objektua hurrerago ekartzera beharturik, bereizi ahal izango duela agian, hurbileko ikusketa hertsiaz, beste begi askozaz zoliagoei ihes egin dien hura.

6. Irakurlearen adimendua prestatzeko jarraian datorrena uler dezan, egoki da aurretik zerbait esatea, sarrera moduan, mintzairaren izaerari eta abusuari buruz. Baina gai hau azaltzeak, dudan asmoari aurrea hartzerantz narama, hein batean, espekulazioa konplexu eta nahasi bilakatzearen eragile nagusi dirudien eta ezagutzaren ia alderdi orotan errore eta zailtasun kontaezinak eragin dituen arazoa ukitzean. Hots, adimenduak ideia abstraktuak eta gauzen nozioak eratzeko ahalmena duela uste izatea. Filosofoen idazki eta eztabaidekiko guztiz arrotz ez den edonork jakin behar du ideia abstraktuei buruz ihardun izan duela haietariko ez gutxik. Ideia abstraktutzat, bereziki Logika eta Metafisika deritzaten zientzien aztergai dena jotzen da, baita ustez jakintza abstraktu eta gorenaren nozio barneko den guztia ere, nekez aurki baitaiteke guzti horretan arazorik, aurrenik adimenduan existitzen dela eta honek ondo ezagutzen duela suposatutzat eman gabe tratatzen denik.

7. Denak daude ados gauzen nolakotasun eta moduak ez direla inoiz benetan beren kabuz eta beste guztietatik bereizirik existitzen, baizik eta nahasirik nola edo hala eta elkarrekin bildurik bat baino gehiago objektu berean. Adimenduak, esaten digute, nolakotasun bakoitza banaka edo kide dituen beste nolakotasunetatik abstraiturik kontsideratu ahal duenez gero, ideia abstraktuak eratzen ditu horrelaxe jokatzuz. Adibidez, objektu hedatu, kolorezko eta higiduradun bat ikusmenez hautemana: ideia mixto eta konposatu hau beronen zati single osagaietara erakarriz eta zatitarriko bakoitza bere aldetik, besteak kontutan hartu gabe, kontenplatzean adimenduak, hedadura, kolore eta higiduraren ideia abstraktuak eratzen ditu. Honek ez du esan nahi kolorea eta higidura izan daitezkeenik hedadurarik gabe, baizik eta haxe soil-soilik: adimenduak eratu ahal duela "abstrakzioz" kolorearen ideia hedadurarik gabe, eta higidurarena bata ez bestea gabe, hots, kolore ez hedadurarik gabe.

8. Halaber, adimendua ohartu denez gero, badela zentzuez hautemaniko hedadura partikularretan zerbait guztiekiko eta antzeko dena, baita beste zenbait berezitasun ere, dela figura edo magnitude hau edo hura, elkarretarik ezberdin egiten dituen, aparte kontsideratzen du edo bereizten guztiekiko dena, hortik, hedaduraren ideia abstraktuagoa ateraz, ez lerro, ez azalera ez sendar dena, ez ezein figura edo magnitude duena, baizik eta guzti horiek batere kontutan hartzen ez dituen ideia bat. Horrelatsu, adimenduak, zentzuez hautemaniko kolore partikularretatik aparte utziz bata bestetik bereizten duena eta soil-soilik gordez guztiekiko den hura, kolorearen ideia eraikitzen du abstraktuan, ez gorri, ez urdin, ez zuri dena, ezta beste ezein kolore jakineko ere. Eta, era berean, higidura kontsideratzean abstraiturik ez bakarrik higituriko gorputzetik, baizik eta baita ere egiten duen figuratik eta norabide nahiz abiadura partikular guztietatik, higiduraren ideia abstraktua eratzen du; zentzuez hauteman daitezkeen mugimendu guztiei berdinki dagokiena berau.

9. Eta nolakotasun nahiz moduen ideia abstraktuak eratzen dituen bezalaxe, zehaztasun eta adimen-bereizkuntza berdinarekin erdiesten ditu adimenduak izaki anizkunagoen, hots, beren baitan kalitate ezberdinak batzen dituztenen ideia abstraktuak. Adibidez, adimendua konturatu denez Kepa, Jaime eta Jon antzekoak direla itxuraren eta beste nolakotasun batzuen zenbait komunztaduratan, bazterrean uzten du Kepa, Jon eta beste edozein gizaki partikularri buruz duen ideia konplexu eta anizkuntetik bakoitzaren berezitasun dena, guztiekiko dena soil-soilik gordez; eta horrelaxe sortzen du partikular guztiak berdinki partaide dituen ideia abstraktu bat, abstraituz erabat eta aparte utziz

existentzia partikular batera muga litekeen zirkunstantzia eta ezberdintasun oro. Eta era honetan iristen garela esan ohi da "gizaki", edo gizadi edo giza izaera nahi bada, delakoaren ideia abstraktura; zeinetan, egia esan, badago kolorea, ez baita gizakirik kolorerik ez duenik, baina orduan ezin da izan zuria ez beltza ez beste kolore partikular; ez dagoelako ezein kolore partikularrik gizaki guztiek konpartitzen dutenik. Badago baita ere garaiera, baina ez da horregatiko ez garaiera altua ez baxua ezta garaiera ertaina ere, baizik eta horietatik guztietatik abstraituriko zerbait. Eta horrela beste guztiari buruz. Areago, era askotako beste izaki batzuk direlarik "gizakia" delako ideia konplexuaren alderdi zenbaitetan partaide, nahiz eta ez denetan, "animalia" delako ideia eratzen du adimenduak, gizakiei bereziki dagozkien alderdiak baztertuz eta izaki bizidunetan guztiekiko dena soil-soilik gordez, gizaki partikular guztietatik ezezik, txori, abere, arrain nahiz intsektu guztietatik ere abstraituz. Honako hauek dira animalia abstraktuaren osagai: gorputza, bizitza, sentikortasuna eta berezko higidura. "Gorputza" esatean, forma edo figura partikular gabeko gorputza esan nahi da, ez baita ezein forma edo figura animaliengan guztiekiko denik, estalgarririk ez duena, ez ile ez luma ez ezkata eta biluzia ere ez dena, ezen ile, luma, ezkata baita biluztasuna ere animalia partikularren propietate bereizgarriak baitira eta, arrazoi horregatik, "ideia abstraktutik" at utziak. Arrazoi beragatik, berezko higidura ere ezingo da ez ibilera ez hegaldara ez narratzera izan, baina higidura da halere, nahiz eta erraz ez den irudikatzen higidura hori zer ote datekeen.

10. Besteek duten ala ez beren ideiak abstraitzeko ahalmen harrigarri hori, eurek esan dezakete ondoen: neuri dagokidanez, badudala uste dut, neronek hauteman ditudan gauza partikularren ideiak iruditzeke eta errepresentatzeko ahalmena, baita hauek era ezberdinez osatzeko edo zatitzeko. Nik iruditzen ahal dut gizon bat bi bururekin edo gizon baten goiko atalak zaldi baten gorputzari loturik. Kontsidera ditzaket, bai, eskua, begia, sudurra, bakoitza bere aldetik gorputzaren gainerakotik abstraitua edo banandua. Baina orduan, iruditzen dudana edozein eskuk edo begik itxura edo kolore partikularren bat behar du ukan. Horrelatsu, nik eratzen dudana gizonaren ideiak gizon zuria izan beharko du edo beltza edo nabarra, tentea edo konkorra, garaia, baxua edo ertaina. Ezin dut, pentsamenduaren ahaleginak ahalegin, arestian deskribaturiko ideia abstraktu hura irudikatu. Orobat, ezinezko dut higiduraren ideia abstraktua eratzea higitzen den gorputzetik bereizia, eta azkarra ez dena, ezta geldoa, ez arteza ezta zeharria; eta gauza bera esan daiteke dena delako beste ideia abstraktu orokorrekin. Egia esateko, zentzu batean bai sentitzen naiz abstraitzeko gai, hots, zenbait alderdi edo kualitate, beraiek gabe existi daitezkeen beste batzuek bereizirik kontsideratzen ditudanean, nahiz eta elkarrekin baturik gertatu objektuen batean. Baina ukatu egiten dut nik neuk abstrai ditzakedanik bata bestetik, edo irudika ditzakedanik bereizirik, berez horrela bereiz existitzea ezinezko duten nolakotasunak, edo nozio orokor bat eratu ahal dudarik partikularretatik, goian esandako erara. Azken bi hauok baitira "abstrakzioa" delakoaren jatorrizko adierak. Eta bada arrazoirik uste izateko gizakirik gehienek aitortuko luketela nire kasuan aurkitzea. Xume eta eskolagabe den gizakietarik gehientsuenak ez du inoiz izan "nozioak abstraitzeko" asmorik. Zailak direla esan ohi da, izan ere, eta lortezinak neke eta ikasketarik gabe. Arrazoiz konkluditzekoa da, beraz, izatekotan ere halakorik, jende ikasiarentzat soilik daudela erreserbatuak.

11. Aztertzerik noa abstrakzioaren doktrinaren alde argumenta daitekeena, ea aurkitu ahal dudana zerk makurtzen duen espekulazioaren inguruko jendea zentzutik hain urrun dirudien eritzi hori besarkatzera. Orainsu hil den filosofo bat izan da, merezimendu osoz estimatua bera, bultzada handi-handia eman diona horri, uste izanik, itxuraz, ideia orokor abstraktuak izatean datzala gizakiaren eta animaliaren ezberdintasun sakonena ezaguerari dagokionez. "Ideia abstraktuak izatea da (dio berak) ezberdintasun garbi-

garbia jartzen duena gizakien eta abereen artean, abereen ahalmenek inola ere erdietsi ezin duten bikaintasuna delarik berau. Bistakoa baita ez dugula somatzen hauengan ideia unibertsaletarako zeinu orokorrezt baliatzeko urratsik, horrexek garmatza uste izatera ez dutela ideia abstraktuak eraikitzeiko edo "abstraitzeiko" ahalmenik, ez baitira baliatzen berbaz ez beste ezein zeinu orokorrezt. "Eta gerotxoago dio": "Beraz, eman dezakegula uste dut horrexetan bereizten direla animali espezieak gizonengandik, eta ezberdintasun bereizgarri haxe dela elkarrengandik guztiz banantzen dituen eta hain troka handia zabaltzen azkenean. Zeren ideiarene bat badute eta makina soilak ez badira (baten batek eurei buruz uste bezala), ezin ukatu diegu nolabaiteko arrazoimena. Zentzuak dauzkatela bezain ebidente dela uste dut arrazoimenaz baliatzen direla haietarikoz batzuk zenbait kasutan, baina soil-soilik ideia partikularrei dagokienez, beren zentzuen bidez jasotzen dituztenezt, hain zuzen. Loturik aurkitzen dira eurentarikoz onenak muga estu honen barruan, ukan ere ez dutelarik, nik uste, handik ateratzeko ahalmenik ezein motako "abstrakzio" bidez". "Giza ezagumenari buruzko saiakera, II L., 11.k., 10. eta 11. atalak". Guztiz ados nago autore jakintzu honekin animalien ahalmenek ez dutela inola ere "abstraitzera" iristerik. Baina hori hartzen bada aipatu animali motagandik banantzen gaituen tasun bereizgarritzat, gizontzat diren asko ere haien artean izan behar ez duten beldur naiz. Abereek ideia orokor abstraktuak dituztela uste izateko oinarririk zergatik ez dugun esateko ematen zaigun arrazoia haxe da hemen, ez dugula somatzen berbaz edo beste ezein zeinu orokorrezt baliatzen direnik; suposizio batean oinarritzen da hau baina, hots, hitzez baliatzeak ideia orokorrak edukitzea esan nahi duela. Eta hortik ondorioztatzen hizkuntzaz baliatzen diren gizakiak gai direla beren ideiak abstraitzeiko edo jeneralitzeiko. Argi geratuko da, gainera, horixe dela autoreak esan eta argudiatu nahi duena, beste toki batean planteatzen duen ideiarei erantzuten dionean: "Existitzen diren gauza guztiak partikularrak baino ez izanik, nola demontre iristen gara termino orokorretara?". "Eta bere erantzuna". "Ideia orokorren zeinu gertatzean bilakatzen dira orokor terminoak". "Giz. Adim. buruzko Saiak., III L., 3. k., 6. atal.". Baina badirudi berba bat orokor bilakatzen bada, ez dela ideia abstraktu baten, baizik eta adimenduari berdinki iradokitzen zaizkion zenbait ideia partikularren zeinu egiten delako. Adibidez, "higiduraren indarra ezarritako indarraren proportziozkoa dela" esatean, edota "hedadura duen guztia zatigarri dela", proposiziook mugimenduarekiko orokorki edo hedadurarekiko ulertuak izan behar dute; baina horrek ez du esan nahi, halere, ene pentsamenduari iradokitzen diotenik mugitzen ez den gorputzik gabeko edo norabide eta abiadura jakin bat gabeko hedadura, edota hedaduraren ideia orokor abstraktua irudika dezakedanik, lerro ez dena, ez azalera, ez sendar, ezta ere handi ez txiki, beltz, zuri ez gorri ezta beste ezein kolore jakineko ere. Haxe da soil-soilik esan nahi duena, neronek kontutan har dezakedan edozein mugimenduri, dela azkar edo geldo, dela perpendikular, horizontal edo zehar, edozein objektutan dagokion axioma, egia gertatzen dela berdinki. Edozein hedadura partikularri dagokion beste axioma batekin gertatzen den bezalaxe, dena delako hedaduraren kasuan, dela lerro, azalera nahiz sendar, holako zein halako magnitude edo figura ukan.

12. Ideiak nola bilakatzen diren orokor behatuz atzeman dezakegu hobeto nola iristen diren horraino berbak. Eta ohartarazi beharra dago hemen nik ez dudala inola ere ukatzen ideia orokorren existentzia, baizik eta "ideia orokor abstraktuen" soil-soilik: zeren goian aipaturiko pasarteetan ideia orokorrezt ihardutean, beti ematen baita "abstrakzio" bidez eratuak direla, 8 eta 9 ataletan finkatutakoaren arabera. Alabaina, gure hitzei esanahi bat egotzi nahi badiegu eta irudika dezakegunaz bakarrik mintzatu, onartuko dugula uste dut nik ideia bat, bere horretan partikularra dena, orokor bilakatzen dela, bilakatu, mota bereko beste ideia partikular guztiak errepresentatzeko edo ordezteko jartzen denean. Adibide batez argitzeko, eman dezagun geometra bat ari

dela lerro bat bi zati berdinetan ebakitzeko prozedura demostratzen. Lerro beltz bat egiten du, adibidez, hazbete luzekoa. Berez lerro partikularra den hau orokorra duzu, ordea, bere esanahiari dagokionez, zeren eta hor erabiltzen den moduan lerro partikular guztiak errepresentatzen baititu, dena delakoak direla, berari buruz demostratzen dena edozein lerroari buruz demostratzen delarik edo, beste modu batera esanda, lerroari buruz orokorki. Eta lerro partikular hau, zeinu gertatzean, orokor bilakatzen den bezala, halaxe "lerro" hitza ere, zeinu gertatzean bilakatzen da orokor, absolutuki kontsideratuz partikular izanik ere. Eta lehenengoak bere orokortasuna zor dion bezala, ez ideia abstraktu eta orokor izateari, baizik eta existi daitezkeen lerro partikular guztien zeinu izateari, era berean pentsatu behar da bigarrenaren orokortasunak ere kausa bera duela, hots, "lerro" hitzak berdinki adierazten dituen lerro zuzen partikular ezberdinak.

13. Oraindik ere argiago uler dezan irakurleak nolakoak diren ideia abstraktuak eta zertarako uste den erabili behar direla, beste pasarte bat aterako dut "Giza ezagumenari buruzko saiakera" obratik, honelaxe dioena: "Ideia abstraktuak ez dira partikularrak bezain bidezkoak edo errazak umeentzat edo behar den moduan trebatu gabeko adimendua dutenentzat. Helduek horrela baderitze, ideioek etengabe eta ohituraz erabiliz handi egin direlako da. Zeren, arretaz jartzen garenean eurretaz pentsaketan, zera aurkitzen baitugu, ideia orokorrak adimenduaren fikzioak eta asmakizunak direla, zailtasuna ugari dutelarik eta ez zailkigularik agertzen guk uste edo nahi bezain errazki. Adibidez, ez al da behar esfortzu eta trebetasunik triangeluaren ideia eratzeke, eta hori berau ez dela abstraktu, konplexu eta zailenatarikoa?. Izan ere, ez baitu izan behar ez angelu zehar, ez zuzen, ez ekilatero ez isoskele ez eskaleno, baizik "denok eta bat ere ez" batera. Izan ere, zenbait ideia ezberdin eta "bateraezinen" zatiak biltzen dituen ideia, existitu ezin den ideia inperfektua da. Egia da adimenduak, duen egoera inperfektuan, holako ideien premia duela eta lasterka abiatzen dela berauek eskuratzera, komunikatzeko erosotasuna lortzeko eta ezagupenak gehitzeko, biotara baitu joera handia. Baina, hala eta guztiz ere, batek arrazoiak ditu pentsatzeko ideioek geure inperfekzioaren seinale ditugula. Edo behintzak hau aski da erakusteko ideia abstraktu eta orokorrenak ez direla adimenduak lehenbizi eta errazkien ezagutzen dituenak, ezta gure ezagumenaren lehenbiziko ihardungai ere". IV L., 7. K., 9. at. Baten batek baldin badauka hemen deskribatu dugun bezalako triangeluaren ideia eratzeke ahalmena, alferrekoa litzateke ideia hori, berarekin eztabaidatuz, burutik kendu nahi izatea, eta ez naiz horretan ariko. Nik nahi dudana zera besterik ez da, irakurleak informazioa izan dezan erabat eta guztizko ziurtasunez ikusteko ideia hori daukan ala ez. Eta uste dut egiteko hau inorentzat ere ez dela egingaitz, zeren, ba al da inorentzat ezer errazagorik bere pentsamenduak aztertu eta ikusten saiatzea baino ea daukan bere baitan, edo lortu ahal duen, hemen deskribaturiko triangeluaren ideia orokorrarekin bat datorren ideiarik, hots, "ez zehar, ez zuzen, ez ekilatero, ez ikoskele ez eskalenoa, baizik guztiau eta bat ere ez batera" denik?

14. Esana dugu hemen gauza asko ideia abstraktuek beren baitan daukaten zailtasunari buruz eta eurak eratzeke behar diren ahalegin eta trebeziari buruz. Eta denek onartzen dute adimenduaren esfortzu eta lan handiak behar direla gure pentsamenduak objektu partikularretatik askatu eta ideia abstraktuei buruzkoa den espekulazio bikain-bikainera jasotzeko. Guzti honen ondorio natural dirudi, ideia abstraktuak eratzea bezalako egintza zail bat ez dela beharrezko "komunikaziorako", hain erraza eta egunerokoa denez mota orotako gizasemeentzat. Baina erantzuten digute, hain argi eta erraz baderitze pertsona helduek, hori "etengabe eta beti erabili izan dituztelako dela eta ez beste ezergatik". Orain gurako nuke jakin noiz demontre ibili izan diren gizasemeak zailtasun hau gaingitzen eta solasaldietarako beharrezko diren laguntzez jabetzen. Handitan ezin, zeren lan neketsu horren jakitun ez direla dirudi eta; beraz haurtzaroko

kontua dela besterik ez da geratzen. Eta aitortuko da nonbait nozio abstraktuak eratzeko behar den lan handi eta korapilotsua lan latza dela adin samur horretarako. Ez al ditu lanak ematen haur pare bat beren jostailu eta gozokiez eta gainerako purtxileriez hitzegin ezinik iruditzeak, harik eta inkonsistentzia piloa metatu eta beren adimenduetan "ideia orokor abstraktuak" eratu ondoren, darabilten izen arrunt orori ideioak erantsi arte?

15. Eta "ezagupenak gehitzeko" ere, ez dut uste "komunikaziorako" baino mendrenik ere beharrezkoagoak direnik. Badakit sarri ekin izan zaion puntua dela ezagutza eta demostrazio oro nozio unibertsalez dela, eta honekin erabat ados nator, baina ez dut uste noziook "abstrakzioz" eratzten direnik lehen esandako moduan; "abstrakzioa", nik ulertu ahal dudaino, ez datza zerbaiten izaera edo kontzepzio absolutuan, positiboan, baizik eta berak adierazitako edo ordezkaturiko partikularrekin duen erlazioan; honexen eraginez gertatzen delarik berez "partikularrak" diren gauza, izen edo nozioak "unibertsal" bilakatzea. Eta horrela nik demostratzen dudanean triangeluei buruzko proposizioen bat, triangeluaren ideia unibertsala daukadala kontutan suposatu behar da; baina hau ez da ulertu behar ez ekilateroa, ez isoskelea ez eskalenoa ez den triangelu baten ideia eratu ahal banu bezala, baizik eta hauxe soilik, kontutan dudan triangelu partikularrak, halakoa zein holakoa izan, triangelu lerrozuzen guztiak ordeztu eta errepresentatzen dituela eta, zentzu honetan, "unibertsala" dela. Guzti honek argi dirudi eta ez du berez zailtasunik.

16. Baina hemen galde daiteke, nola jakin ahal dugu proposizio bat egiazkoa dela triangelu partikular guztiekiko, lehenago denei dagokien triangelu ideia abstraktuarekiko demostratuta ikusi ondoren izan ezik? Zeren, propietate bat triangelu partikularren bati dagokiola demostratu arren, honi ez darraio beste aspektu batzuetan honekin bat ez datorren edozein triangelurena denik. Adibidez, triangelu errektangelu isoskele baten hiru angeluak zuzen bi egiten dutela frogatu arren, ezin dut, hala ere, konkluditu propietate hau angelu zuzen bat eta alde bi berdina ez dituzten triangelu guztiei dagokienik. Badirudi, hala ere, proposizio hau unibertsalki egiazkoa dela ziur egoteko, honako bata edo bestea egin behar dugula, hots, triangelu unibertsal bakoitzeko demostrazio partikular bat egin, ezinezko dena, edo "triangeluaren ideia abstraktuarekiko" demostratu behin betiko, triangelu partikular guzti-guztiak baitira ideia honetan partaide eta beronek ordezkatuak era berdinean. Honi erantzuten diot, demostrazioa egiten dihardudanean kontutan dudana ideia, adibidez, triangelu errektangelu isoskele batena izan arren, beronen angeluak luzera konkretu batekoak direlarik, hala ere ziur egon naitekeela beste triangelu lerrozuzen guztiei, mota edo tamainu guztietakoei, aplikatu dakiekeela. Eta hau horrela da, zeren ez angelu zuzenak, ez aldeak berdintasunak edo luzera konkretuak ez daukatelako inolako zerikusirik demostrazioarekin. Egia da buruan daukadan diagramak partikularitasun guztiok barnesartzen dituela, baina ezertarako ere ez dira aipatzen proposizioaren frogan. Hiru angeluek zuzen bi egiten dutela esaten bada, ez da angeluetako bat zuzena delako, edo osotzen duten aldeak luzera berekoak direlako. Honek nahikoa den bezainbatean demostratzen du angelu zuzena zeharria balitz ere, eta aldeak ezberdinak, demostrazioak baliozko iraungo lukeela. Eta arrazoi honengatik konkluditzen dut egiazkoa dela edozein triangelu angeluzeharri edo eskaleneri dagokionez, triangelu errektangelu isoskele bati buruz demostratu dudana, eta ez triangelu ideia abstraktua kontsideratuz demostratu dudalako proposizioa. Eta aitortu beharra dago hemen gizonak kontsidera lezakeela figura bat triangelu denez soilik, angeluen nolakotasun partikularrak edo aldeak arteko erlazioak kontutan izan barik. Honaino abstraitu ahal da, baina honek ez du frogatuko triangeluaren ideia abstraktu kontraesankorrik era daitekeenik. Era berean

Kepa gizon edo animalia kontsidera dezakegu, goian aipatu ideia abstraktua, gizonarena edo animaliaarena, hautematen den guztia kontutan hartu gabe eratzen den heinean.³

17. Egiteko amaigabea, eta era berean alferrekoa, litzatete eskolastikoen, abstrakzioaren maisu handi horien, oinatzei jarraitzea izaera eta nozio abstraktuei buruzko beren doktrinak eraman bide dituen errore eta eztabaidaren labirinto nahasgarrian zehar. Nolako eztabaida eta matrakak izan diren eta nolako hauts hodei eskolatua altxatu den gaion inguruan eta zernolako hobekuntza itzelak sortu diren gizateriarentzat eurotatik, kontu ezagunegiak dira gaur egun, gai honi ekiten jarraitzeko. Eta ondo legoke doktrina horren ondorio galgarriek, beraren aldeko nabarmenak direnengan bakarrik balute eragina. Gizonek kontutan dutenean zientzien aurreramendurako eman diren esfortzu, lan eta talentu ikaragarriak, eta hala eta guztiz ere, inoiz bukatuko ez direla diruditen iluntasun, ziurgabetasun eta eztabaidaz beterik daudela zientzia gehientsuenak, eta are demostrazio argi eta etsigarrienetan oinarriturik diruditenek ere giza adimenduarekin erabat bateraezinak diren paradoxak dauzkatela beren baitan, eta denak oro har ikusita, eurotariko zati txiki batek bakarrik dakarkiola gizateriari jostagarri eta entretenigarri errugabea izateak ekar liezaiokeena eta ez besterik, esateko moduan nago hau dena ikusteak gizakiak etsipenera eta estudio ororen erabateko arbuioa jaurtikitzeko indarra duela. Baina beharbada hau geraraz daiteke, munduan nagusi izan diren printzipioak berraztertzen badira, euron artean ez dagoelarik, nire ustez, espekulazio-gizonen pentsamenduan, ideia orokor abstraktuen honek baino eragin handiagorik izan duen printzipiorik.

18. Orain, nagusi izan dugun ideia honen iturburua aztertzeri noa, nire ustez lengoia dena. Eta, izan ere, hain unibertaski onarturiko ideia honen sorburua ezin izan zitekeen arrazoimena bera baino hedadura txikiagoko ezer. Honen egia agerian jartzen du, beste arrazoiz aparte, ideia abstraktuen eustale kualifikatuenean aitorten garbiak, ideioi izendatzeko eginak direla aitortzen baitute; hemendik ateratzen delarik, lengoaiarik ez balitz, inoiz ere ez zatekeela pentsatuko abstrakzioaz. Ikus "Giza ezagumenari buruzko saiakera" III L., 6. k., 39. at. eta beste pasarte batzuk. Goazen, beraz, aztertzeri nolako eragina izan duten hitzek errore honen sorreran. Lehenengo eta behin uste da izen orokor esanahi zehatz eta finko bat besterik ez daukala, edo ez lukeela eduki behar, honek gizakiak izen orokor bakoitzaren egiazko esanahi zuzen bakarra eratzen duten "ideia abstraktu zehaztuak" existitzen direla pentsatzera makurtzen dituelarik. Eta ideia abstraktuon bidez, hain zuzen ere, gertatzen da izen orokor batek ideia partikular bat adieraztea. Esanahi bakar zehatz eta mugarritu hori izen orokor bati erantsia, ordea, ez da existitzen, zeren anitz ideia adierazten baitute den-denek. Hau denau esandakotik argi eta garbi dator, eta bistakoa izango da edonorentzat, pitin bat pentsatuz gero. Honi zera erantzungo zaio, definizioa duen izen oro esanahi batera mugatuko dela. Triangelua, esate baterako, "hiru lerro zuzenen arteko azalera laua" definituko da, eta horregatik izen horrek ideia konkretu bat eta ez beste adieraziko du. Honi zera erantzuten diot, definizioan ez dela esaten azalera handia ala txikia den, zuria ala beltza, ezta aldeak handiak ala txikiak diren, berdina ala ezberdina, ezta zernolako angeluak eratzen dituzten; eta hemen denean barietate handia izan daiteke eta, ondorioz, ez dago "triangelu" hitza mugatzen duen ideia bakar konkreturik. Bat da definizio berari izen bera ematea beti, eta bi leku orotan ideia bera adierazten jartzea; bata beharrezko da, bestea alferreko eta praktikaezin.

19. Baina hobeto azaltzeko nolatan iritsi ziren izenak ideia abstraktuen doktrina eragitera, kontutan hartu behar da eritzi onartua dela lengoaiak ez duela gure ideiak komunikatzea beste xederik eta esanguradun izen bakoitzak ideia bat errepresentatzen duela. Hau horrela delarik, eta era berean egia izanik baita ere nolabait esanguraduntzat hartzen diren hitzek beti ez dituztela ideia partikular bururagarriak adierazten, zuzenean

konkluditzen da nozio abstraktuak errepresentatzen dituztela. Espekulazio-gizonak erabilitako izen asko dela besteei ideia partikular konkretuak beti iradokitzen ez dizkienak, inork ez du ukatuko. Eta aditasun pitin batek erakutsiko digu ez dela beharrezko (arrazonaketa hertsienetan eurretan ere) ideiak errepresentatzen dituzten esanguradun terminoek, erabiltzen diren guztietan, errepresentatzen dituzten ideiak eragitea adimenduan: irakurtzean eta arrazonatzean, izenak, gehienetan, letrak "algebran" bezala erabiltzen dira, non, letra bakoitzak kantitate partikular bat izendatzen badu ere, zuzen jokatzeko ez den behar urrats bakoitzean letra bakoitzak beroni datxekion kantitate partikularra iradokitzerik gure pentsamendura.

20. Honez gainera, hitzek izendaturiko ideien komunikazioa ez da lengoaiaren xede nagusia ezta bakarra ere, eskuarki suposatzen den bezala. Beste xede batzuk ere badira, hala nola, zenbait grina biztea, ekintza batera zirikatzea edo berau burutik kentzea, gogoia hona edo haratzea; kasuotan, ideiak komunikatzea tresna bat besterik ez da, eta batzuetan erabili gabe geratzen da erabat, xede horiek bera barik erdietsi ahal direnean, eta horrela gertatzen dela uste dut, esate baterako, lengoaiaren lagunarteko erabileran. Irakurleari eskatuko nioke gogoeta egitea eta ikustea ea ez zaion gertatzen, hitzaldi bat entzutean, beldur, amodio, gorroto, mirespen, arbuio, eta antzeko grinak kolpera agertzea buruan zenbait hitz hautematean, ideiarik tartekatu gabe. Hasieran, noski, hitzek eragin zitzaketen grinok sortarazteko aproposak diren ideiak; baina, oker ez banago, lengoaia lagunarteko egitean, aurkitzen dugu, hotsak entzutean edo karaktereak ikustean, sarriaskotan sortzen direla zuzenean, hasieran ideien eragina behar zuten grinak, ideiak une horretan erabat ezabatzen direlarik. Ezinezko al da gu "ona den zerbaiten" agintzariak, esate baterako, eraginda geratzea, zer den ez badakigu ere? Edo, ez al da aski beldurra gure baitan agertzeko arriskuren baten mehatxua izatea, ezbehar konkreturik jazoko zaigunik pentsatu ez arren, eta arriskuaren ideia abstrakturik egiten ez badugu ere? Baten batek gogoeta apurren bat bere kabuz egin badu esandakoaz, pentsatzen dut argi izango duela izen orokorrak maiz erabiltzen direla, lengoaia egokian, hiztunak entzuleengan sortu nahi lituzkeen bere ideien zeinutzat hartu barik. Pertsona-izenak eurak ere ez dirudi beti ahoskatzen ditugunik errepresentatzen bide dituzten gizabanakoen ideiak sortarazteko gure baitan. Esate baterako, eskolastiko batek diostanean "Aristotelek esan du", horren bidez, nire ikusiz, lortu nahi duena zera besterik ez da, ni bere eritzia onartzera makurraraztea, ohiturak izen horri batu dion begiramendu eta menpekotasunaz. Eta ondorio hau hain berehala gerta daiteke beren eritzia aipatu filosofoaren autoritatearen menpean jartzen ohituak diren adimenduetan, non ezinezko den haren idazkiei edo ospeari buruzko ezein ideia aurretik botatzea. Honetariko mila exenplu eman daiteke, baina, zertarako ekin nik, bakoitzari esperientziak, dudarik ez, ugari baino ugariago iradokiko dizkion gauzei?

21. Erakutsi dugu, nik uste, "ideia abstraktuak" ezinezkoak direla. Aztertu dugu euren defendatzaile gaituenek eurei buruz esandakoa eta saiatu gara agertzen ez dutela balio ideioi, beharrezko omen diren xedeetarik bat bera ere lortzeko. Eta azkenez lorratzak segitu dizkiegu lengoaia dela dirudien euren jatorrizko iturbururaino. Ukaezina da hitzak emendio bikainekoak direla, kontutan izanik euren bidez garai eta nazio guztietako ikertzaileen esfortzu bateratu guztiei esker lorturiko ezagupenen biltegi itzel hori, pertsona bakarraren ikuspegira ekar eta beraren jabetzako bihur daitekeela. Baina aldi berean, onartu beharra dago ezagutza-eremu gehientsuenak nahasi eta ilundu egin direla eurretan erabiltzen diren hitzen eta mintzamolde orokorren abusuagatik. Eta horrela, hitzek ezagumenari gainez egiteko joera dutenez gero, dena delakoak izan aztergai ditudan ideiak, neure begien aurrean soil eta biluzik ipintzen saiaturiko naiz ideioi, nire pentsamendutik kanpo uzten ahaleginduz, ahal dudan heinean, etengabeko

eta luzaroko erabileraz hain hertsiki lotu zaizkien izenak; eta hemendik espero dut honako abantaila hauek etorriko direla.

22. Lehenengo, hitz hutsezko eztabaidetatik apartatuko naizen ziurtasuna izango dut; horrelako belar txarrak erne izana ia zientzia guztietan oztopo galanta izan da egiazko ezagutza zindoaren hazkunderako. Bigarren, badirudi prozedura segurua dudala ideia abstraktuaren sare fin eta xotiletik alde egitea, zeinak hain zoritxarrez gizonen adimenduak nahasi eta lardazkatu baititu, eta hori aparteko zertzelada honekin, hots, zenbat eta zorrotzagoa eta jakingura handikoagoa izan gizonaren asmamena, hainbat joera sakonagoa izan duela tranpan erortzera, eta tinkoago eutsita geratu izan dela bertan. Hirugarren, ditudan pentsamenduak, hitzak kenduta, neure ideietara mugatzen ditudan heinean, ez dut ikusten nola erra naitekeen hain erraz. Pentsagai ditudan objektuak, argi eta egokiro ezagutzen ditut. Ezin dut neure burua atzipetu ez daukadan ideia badaukadala pentsatuz. Ezin iruditu dut neure ideia batzuk antzekoak edo ezberdinak direla, errealki horrelakoak ez direnean. Nire ideien artean dagoen adostasun edo desadostasuna bereizteko, ideia konposatu baten baitan zeintzuk ideia dauden ikusteko eta zeintzuk ez, neure ezagumenean pasatzen denaren hautemate arretatsua besterik ez da behar.

23. Baina abaintailok lortzeak hitzen iruzurretik guztiz askatzea auresuposatzen du; eta askapen hau neure buruari agintzen ere nekez ausartzen naiz; izan ere, zail baino zailago da hitzen eta ideien artean dagoena bezalako batasuna, hain goiz hasia eta hain luzazko ohiturak berretsia, hausten. Badirudi zailtasun hau asko handitu dela abstrakzioaren doktrinaren eraginez. Zeren, gizonak ideiak hitzei batuta zeudela pentsatzen zuten bitartean, ez baita txunditzekoa ideien ordez hitzak erabili izana, ezinezko gertatu izan baita hitza albo batera utzi eta berez erabat bururaezina zen ideia abstraktuari adimenduan eustea. Gogoeta orduan hitzak erabiltzea zeharo albo batera utzi eta euren ideia soilak kontenplatzeko hain enfasi handiz besteei gomendatu izan dieten gizonak ere, hauxe izan dutela uste dut arrazoi nagusi, eurek ere hori bera lortzerakoan porrot egiteko. Azkenaldion, jende asko jabetu izan da hitzen abusutik datozen eritzi absurdu eta zentzugabeko liskarrez. Eta okerroi erremedioa jartzeko, ideia adieraziei kontu emateko kontseilatzen digute, zuzen kontseilatu ere, eta ideiak adierazten dituzten hitzetatik aditasuna kentzeko. Baina, den onena izanda ere besteei emandako kontseilu hau, argi dago eurek ezin hartu izan dutela aintzat behar bezainbatean, zera pentsatu izan zutenez gero, ideiak adieraztea zela hitzen erabilera zuzen bakarra eta izen orokor ororen esanahi zuzena "ideia abstraktu jakin bat" zela.

24. Baina hauek erroreak direla jakina denez, erraztasun handiz ekidin daiteke hitzek gailen dakizkigun. Berak ideia partikularrak besterik ez daukala dakiena, ez da buru hausten ariko ideia abstraktua edozein izeni lotua idorotzen eta bururatzen. Eta hitzek beti ez dituztela ideiak errepresentatzen dakienak, bat bera ere ez den tokian ideia bila ibiltzeko lana aurreztuko du. Desiragarri litzateke, beraz, bakoitzak pentsagai dituen ideien ikuskera argia lortzeko ahaleginik handienak egin litzan, euretatik bananduz beti, judizioa iluntzen eta aditasuna zatikatzen hainbeste laguntzen duten hitzen jantzi eta enbarazu hori. Alferrik luzatzen dugu begirada zerura eta arakatzen lurraren erraiak; alferrik kontsultatzen ditugu gizon jakintsuen eskribuak eta azterkatzen aintzinateko lorratz ilunak; hitzen gortina biltzea besterik ez dugu behar ezagutzaren arbola ederra kontenplatzeko, fruitu bikaina duena eta geure eskuaren irispidean duguna.

25. Giza ezagutzaren lehen printzipioak hitzen engainu eta trabatik libre uzten saiatu ezean, euretan oinarrituriko mila arrazonamendu egin genitzake xederik gabe. Ondorioetatik ondorioak atera genitzake, lehen baino gehiago jakin gabe. Urrunen joanda ere, itzulbiderik gabe galtzea eta zailtasun eta errore artean gero eta gehiago korapilatzea besterik ez dugu lortuko. Horregatik, hurrengo orrialdeak irakurtzeko

asmoa duen orori arren eta arren eskatzen diot nire hitzak, bere kabuz pentsatzeko egokieratzat har ditzan, eta idaztean neuk izan nuen pentsamendu-andana bera lortzen saia dadin eurak irakurtzean. Nire hitzek engaina dezaten arriskutik erabat libre izango da eta, bere-bere ideia biluziak inolako disfrazik gabe kontsideratzen baditu, ez dut ikusten errorean jausteko modurik izango duenik.

GIZA EZAGUTZAREN

PRINTZIOIEZ

Zientzietako Errore eta Zailtasunen

Kausa Nagusiak ikertzen dituen, eta

halaber Eskeptizismoaren, Ateismoaren

eta Erlijioezaren

oinarriak

I PARTEA

1. Giza ezagugaiak aztertzen jartzen den nornahirentzat bistakoa da honako hauek direna, hots, edo zentzuetan errealki inprimaturiko ideiak, edo adimenduaren pasio edo eragiketen bidez hautematen diren beste batzuk⁴, edo, azkenez, oroimen eta irudimenaren laguntzaz eraturiko ideiak, dela konposatuz, dela banatuz edo arestian esandako erez hautemandakoak irudikatuz soilki. Ikusmenaren bidez argiaren eta koloreen ideiak ditut, euren gradu eta aldakuntzekin. Ukiaren bidez hautematen ditut, adibidez, gogorra eta biguna, hotza eta beroa, higidura eta erresistentzia, eta orobat gora eta beheko diferentziak, hala kantitateari nola graduari dagokionez. Usaimenak usainak dakarzkiz, dastamenak zaporeak; eta entzumenak hotsak dakarzkiz adimendura euren tonu eta konposizio barietate guztiarekin. Eta eurotariko batzuk batera doazela bata bestearekin ohartzean, izen beraz izendatzen dira, eta gauza bakartzat hartzen. Horrela, esate baterako, ohartu izan garenez kolore, zapore, usain, figura eta kontsistentzia jakin bat elkarrekin doazela, "sagarra" deitzen diogun gauza diferentetzat hartzen dira. Beste ideiei multzo batzuek, harria, arbola, liburua eta sentigarriak diren beste zenbait gauza egiten dituzte; aipaturiko gauzok, atseginak ala desatseginak diren kontutan hartuta, onerizkoa, gorrotoa, poza, tristura eta beste zenbait grina kitzikatzen dituzte.

2. Baina amaigabeko ideia edo ezagugai barietate honez gain, bada baita ere zerbait eurok ezagutu edo hautematen dituen eta hainbat eragiketa ezberdin gauzatzen dituen eurenkiko, hala nola, nahi ukan, iruditu, oroitu. Izaki hautemaile eginkor honixe deitzen diot "adimendua, izpiritua, arima edo ni neu". Hitz hauez ez dut neure ideia batik ere denotatzen, eurentatik erabat ezberdina den zerbait baizik, non haiek existitzen diren, edo, berdina dena, zeinen bidez hautematen diren; zeren ideiarekin existentzia hautemana izatean baitatza.

3. Mundu guztiak onartuko du ez dela ez gure grinarik ez gure irudimenak eraturiko ideiarik existitzen adimendua gabe. Eta honek bezain bistakoa dirudi zentzuetan inprimaturiko zentzazio edo ideia ezberdinak, dena delakoa dela duten nahasteko edo konbinatzeko modua (hau da, nolanahiko objektuek osotuak izanda ere) ezin direla existitu hautematen dituen adimenduan izan ezean. Uste dut "existitu" terminoak gauza sentigarriari aplikaturik duen esanahia kontutan hartzen duen edonork lortu ahal izango duela honen intuiziozko ezagutza. Idazten ari naizen mahaia existitzen dela diot, hots, ikusi eta ukitu egiten dut; eta langelatik at banengo, existitzen dela esango nuke, han banengo hauteman egingo nukeela adierazi nahirik, edo orain ere beste izpirituren batek hautematen duela. Usaina zegoen, hots, usaindu egiten zen; zarata bat zegoen, hots, entzun egiten zen; kolore bat edo figura bat, eta hauteman egiten zen ikusmenaz edo ukimenaz. Hauxe da ulertu nezakeen dena honelako edo antzeko adierazpenetatik. Zeren, hautemanak izatearekiko erlaziorik gabeko gauza ez-pentsatzaileen existentzia absolutuari dagokionez, erabat ulertezin dirudiela esan behar baita. Euron "esse, percipi" da, eta ezin dute existentziarik ukan hautematen dituzten adimendu edo zer pentsatzaileetatik at.

4. Gizakien artean harrigarriro nagusi den ideia dugu etxeek, mendiek, ibaiek, eta hitz batean gauza sentigarri guztiek existentzia natural edo erreala dutela, gure ezagumenak hautemanak izateatik apartekoa. Baina den handiena izan arren ere munduan printzipio hau onartzeko ageri datekeen ziurtasun eta baieztapena, auzitan jarri nahi duen edonork aurki dezake, oker ez banago, kontraesan nabaria daukala bere baitan. Zeren zer dira, bada, aipatu objektuak zentzuez hautematen ditugun gauzak besterik?; eta zer hautematen dugu, hauteman, geure ideia eta zentzazioez gain?; eta ez al da erabat kontraesankorra hauetako baten bat edo euron konbinapenen bat hautemana izan gabe existitu ahal izatea?

5. Baieztapen hau zehatz aztertzen badugu, agian "ideia abstraktuen" doktrinaren mende dagoela aurkituko dugu. Izan ere, izan al daiteke abstrakzio-ahalegin zorrotzagorik gauza sentigarrien existentzia hautemanak izatetik bereizten egina baino, hautemanak izan gabe ere existitzen direla bururatzera? Argia eta koloreak, beroa eta hotza, hedadura eta figurak, hitz batean, ikusi eta sentitzen ditugun gauzak, zer dira, izan, zentzazioak, ideiak, nozioak, zentzuetako inpresioak besterik? Eta posible al da, eurentariko baten bat, pentsamenduan bada ere, hautematetik bereizterik? Nik neuk behintzat gauza bat gauza berberetik bereizten ez nuke zailago izango. Nik bana ditzaket neure pentsamenduetan edo elkarretarik banaturik burura, zentzuez sekula banaturik hautematen ez ditudan gauzak. Horrela, iruditzen dut giza gorputzaren enborra gorputzatalik gabe edo bururatzten dut larrosa-usaina larrosaz pentsatu gabe. Honaino ezin uka nezake abstraitzeko gauza naizenik, doitasunez hitzeginda honi "abstrakzio" izena ematerik balego, zenbait objektu banan bururatzera soilik hedatzen baita, bereiz existitzea edo norbaitek hautematea posible balitz bezala. Baina nire bururatzeko edo iruditzeke ahalmena ez doa existitzeko edo hautemateko posibilitateaz harago. Nola ezina den nik ezer ikusterik edo sentitzerik gauza horren benetako zentzaziorik ukan gabe, halaxe dut ezinezko sentigarri den ezer buruan asmatzerik beronen zentzazio edo pertzepzioetik diferentea denik.

6. Gauza batzuk hain argi eta hurbileko ditu adimenduak, non eurok ikusteko, begiak irekitzea besterik ez duen gizakiak. Mota horretakoa dela uste dut hain inportantea den honako hau ere, hots, zeruko koru guztiak eta lurlean dagoen orok, hitz batean, munduaren egitura osotzen duten gorputz ahaltsu guzti horiek, adimendua gabe inolako beregainekotasunik ez daukatela; euron izatea hautemanak edo ezagutuak izatea dela; ondorioz, nik benetan hautematen ez ditudan heinean edo nire adimenduan edo beste izpiritu kreatu batenean existitzen ez diren heinean, edo inola ere ezin dute existentziarik eduki edo bestela izpiritu eternalen batengan subsistitu behar dute; zeharo ulertezin baita, eta abstrakzioaren absurdu erabatekoa inplikatzten duena, izpirituren batetik bereizko existentzia atribuitzea haletako baten bati. Honetaz konbentzitzeko irakurleak aski du gogoeta egin eta bere pentsamenduan gauza sentigarri baten izatea gauza hori hautemana izatetik bereiztea.

7. Esandakoari zera darraikio, "izpiritua", edo hautematen duena, beste substantziarik ez dagoela. Baina puntu honen frogatze osobeteagorako, kontutan izan behar da nolakotasun sentigarriak kolorea, figura, higadura, usaina, zaporea, ukipena eta antzeko beste batzuk direla, hau da, zentzuek hautemaniko ideiak. Orduan, ideiari dagokionez, zer ez-hautemaile batean existitzea kontraesan nabaria da; zeren ideia bat edukitzea eta bera hautematea gauza bera dira; beraz, kolorea, figura eta beste nolakatosunak existitzen den zerak hauteman behar ditu; eta hemendik argi dago ezin dela izan substantzia ez-pentsatzaile edo ideion "substratumik".

8. Baina zera esango duzu, adimendua gabe ideiarik existitzen ez bada ere, izan daitezkeela, agian, euron antzeko gauzak, euron kopia edo irudi direnak, adimendutik at substantzia ez-pentsatzaile batean existitzen direnak. Nik horri erantzungo diot: ideia bat beste ideiaren baten antzeko besterik ezin izan daiteke; kolore edo figura bat beste kolore edo figura baten antzeko besterik ezin izan daiteke. Geure baitako pentsamenduetara, apurtxo batean bada ere, begiratzen badugu, behingoan ikusiko dugu ezin bururatu dugula geure ideien artekoa beste antzekotasunik. Eta berriro ere galdetzen dut ea supostu original horiek edo kanpoko gauzok, zeintzuen irudi edo errepresentazio diren gure ideiak, hautemangarriak direnentz. Hautemangarriak badira, ideiak dira eta irabazi dugu auzia; baina ezetz erantzunez gero, nornahi desafiatzen dut esan dezan ea zentzurik duen kolore bat gauza ikusezin baten antzekoa dela

baieztatzeak; gogorra edo biguna ukiezin den zerbaiten antzekoa dela; eta horrela gainerakoei buruz ere.

9. Badira batzuk bereizpena egiten dutenak nolakotasun "primario eta sekundarioen" artean: lehen sailekoak, euren eritzirako, hedadura, figura, higidura, gelditasuna, sendartasuna edo iragazkaitasuna eta zenbatasuna dira; bigarren sailekoak, gainerako nolakotasun sentigarriak dira, hala nola koloreak, hotsak, zapoak e.a. Aitortzen dute, aitortu, horietaz ditugun ideiak ez direla adimendutik at edo hauteman gabe existitzen den ezeren irudi, baina nolakotasun primarioekiko gure ideiak "materia" deitzen duten substantzia ez-pentsatzaile batean, adimendutik aparte existitzen diren gauzen ereduak edo irudiak direla onartuz. Materia, beraz, substantzia inerte eta sentigabetzat hartu behar dugu, hedadura, figura eta higidura eduki dauzkana. Baina bistakoa da, dagoeneko adierazia dugunetik, hedadura, figura eta higidura adimenduan bakarrik existitzen diren nozioak direla eta, ondorioz, ez euren arketipoek dutela substantzia ez-hautemailean existitzerik. Hemendik argi geratzen da "materia" edo "gorputzun substantzia" deitzen denaren nozioak berak daukala bere baitan kontraesana.

10. Figura, higidura eta gainerako nolakotasun primario edo jatorrizkoak adimendua gabe, substantzia ez-pentsatzaileetan, existitzen direla baieztatzen dutenek, aldi berean zera aitortzen dute, koloreak, hotsak, beroa, hotza eta gainerako nolakotasun sekundarioak ez direla existitzen, adimenduan soilik existitzen omen direlarik eta materiaren partikula ñimiñoen tamainu, ehundura eta higiduraren arabera eta eraginez sortaraziak omen direlarik. Dударik gabeko eta salbuespenik gabe demostratu dezaketen egiaztat dute hau. Orain bada, egia izanez gero jatorrizko nolakotasunok bananezinki batuta daudela beste nolakotasun sentigarriekin eta pentsamenduan ere ez direla hauetatik abstragarriak, orduan hemendik bete-betean dator adimenduan bakar-bakarrik existitzen direla. Baina bakoitzak hausnarketan jarri eta aproba egin dezan nahi dut, ea pentsamenduko abstrakzioz gauza den gorputz baten hedadura eta higidura beste nolakotasun sentigarriak gabe bururatzeko. Nik neuk bederen, argi eta garbi ikusten dut daukadan ahalmenetik gora dagoela gorputz hedatu eta higitu baten ideia eratzea, kolorearen bat eta beste nolakotasun sentigarri batzuk ere, adimenduan bakarrik existitzen direla onartzen diren horietakoak, ideia horri nahitaez eman beharrean aurkitzen bainaiz. Labur esanda, hedadura, figura eta higidura beste nolakotasun orotatik abstraiturik bururazekin dira. Beraz, beste nolakotasun sentigarriak diren tokian izan behar dute hauek ere, hots, adimenduan eta ez beste inon.

11. Gainera, "handia" eta "txikia" "bizkorra" eta "geldoa" adimendua gabe ez dira existitzen, erabat erlatiboak direlarik, eta, beraz, zentzuen hauteman-puntua edo egitura bariatu ahala, eurak ere aldatuz. Adimendua gabe existitzen den hedadura, beraz, ez da ez handia ez txikia; higidura ere ez da ez bizkorra ez geldoa, hau da, ez dira ezertxo ere. Baina esango duzu badela hedadura orokorrean eta baita higidura orokorrean ere: hortxe ikusten da adimendua gabe existentzia duten substantzia hedagarri eta higigarrietan sinestea zenbateraino dagoen "ideia abstraktuen" doktrinaren eraginpean. Eta hemen ezin zera azpimarratu barik utzi, zein antz handia duen, filosofo modernoek, beren printzipioek eraginda adierazi duten materia edo gorputzun substantziaren deskripzio lainotsu eta zehazgabeak eta Aristotele eta beronen jarraitzaileengan aurki daitekeen "materia prima" delakoaren antigoaleko eta hain irrigari utzitako nozioak. Hedaturarik gabe bururazekina da sendartasuna; eta agerian jarri izan denez gero hedaturarik ez dela existitzen substantzia ez-pentsatzaileetan, horrexek berorrek izan behar egia sendartasunari dagokionez ere.

12. Zenbatasuna adimenduaren sorkari hutsa dela, beste nolakotasunak hura gabe existitzen direla onartuta ere, begien bistakoa izango da zera kontutan hartzen duen

edozeinen ikusirako: gauza berak zenbaki-izen ezberdinak hartzen dituela, adimenduak aspektu diferenteetatik ikusi ahala. Horrela, hedadura bera bat da, edo hiru edo hogeita hamasei, segun eta yardarekiko, oinarekiko ala hatzbetaerekiko erlazioan ikusten duen adimenduak. Hain agerian da erlatiboa zenbatasuna, eta gizakien enteleguaren hain menpeko, non bitxi gertatzen den pentsatzea nola eman diezaiokeen inork existentzia absolutua adimendutik at. Liburu bat, orrialde bat, lerro bat esaten dugu; denak dira unitateak, batzuek besteetako hainbat edukiarren. Eta exenplu bakoitzean argi dago unitatea adimenduak nahierara elkarturiko ideien konbinapen bati dagokiola.

13. Badakit batzuek uste dutena unitatea, adimenduan beste ideia guztiei lagun egiten dien ideia bakun edo ez-konposatu bat dela. "Unitate" hitzari erantzuten dion horrelako ideiarik daukadanik neuk ez dut aurkitzen; eta baneuka, uste dut aurkitu egin beharko nukeela; izan ere, bera izango luke etxekoen nire enteleguak, beste ideia guztiei lagun egiten omen dienez gero eta zentzazio eta gogoeta era guztien bidez hautematen. Hitz batean, "ideia abstraktu" bat dela.

14. Zera gehituko dut orandik, filosofo moderno batzuek frogatzen duten bezala zenbait nolakotasun sentigarrik ez daukala existentziarik materian, gauza bera froga daitekeela beste nolakotasun guzti-guztiei buruz ere. Horrela, adibidez, esaten da beroa eta hotza adimenduko afekzioak direla soilik eta inola ere ez direla eurok eragiten dituzten gorpuztun substantzietan existitzen diren gauza errealek eredu, zeren esku batek hotz aurkitzen duen gauza berari beste batek bero erizten dio. Orain bada, zergatik ez dugu argudiatzen era berean figura eta hedadura ez direla materian existitzen diren nolakotasunen eredu edo antzeko, begi berari ikuspuntu ezberdinetatik edo ehundura diferenteko begiei ikuspuntu beretik ezberdinak begitantzen zaizkienez gero, ezin direlarik izan, beraz, adimendua gabe finkatu eta mugaturiko ezeren irudi? Gainera frogaturik dago gozotasuna ez dagoela, egon, zaporedun gauzan, zeren, gauzak berak aldaketarik gabe iraun arren, gozotasuna mingoztasun bihurtzen baita, sukarraren edo dastamenaren bestelako anomalien kasuan gertatzen den moduan. Ez al da arrazoizko mugimendua ez dela existitzen esatea, ideien segida adimenduan astiroagotzen bada, mugimendua geldoago agertzen dela onartzen denez gero, kanpoko ezein objektutan inolako aldaketarik gertatu gabe?

15. Labur esanda, koloreak eta zaporeak adimenduan bakarrik existitzen direla garbi frogatzen bide duten argudioak onartzen dituen edonork aurkituko du, indar berdinez erabil daitezkeela hedadura, figura eta higidurari buruz gauza bera frogatzeko. Nahiz eta aitortu beharra dagoen argudiatzeko modu honek ez duela haibestean frogatzen kanpoko objektuetan ez dagoela hedadura edo kolorerik, nola zentzuen bidez ez dugula ezagutzen zein den objektuaren benetako hedadura edo kolorea. Baina aurreko argudioek argi jartzen dute ezinezko dela inolako kolore edo hedadurarik edo bestelako nolakotasun sentigarririk existitzea adimendua gabe subjektu ez-pentsatzaileetan, edo kanpoko objektua bezalako gauzarik egiatan existitzea.

16. Baina azter dezagun pixkat onarturiko eritzia. Hedadura materiaren modu edo akzidente bat dela esan ohi da, eta materia, hari eusten dion "substratuma" dela. Orain azal liezadaten nahi nuke zer den hedadurari "eusten" dion materia. Esango dute ez daukatela materiaren ideiarik eta, beraz, ezin dutela zer den azaldu. Honi zera erantzuten diot, ideia positiborik eduki ez arren, halarik ere, ulertu egiten badute moduren batean, materiaren ideia erlatiboren bat bederen ukan behar dutela nahitaez; zer den jakin ez arren, suposatzen da behintzat ezagutzen dutela akzidenteeekin dituen erlazioak, baita berauoi eusten diela esatean zer esan gura den. Argi dago hemen "eutsi" ezin daitekeela ohizko zentzuan edo literalean har, zutabeek eraikinari eusten diotela esaten dugunean legez; zein zentzutan ulertu behar dugu bada?

17. Filosoforik zehatzenek "substantzia materialtzat" zer ulertzen duten ikertzen badugu, zera aurkituko dugu, aitortzen dutela ez diela termino horiei orokorrean izakiaren ideiarena beste esangurarik ematen, akzidenteen euskarri izatearen nozioarekin batera. Izakiaren ideia orokorrari denetarik abstraktu eta ulerkaizen deritzot, eta akzidenteen euskarri izateari dagokionez, ezin da ulertu, ikusi berri dugunez, terminoon esangura arruntetan; beste esanguraren batean hartu beharra dago, beraz, baina ez dute azaltzen zeinetan. Eta horrela, "substantzia materiala" terminoen zati edo alderdi bien esangura aztertzean, konbentziturik geratzen naiz ez dagoela terminooi datzekien esangura zehatzik. Baina zertarako jarraitu figuraren, hedaduraren eta beste nolakotasun sentigarrien "substratum" material edo euskarriari buruzko eztabaidari ekiten? Ez al du suposatzen honek badutela adimendua gabeko existentzia? Eta ez al da hau kontraesan garbia eta erabat bururaezina?

18. Baina, posible balitz ere adimendua gabe existitzea substantzia sendar, figura eta higiduradunak, gorputzei buruz ditugun ideiei egokituko litzaizkiekeenak, nola jakin genezake hau? zentzumenaren edo arrazoimenaren bidez izan beharko luke. Gure zentzuei dagokienez, geure zentzazioak, ideiak edo zentzumenaz zuzenean hautematen diren gauzak, nahi den izena emanda, soil-soilik ezagutarazten dizkigute; baina ez digute esaten adimendutik ateko gauzak, edo hautematen direnen antzeko diren gauza hautemangabeak, existitzen direnik. Materialistek berek ere aitortzen dute hau. Horregatik kanpoko gauzen ezagutzarik badugu, arrazoimenaren bidez bakarrik izan daiteke, zentzuen bidez zuzenean hautematen denetik abiatuak beraien existentzia inferituz. Baina zein arrazoik induzi gaitzake, hautematen dugunetik abiatuz, adimendutik ateko gorputzak existitzen direla sinestera, materiaren defendatzaileek berek ere pretenditzen ez dutenean haien eta gure ideien artean nahitaezko loturarik egotarik? Esan behar dut denek onartzen dutela (eta ametsetan, eldarnioetan eta antzeko kasuetan pasatzen denak auzia eztabaidatik at jartzen du) posible dela, ideien antza duten kanpoko gorputzak existituko ez balira ere, guk izatea oraintxe ditugun ideia guztien eragina. Hemendik bistakoa da ez dela beharrezko kanpoko gorputzak suposatzea gure ideiak sor daitezen, onartu ere onartzen denez gero sortu egiten direla batzuetan, eta agian beti ere sor litezkeela, oraintxe ikusten ditugun ordena berean, haien laguntzarik gabe.

19. Baina, ditugun zentzazio guztiak ukateko gauza izango ginatekeen arren, agian haiek barik ere, pentsa liteke, hala ere, ideiak nola sortzen diren bururatu eta azaltzen bestela baino errazago dela euron antzeko diren kanpoko gorputzak suposatuz; eta horrela daitekeena bederen izango litzateke gure adimenduetan ideiak sortaraziko lituzkeen gorputzen existentzia. Baina horixe ere ezin esan daiteke, zeren materialistei emanda ere kanpoko gorputzak existitzen direla, eurek ere ez dute, aitortzen dutenez, gure ideiak sortzeko moduaren ezagutza zuzenagorik; zeren, aitortzen baitute ez direla gauza ulertzeko gorputzak izpirituari nola eragin diezaiokeen edo nola gerta litekeen hark adimenduan ideia bat inprimatzea. Horregatik, begien bistakoa da gure adimenduan ideiak edo zentzazioak sortzea ezin dela arrazoi izan materia edo gorputzun substantziak guk onartzeko, admititua baita, hala supostu honetan nola berau barik, materia ulertezin gertatzen dela berdin. Horregatik, posible balitz ere gorputzak adimendua gabe existitzea, hori horrela gertatzen dela defendatzea oso eritzi prekarioa litzateke, zeren Jainkoak erabat alferreko diren eta ezelako asmori erantzuten ez dioten konta ezin ahala izaki kreatu dituela suposatzea bailitzateke.

20. Laburbilduta, kanpoko gorputzak existituko balira, inoiz ezingo ginateke hori jakitera iritsi; eta existituko ez balira, oraingoxe arrazoi berberak izango genituzke existitzen direla uste izateko. Suposa ezazue adimen bat -eta hau ezin lezake inork ukakanpoko gorputzen laguntzarik gabe zeuek dituzuen ideia eta zentzazio-mordo

berberaren eragina lukeena bere adimenduan inprimaturik ordena berean eta bizitasun beraz. Nik galdetzen dut ea adimen horrek, bere adimenduan ideiak sortu eta irudikatzen dituzten gorpuztun substantzien existentzian sinesteko, zeuek horixe berori sinesteko dituzuen arrazoi berberak ez ote lituzkeen izango. Honi buruz ezin da dudarik egin. Kontsidero bakar hau aski da edozein pertsona zentzudunek, gorputzak adimendua gabe existitzen direla frogatzeko ukan uste duen edozein argudioren indarra zalantzatan jartzeko.

21. Materiaren existentziaren aurka lehen esandakoari beste argudiorik gehitu beharrik balego, doktrina honetatik sortu diren errore eta zailtasunen batzuk (erlijio gabetasunak ez izendatzearen) aipatuko nituzke. Hainbat eta hainbat kalapita eta eztabaida sortarazi ditu filosofian eta ez gutxi, askoz garrantzitsuagoak, erlijioari dagokionez. Baina ez naiz ariko hemen eurretaz zehatz-mehatz, zeren uste baitut "a posterioriko" argumentuak ez direla beharrezko, "a priori" nahikoa den hainbatean, oker ez banago, frogaturik geratu dena berresteko, eta gainera geroago aurkituko dudalako honetaz zerbait esateko egokiera.

22. Beldur naiz gai hau aztertzean premiarik gabe luzeegi ari izan naizela pentsarazteko motiboak eman ez ote ditudan. Luzatu ere, zertarako luzatu, gogoetarik txikiena egiteko gauza den edonori lerro bitan nabariki bai nabariki demostra dakiokiena. Norbere pentsamenduak kontutan hartu eta ikusi besterik ez da egin behar ea posibleztat burura daitekeen hots bat, figura bat, higidura bat, kolore bat... adimendua gabe edo inork hauteman gabe existitzea. Aproba erraz hau nahikoa izan daiteke lortu nahi dena kontraesan garbia dela ikusarazteko. Hain garbia non prest nagoen honako hauxe egiteko ere: baten batek bururatu ahal izanez gero hedadura eta higiduradun substantzia bat, edo, orokorrean, edozein ideia edo ideiaren antzeko den zerbait existitzen dela hura hautematen duen adimenduan izan gabe, orduantxe bertan amore emango dut auzian; eta berak defendatzen duen kanpoko gorputz guzti horien "bilbapenari" dagokionez, bermatuko dut beraren existentzia, nahiz eta eman ezin horretan sinesteko duten arrazoi bat bera ere, ezta, existitzen bada, ukan lezakeen emendiorik esleitu ere. Hau da, euren eritzia egia izateko posibilitate hutsa, egia den argudiotzat hartuko dut.

23. Baina esango didazue ez dagoela, egon, ezer errazagorik arbolak adibidez parke batean edo liburuak liburutegi batean eurok hautematen inor ere egon gabe existitzen iruditzea baino. Hori egin zenezakeela erantzungo dizut; ez dago horretarako zailtasunik. Baina galdetzen dizut: zer da hau, "liburuak" eta "arbolak" deitzen diezuen ideiak adimenduan eratzea besterik, aldi berean norbaitek eurok hauteman litzakeen ideia eratu gabe utziz? Baina ez al dituzue zuek zeuek hautematen edo eurretan pentsatzen bitartean? Baina honek, hala ere, ez du zerikusirik gure asmoarekin: adimenduan ideiak iruditzeke edo eratzeke ahalmena daukazuela besterik ez du frogatzen, baina ez du erakusten litekeen zerbait bezala burura dezakezuenik zuen pentsagaiak adimendua gabe existi daitezkeenik. Hau frogatzeko, bururatuak edo pentsatuak izan gabe existitzen bururatu behar dituzue, eta hau kontraesan nabaria da. Ahaleginik handienaz dihardugunean kanpoko gorputzen existentzia bururatzen, geure ideiak kontenplazten bestetan ez gara ari denbora guztian. Baina adimenduak bere buruaren kontzientziarik ez duenez, atzipetu egiten du bere burua, pentsatuak izan gabe eta adimendutik at existitzen diren gorputzak burura ditzakeela eta bururatu ere egiten dituela pentsatzean. Aditasun apur batek edonori agertaraziko dio hemen esaten denaren egia eta nabaritasuna, eta ez da beharko substantzia materialaren aurkako beste frogeki ekiterik.

24. Erraz-erraz jakin daiteke, geure pentsamenduen araketa arinena eginda, "objektu sentigarrien existentzia absolutua berenez edo adimendua gabe" esatean esan nahi dena uler daitekeenentz. Niretzat bistakoa da hitz horiek edo kontraesan nabaria edo ezertxo

ere ez dutela esan nahi. Eta besteak honetaz konbentzitzeko ez dut modu egoki eta argiagorik ezagutzen beren pentsamenduei soseguz kontu ematen para daitezen eskatzea baino. Eta kontu emate honen ondorioz esamoldeon hutsa edo kontraesana agerian jartzen bada, ez da ezer gehiagorik beharko konbentzi daitezen. Horregatik berriz ere hauxe diot, hots, gauza ez-pentsatzaileen existentzia absolutua zentzugabeko hitzak direla edo kontraesana daukatela beren baitan. Hauxe da behin eta berriz diodana eta sarrarazi nahi dudana, eta irakurlearen gogoeta arretatsura zinez gomendatzen dudana.

25. Gure ideia guztiak, zentzazioak edo hautematen ditugun gauzak, dena delakoa dela bereizteko ematen diegun izena, nabariki geldoak dira, hots, ez daukate beren baitan inolako ihardun-ahalmenik. Horregatik ideia edo pentsagai batek ezin du sortarazi edo eragin aldaketarik beste ezerengan. Honen egiaz konbentzitzeko geure ideiez ohartzea besterik ez da behar. Zeren, eurak eta euren zati bakoitza adimenduan bakarrik existitzen badira, hemendik dator eurretan ez dagoela ezer, hautematen dena izan ezik. Baina bere ideiei, hala zentzuetakoei nola gogoetakoei, kontu hartzen jartzen den inork ez du eurretan ahalik edo ihardun-ahalmenik hautemango; eduki ere ez daukate, beraz, holakorik beren baitan. Aditasun apur batez behingoan agertuko zaigu ideiarene izateak berak ere pasibotasuna eta inertetasuna inplikatzeko dituela bere baitan, halako moldez non ezinezkoa den ideiak ezertxo ere egitea, edo hertsitasunez hitzeginda, ezeren kausa izatea; eta ezein izaki ihardunkorren irudi edo eredu ere ezin da izan, 8. ataletik nabari geratu denez. Hortik bete-betean dator hedadura, figura eta higidura ezin direla izan gure zentzazioen kausa. Esatea, beraz, gorpuzñoen egitura, zenbatasun, higidura eta tamainutik sortutako indarren efektuak direla hauek, gezurrezkoa da argi eta garbi.

26. Ideien segida etengabekoa hautematen dugu; batzuk berriz sortzen dira, beste batzuk aldatu edo zeharo ezabatu. Ideiok, beraz, kausaren bat daukate, beraren mende daudelarik eta berak sortu eta aldatzen dituelarik. Kausa hau ezin izan daitekeela inolako nolakotasun, ideia edo ideien konbinapena, argi dago aurreko atalean esandakotik. Substantzia bat izan behar, beraz; baina agertua da dagoeneko ez dela substantzia material edo gorpuztunik existitzen: beraz, ideien kausa substantzia ihardunkor eta gorpuzgabea edo izpiritua izatea besterik ez zaigu gelditzen.

27. Izpiritua, izaki bakun, banaezin eta ihardunkorra da: ideiak hautematen dituenek, "adimendua" deitzen zaio, eta sortarazten dituenek edo beraien baitan beste era bateko eragina duenez, "nahimena" esaten zaio. Hemendik dator ezin eratu izana izpiritu edo arimaren ideiarik; zeren, ideia oro, den motakoa dela, pasiboa eta inerteza izanik (ikus 25. atala), ezin du irudikatu guregan, irudi edo antzekotasunaren bidez, ihardun diharduenik ezer. Aditasun apur bat nahikoa izango da nornahik argi ikusteko erabat ezinezko dela ideien mugimendu eta aldaketen pritzipio haren antzeko den ideiarik ukatea. Hain da bakana "Izpirituaren" edo ihardun dihardunaren izaera, non bera berez hautemanezina den, sortarazten dituen efektuen bidez bakarrik ezagutu ahal delarik. Hemen esandakoa egia ote den dudan jartzen badu baten batek, gogoetan para eta saia dadila ikusten ea ahalmen edo izaki ihardunkor baten ideiarik eratu ahal duen eta ea "nahimena" eta "adimendua" izena daramaten ahalmenen ideiarik daukan, hauek diferenteak direlarik hala bata bestearengandik, nola substantzia edo orokorrean izakiaren ideiatik, zeinek aipatu ahalmenen euskarri edo subjektuaren ideia barnesartzen duen, "izpiritu" edo "arima" izena ukanez. Hauxe uste dute batzuek; baina, nik neuk ikus nezakeeneraino, "nahimen, arima, izpiritu" hitzek ez dituzte ideia ezberdinak izendatzen, ezta, egiatan, ezein ideia ere, ideietatik oso ezberdina den zerbait baizik, eta, ihardunkorra delako, ezein ideiarene antzeko izan edo inolako ezein ideiak irudikatu ezin duena. Nahiz eta aldi berean admititu behar den badaukagula arima eta izpirituaren eta adimenduaren eragiketen ere nolabaiteko nozioa, hala nola, nahi, maite, gorroto ukatearena, hitz horien esangura ezagutu edo ulertzen dugun heinean.⁵

28. Konturatzen naiz nahierara eraiki ditzakedala ideiak neure adimenduan eta eskenategia egoki deritzodan adina bider bariatuta eta aldatu. Nahi izatea aski da eta berehala jaiotzen da nire irudimenean ideia hura edo bestea; eta ahalmen berak ezabatu ere egiten du eta beste ideia bati bide eman. Ideiak egite eta desegite honek eragiten du guk esan ahal izatea zehaztasun osoz adimendua ihardunkorra dela. Guzti hau egia da eta esperientzian oinarritua. Baina eragile ez-pentsatzaileez edo ideiak nahimenetik at eraikitzeaz ari garenean, hitz-joko hutsean ari gara jostari.

29. Baina, dena delakoa dela neure pentsamenduen baitan ukan nezakeen ahalmena, ohartzen naiz zentzuez hautematen ditudan ideiek ez dutela horrelako mendekotasunik nire nahimenarekiko. Egun argi-argitan begiak irekitzen ditudanean, ez dago niregan ikusteko ala ez ikusteko aukera egitea, edo zeintzuk gauza agertuko zaizkidan bistara eta zeintzuk ez erabakitzea; eta antzera entzumenari eta beste zentzuei dagokienez, eurentan inprimatzen diren ideiak ez dira nire nahimenaren sorkariak. Beste nahimen edo izpirituren bat da, beraz, sortzen dituen.

30. Zentzuetako ideiak sendoagoak, biziagoak eta diferenteak dira irudimenekoen aldean; badaukate baita ere halako tinkotasun, ordena eta koherentzia bat eta ez dira sortzen azarean, giza nahimenaren ondorio direnak modura, serieen segida erregularrean baizik, beronen konexio miragarriak nahikoa den bestean ematen duelarik hori egin duen Egilearen jakituria eta onguraren testigantza. Orain, adimenduak gure baitan zentzuetako ideiak ernerazteko dituen arau finko edo ezarritako metodoei "Naturaren Legeak" deritzate: eta hauek esperientziaren bidez ikasten ditugu, beronek irakasten baitigu holako eta halako ideiak holako eta halako besteekin agertzen direla, gauzen ibilbide arruntean.

31. Honek halako aurrikuspen bat edo damaigu, geure jokaerak bizitzaren onerako erregulatzeke gauza egiten gaituena. Eta berau barik galdurik geundeke; ez genuke jakingo nola gauzatu plazerik txikiena ekar edo zentzumeneke minik txikiena ken liezagukeen ezer. Jatekoak elikatu egiten gaituela, loak indarberritu eta suak berotu; azaroan ereitea, uzta-garaian uzta biltzeko biderik egokiena dela, eta, orokorrean, holako eta halako helburuak erdiesteko holako eta halako bitartekoak behar direla, hau guztiau dakigu, ez gure ideien arteko beharrezko konexioren bat aurkituz, Naturaren Lege finkoez ohartuz baizik, eurok barik ezbaian eta nahasirik aurkituko ginatekeelarik, eta gizon heldu batek ez lukeelarik haur jaio berri batek baino hobeto jakingo nola moldatu bizimoduko kontuetan.

32. Eta, hala ere, bere nahiaz Naturaren Legeak ezarri dituen Izpiritu gobernatzaile horren ontasuna eta jakituria hain nabarmenkiro erakusten duen lan koherente eta uniforme hau, hain urruti dago gure pausuak beragana gidatzetik, non biderik bidarte- edo bidaltzen gaituen bigarren kausen bila. Zeren, zentzuetako ideia batzuk hautematen ditugunean, ondoren beste ideia batzuk dituztelarik beti, eta hau ez dela guk egina dakigunean, besterik gabe ideiei eurei egozten diegu ahalmena eta eragiletasuna eta bata bestearen kausa egiten ditugu, ezer ere ez delarik hau baino absurduago eta ulertezinagorik. Horrela, adibidez, konturaturik guk ikusmenaren bidez figura biribil eta argitsu bat hautematen dugunean, aldi berean ukimenaz "berotasuna" deritzan ideia edo zentzazioa hautematen dugula, guk hemendik, eguzkia dela berotasunaren kausa ondorioztatzen dugu. Era berean, gorputz biren mugimendua eta txokea hots eta guzti hauteman ondoren, azken hau lehenengoaren efektua dela uste izatera aiherriz gara.

33. Naturaren Egileak zentzuetan inprimaturiko ideiei "gauza errealak" deritzate; eta irudimenean eragindakoei, hain erregular, bizi eta iraunkorrak ez direnez, "ideiak" edo "gauzen irudiak" deitzen zaie, haiek kopiatzen edo irudikatzen baitituzte. Baina gure zentzazioak, bizi eta bereizienak izanda ere, "ideiak" dira, hala ere; hau da, adimenduan existitzen dira edo honek hautemanak dira, beronek eratzen dituen ideiak bezalaxe.

Onartua da zentzumeneko ideiek adimenduak sorturikoek baino errealitate handiagoa daukatela beren baitan, hots, haiek baino sendoago, ordenatuago eta koherenteagoak direla. Hautematen dituen izpiritu edo substantzia pentsatzailearen mende ere gutxiago daude, beste izpiritu ahaltsuago baten nahimenak eraikiak direnez: baina, hala eta guztiz ere, "ideiak" dira, eta inolako "ideiarik", ahula edo sendoa izan, ezin da ezelan ere existitu hautematen duen adimenduan izan ezik.

34. Aurrera egin baino lehen, apur batean honaino formulaturiko printzipioei jar dakizkien objekzioei erantzuteari ekin beharra dago. Hau egitean, ulermen azkarrekoei azalpen luzeegietan nabilela baderitze, uste dut barkatuko zaidala, denek ez baitituzte atzematen berdin holako gauzak; eta nik mundu guztiak ulertzea nahi dut. Lehenengo eta behin zera objektatuko da, aurreko printzipioon arabera, Naturan erreala eta substantziala den guztia ezabatu egiten dela mundutik, eta euren lekuan ideien bilbapen kimeriko bat jartzen dela. Existitzen diren gauza guztiak, adimenduan bakarrik existitzen dira, hau da, nozional hutsak dira. Zer jazotzen zaie, orduan, eguzkiari, ilargiari eta izarrei? Zer pentsatu behar dugu etxe, ibai, mendi, zuhaitz, harriei buruz; are, geure gorputzei buruz? zentzuen kimera eta ilusioak besterik ez ote dira, bada? Guzti honi, eta objektatu daitekeen holako beste edozeri, zera erantzuten diot, jarritako printzipioen arabera, ez garela Naturako ezerez ere gabeturik geratzen. Ikusten, sentitzen, entzuten edo bururatzen edo nolabait ulertzen dugun guztiak beti bezain seguru dirau eta beti bezain erreala da. "Rerum natura" bat dago, eta errealitateen eta kimeren arteko bereizpenak bere indar guztia mantentzen du. Hau nabari geratzen da 29, 30 eta 33 ataletan esandakotik, non azaldu dugun "gauza errealtzat" zer ulertu behar dugun, "kimeren" eta geuk eraturiko ideien aurrez aurre; baina batzuk eta besteak gogoan existitzen dira, eta zentzu honetan berdin dira "ideiak".

35. Ni ez naiz ari, dela zentzumenaz dela gogoetaz atzeman dezakegun ezertxoren ere aurka argudiatzen. Neure begiez ikusi eta neure eskuez ukitzen ditudan gauzak existitu egiten direla, errealki existitu ere, ez dut ezbairik txikiena ere egiten. Existentzia ukatzen diogun gauza bakarra, filosofoek materia edo gorpuztun substantzia deitzen dutena da. Eta hau eginez, ez zaio inolako kalterik egiten gainerako gizateriari, ez baitu, ausartuko nintzateke esatera, horren faltarik nabarituko. Ateoek, jakina, izen huts baten atxakia beharko dute beren erlijioabetasunari eusteko; eta baliteke filosofoek konturatzea huskerietan eta eztabaidetan ibiltzeko euskarri on bat galdu dutela.

36. Baten batek uste badu honek gauzei existentzia edo errealitatea kentzen diela, oso urrun dago, pentsa ahal izan ditudan termino errazenetan jarri dudana ulertzetik. Hona hemen esan denaren laburbilpen bat: badira substantzia izpiritualak, giza adimenduak edo arimak, nahierara ideiak gura edo beren baitan eragiten dituztenak; baina ideia hauek lanbrotsu, ahul eta ezegonkorak dira, zentzuez hautematen direnen aldean; hauek, Naturaren zenbait arau edo legeren arabera zentzuetan inprimatuak izaki, giza izpirituak baino gogo ahaltsuago eta jakintsuagoa den adimendu baten efektu direla agertarazten dute. Azkenok aurrenekoek baino errealitate handiagoa daukatela esaten da beren baitan; eta honen bidez esan nahi da eragileagoak, ordenatuagoak eta bereziagoak direla eta ez direla hautematen dituen adimenduaren fikzioak. Eta zentzu honetan, egunez ikusten dudana eguzkia, eguzki erreala da, eta gauez iruditzen dudana haren irudi. Hemen "errealitateari" emandako esanguran, begien bistakoa da landare, izar, mineral oro eta, orokorrean, munduko sistemaren zati bakoitza, hala gure printzipioen arabera nola beste edozeinen arabera, "izaki errelak" direla berdinki. Inork nik ematen diodan esanguratik diferenterik ezartzen badio "errealitate" hitzari, bere pentsamenduen baitan begiratzeko eta berak ebazteko eskatzen diot.

37. Argudiatuko da hau bederen egia dela, hots, gorpuztun substantzia guztiak suntsiarazten ditugula. Honi buruz nire erantzuna da, "substantzia" hitza esangura

arruntean hartzen badugu, hots, nolakotasun sentigarrien, hala nola hedadura, sendartasuna, pisua eta horrelakoen konbinaziotzat, ezin gintzaketela inola ere hauek kentzeaz akusa. Baina filosofi esanguran hartzen bada, adimendutik ateko akzidente edo nolakotasunen eustailutzat, orduan aitortzen dut suntsiarazi egiten dugula benetan, inoiz existentziarik, ezta irudimenean bertan ere, izan ez duen zerbait suntsiarazi egiten dela esan ahal baledi.

38. Baina esango didazue oso latz ematen duela ideiak janedaten ditugula eta ideiaz janzen garela entzuteak. Aitortzen dut horrela dela, "ideia" hitza ez baita erabiltzen hizkera arruntean "gauzak" deritzaten nolakotasun sentigarrien konbinapenak adierazteko; eta egia da hizkuntzaren erabilera familiarretik apartatzen den esamolde orok, latz eta barregarri eman dukeela. Baina honek ez dio ezer kentzen proposizioaren egiari, zeren, beste hitzez, zentzuez zuzenean hautematen ditugun gauzez elikatzen eta janzen garela esatea besterik ez baita. Azaldu da gogortasuna eta biguntasuna, kolorea, zaporea, berotasuna, figura eta horrelako nolakotasunak, zeintzuek konbinaturik, dauden janari eta jantzi-mota ezberdinak osatzen dituzten, hautematen dituenaren adimenduan bakarrik existitzen direla; eta hauxe da "ideiak" deituaz esan nahi den guztia. Hitz hau "gauza" bezain usu erabiliko balitz, ez luke honek baino latzago ez barregarriago emango. Ez nago esakunearen doitasuna eztabaidatzera, beronen egia baizik. Horregatik nirekin bat bazatozte honako honetan, hots, hautemanak izan gabe edo adimendurik gabe existi ezin daitezkeen zentzuen hautemangai zuzenak jan eta edan eta janzen ditugula, behingoan amore eman eta onartuko dut egokiago eta usadioaren arabera ogoa dela ideiak deitu beharrean gauzak deitzea.

39. Galdetuko balitzait zergatik darabildan "ideia" hitza, gauza esan beharrean usadioaren arabera, arrazoi bigatik egiten dudala erantzungo nuke: lehenengo, suposatzen da "gauza" terminoak, "ideiari" kontrajarriz, adimendua gabe existitzen den zerbait adierazten duela eskuarki; bigarren, "gauzak" esangura zabalagoa du "ideiak" baino, ideiaz gain, izpirituak edo gauza pentsatzaileak ere barnesartzen ditu eta. Zentzuen hautemangaiak adimenduan bakarrik existitzen direnez, eta pentsamendurik ez ihardunik gabekoak direnez, "ideia" hitzaz izendatzea aukeratu dut, tasun horiek inplikatzeko dituelako.

40. Baina, guk esanak esan, beharbada baten batek erantzun lezake berak zentzuei fedea ematen segitzen duela, eta ez duela utziko ezein argudio, ezta txalogarriena ere, gailen dakion haiek eskainitako ziurtasunari. Hala biz, bada, euts iezaiozue nahi duzuen tinkoen zentzuetako ebidentziari; geu ere prest gaituzue horixe berori egiteko. Nik ikusi, entzun eta sentitzen dudana existitu egiten dela, hots, nik hauteman egiten dudala, ez dut nire neure existentzia baino dudagotan jartzen. Baina ez dut ikusten nola ekar daitekeen zentzuen lekukotasuna zentzumenak hauteman ezin dezakeen zerbaiten frogatzat. Ez dugu nahi inor eskeptiko bihurtzerik eta zentzuez dudatzen hasterik; aitzitik, pentsa daitekeen indar eta ziurtasun guztia ematen dizkiegu. Ez dago eskeptizismoaren aurkakoagoa den printzipiorik, hementxe jarri ditugunak baino, segidan demostratuko dugunez.

41. Bigarrenik, objektatuko da diferentzia handia dagoela su errealetik, esate baterako, suaren ideiara, norbera sutan iruditzetik benetan erretzera⁶: hau eta horrelakoak erabil daitezke gure baieztapenen aurkako argudiotzat. Guzti honekiko erantzuna esandakoari dario argi eta garbi, eta zera soilik gehituko dut hemen, su erreala suaren ideiatik arrunt diferentea bada, horrelaxe dela ematen duen mina ere minaren ideiatik diferentea; eta hala ere, inork ez duke uste min erreala, hautematen ez duen gauzan edo adimendua gabe existitzen denik, minaren ideia existitzen denik edo daitekeenik baino areago.

42. Objektatuko da hirugarrenik, benetan ikusten ditugula guregandik kanpo eta distantziara dauden gauzak eta, beraz, ez direla existitzen adimenduan, zeren absurdu

bailitzateke hainbat milatako distantziara ikusten diren gauzak geure pentsamenduak bezain hurbil ikustea. Honetan, kontutan izan dezazuen nahi dut, ametsetan gabiltzanean ere sarri gauzak guregandik oso urrun baleude bezala hautematen ditugula, eta, hala eta guztiz, kasu hauetan ere aitortzen dela gauzok geure gogoan bakarrik existitzen direla.

43. Baina puntu hau osokiago argitzeko, agian mereziko du kontutan izateak nola hautematen dugun begiz distantzia eta urrunean dauden gauzak. Honetarako, kanpoko espazioa, gauza batzuk hurrago eta beste batzuk urrunago bertan kokaturik errealki existitzen direlarik ikusteak, esan dugunarekiko, hots, ez direla adimendutik at inon existitzen, kontrakotasuna dakarrela dirudi. Zailtasun hau kontutan hartu izanak ekarri zuen nire "Essay towards a new Theory of Vision" ("Ikuspenaren Teoria Berri bateranzko Saiakera"), duela gutxi argitaratua. Han agertzen da "distantzia" edo kanpotasuna ez dela berenez hautematen ikusmenaz zuzenean, ezta marra eta angeluen bidez atzeman edo ezagutuz, ezta berarekin ezinbesteko konexioa duen beste ezeren bitartez ere, baizik eta ikuspenarekin batera ematen diren zenbait ideia ikusgarri eta zentzuzkiok iradokia dela; hauek, berez, ez daukate inolako antzekotasun edo zerikusirik ez distantziaz ez urrun samar jarritako gauzekin. Baina, esperientziak irakasten digun konexio baten bidez, lortu egiten dute guri euren esanahia adieraztea eta iradokitzea, hizkuntza bateko hitzak irudikatzeko diren ideiak iradokitzen dituzten bezalaxe. Eta halako moldez, non sortzez itsua denak, gero ikusi ahal balu, ezingo lukeen lehen begiradan pentsatu ikusten ari den gauzak bere adimendutik at edo beragandik distantzia batera existitzen direnik. Ikus arestian aipaturiko tratatuaren "41. atala".

44. Ikusmen eta ukimeneko ideiak mota erabat ezberdin eta heterogeneo bi osatzen dituzte. Aurrenekoak besteen seinale eta aurrean dira. Ikusmenari dagozkion hautemangaia ez direla adimendua gabe existitzen eta kanpoko gauzen ideia ere ez direla, tratatu hartan demostratua dago jada. Nahiz eta beronetan zehar suposatutzat jo zen kontrakoa dela egia objektu ukigarriei buruz, ez zen izan errore arrunta beharrezko zela suposatzen zelako han defendatzen zen nozioa zutik uzteko, nire asmotik at zegoelako baizik ikusmenari buruzko argudiaketa batean hura aztertzea eta errefusatzea. Eta horrela, egia hertsitan, ikusmeneko ideiez distantzia eta distantzia horretan kokaturiko gauzak atzematen ditugunean, ez digute iradokitzen edo seinalatzen distantzia horretan errealki existitzen diren gauzak, baizik eta ohartarazi egiten gaituzte soilik ukimeneko ideiak inprimatuko direla gure adimenduetan, holako eta halako denbora-distantzietan eta hori eta bestea eginaren ondorioz. Argi dagoela diot, tratatu honetako aurreko ataletan eta ikuspenari buruzko saiakerako 147. atalean eta beste toki batzuetan esandakotik, ideia ikusgarriak, bere mende egonik gobernatzen gaituen Izpirutuak darabilen hizkuntza direla, zeintzuk ideia ukigarri inprimatuko dizkigun ezagutarazteko, geure gorputzei hau edo beste mugimendua eragiten badiegu. Informazio osobeteagorako, saiakerara bertara jo.

45. Laugarrenik, objektatuko duzu aurreko printzipioei zera darraiela, gauzak unetik unera suntsituak eta berriren berri kreatuak direla. Zentzumenaren hautemangaia, hautemanak direnean bakarrik existitzen dira: horregatik, arbolak jardinean edo aulkiak egongelan, bertan eurak hautemateko nor edo nor dagoen bitartean soilik existitzen dira. Begiak itxi ondoren, gelako altzari guztiak ezereztu egiten dira, eta ireki hutsez berriro kreatzen. Guzti honi erantzuteko, 3., 4. ataletan esandakora igortzen dut irakurlea, eta kontsidera dezan gura dut ea ideia hautemana izatetik ezberdina den ezer daukan haren existentzia errealtzat. Ni neu, egin nezakeen ikerketarik ahalegintsuena egin ondoren, ez naiz gauza aurkitzeko zer besterik esan nahi den hitz horiez. Eta beste behin ere irakurleari bere pentsamenduak arakatzeko eskatzen diot eta ez uzteko hitzei iruzur egiten. Behin bere ideiak edo behin bere arketipoak litekeen zerbait lege adimendua gabe existitzea bururatu ahal badu, orduan bertan behera utziko dut auzia: baina ezin

badu, aitortuko du ez dela arrazoizko berak ere zer den ez dakien gauza baten defentsan ihardutea, eta ni absurdukeriaz akusatu nahi izatea, sakon-sakonean inolako esangurarik ez daukaten proposizioak onartzen ez ditudalako.

46. Ez da txarto izango konturatzea, filosofiako printzipio onartuak eurak ere noraino dauden absurdukeriak omen direnoz beterik. Absurdu garbitzat dago, betazalak ixtean nire inguruko gauza guztiak ezerezturik geratzea; baina, hala ere, ez al da hauxe berau filosofoek eskuarki diotena, erabat onartzen dutenean ikusmenaren gai propio eta zuzeneango bakarrak diren argia eta koloreak, hautemanak diren bitartean soilik existitzen diren zentzazio hutsak direla? Are, erabat sinestezin deritzokete behar bada batzuek, gauzak uneoro kreatuak izateari, baina hala ere nozio berberau irakasten da Eskoletan. Zeren Eskolastikoek, materiaren existentzia onartu arren, eta munduko eraikuntza osoa materiaz egina dela, hala ere uste dute ezin duela bere gain iraun Jainkoaren kontserbaziorik gabe, eta hau etengabeko kreakuntza bezala esplikatzan dute.

47. Areago, hausnarketa pitin batek zera jarriko digu agerian, materia edo gorpuztun substantziaren existentzia onartuz gero ere, gaur egun eskuarki onartzen diren printzipioetatik nahitaez etorriko dela, dena delakoa den gorputz partikularrik ez dela existitzen, hautemana ez den bitartean. Zeren, bistakoa baita 11. ataletik eta hurrengoetatik, filosofo horiek aldezen duten materia, gauza ulertezin bat dela, gure zentzuen hautemangai diren gauzak bata bestetik bereizten dituzten nolakotasunetarikoa batik ere ez daukana. Baina hau sinpleago jartzeko zera azpimarratu beharra dago, materiaren banagarritasun infinitua gaur eskuarki onartua dela, filosofo onetsi eta ospetsuenen artean bederen, zeintzuek, onarturiko printzipioetan oinarriturik, salbuespenik gabe demostratzen duten hau. Hemendik zera dator, hautematen ez den amaigabeko zati-kopurua dagoela materiaren partikula bakoitzean. Gorputz konkretu batek magnitude mugatua duela ematen badu, edo zentzumenari zati-kopuru mugatua erakusten badio, ez da gehiagorik ez daukalako, zati-kopuru amaigabea baitauka bere baitan, baizik eta zeintzuek ez direlako zatiok bereizteko behar bezain zorrotz. Zentzumenak zorrotzasuna hartu ahala, beraz, parte gehiago bereizten ditu objektuan, hau da, objektua handiago agertzen da, eta beronen figura aldatu egiten da, lehen atzemanezinak ziren ertzetako zatiak, orain zentzumen kamutsagoak hautemandakoetatik oso bestelakoak diren lerro eta angeluz mugaturik agertzen dira. Eta azkenean, tamainu eta formako hainbat aldaketa izan ondoren, zentzua infinituki zorrotz bihur dadinean, gorputzak infinitu dirudike. Prozesu guzti honetan zehar, ez dago aldakuntzarik gorputzean, zentzumenean baizik. Gorputz oro bere baitan ikusita, amaigabeki hedatua da, eta, beraz, forma edo figurarik gabekoa. Hemendik datorrelarik, materiaren existentzia erabateko egiazak hartuko bagenu ere, egia dela, baita ere, materialistak berak ere beren printzipioak beharturik aurkitzen direla onartzera, ez zentzumenak hautemandako gorputz partikularrik ez beste antzekorik existitzen dela adimendua gabe. Materia eta bere partikula bakoitza infinitua eta formagabea da beraien ustez, eta adimendua da mundu ikusgarria osotzen duten gorputzen barietate guztia eraikitzen duena, eurotako batik ere ez delarik existitzen hautemana denean izan ezik.

48. Hau kontutan hartzen badugu, 45. atalean proposaturiko objekzioa ezingo litzateke arrazonagarritasunez jarri ditugun printzipioetan oinarritu, ezta inolako objekziorik benetan egin ere gure nozioen aurka. Zeren, zentzuen hautemangaiak, hauteman gabe existitu ezin diren ideiak besterik ez direla defendatzen badugu ere, hemendik ezin dugu ondorioztatu ezin direla existitu geuk hauteman ezean, beste izpirituren bat izan baitaiteke hautematen dituen, guk egin ez arren. Gorputzak adimendua gabe ez direla existitzen esaten den leku batean ere ez nuke nahi inork ulertzerik adimendu konkretu hari edo besteari buruz ari naizela, adimendu guztiei buruz baizik, direnak direla.

Aurreko printzipioei, beraz, ez darraikie gorputzak uneoro ezereztu eta kreatzen direnik, edo gure hautemanaldien arteko bitarteetan existitzen ez direnik.

49. Bostgarrenik, beharbada zera objektatu daiteke, hedadura eta figura adimenduan bakarrik existitzen badira, adimendua hedadura eta figuraduna dela, zeren hedadura (eskolastikaren arabera hitz egiteko) berau existitzen den subjektuaz predikatzen den modu edo atributu bat baita. Nire erantzuna da nolakotasunok adimenduan, beronek hautemanak direnez soilik existitzen direla, hots, ez "modu edo atributu" legez, "ideia" legez soilik baizik; eta hemendik ez da ateratzen arima edo adimendua hedaduraduna denik, hedadura berarengan bakarrik existitzen delako, gorria ez urdina izan beharrik ere ez duen moduan kolore horiek berarengan existitzen direlako eta ez beste inon, mundu guztiak onartzen duen moduan. Filosofoek subjektuaz eta moduaz esaten dutenari dagokionez, erabat oinarrigabea eta ulertezina dirudi. Adibidez proposizio honetan "datoa gogorra, hedatua eta koadratua da" sostengatuko dute "dato" hitzak subjektu edo substantzia bat adierazten duela, berari buruz predikatzen edo beraren baitan existitzen diren gogortasun, kolore eta figuratik diferentea dena. Ez naiz gauza hau ulertzeko: nire eritziz, datoa ez da bere moduak edo akzidenteak deritzaten gauzetatik ezberdina den zerbait. Eta datoa gogorra, hedatua eta koadratua dela esatea, ez da nolakotasun horiek, euroatik diferentea den eta eusten dien subjektu bati atribuitzea, baizik eta "dato" hitzaren esanguraren azalpen bat.

50. Seigarrenik, esango duzue gauza asko eta asko esplikatu direla materia eta higiduraren bidez: berauek kenduz gero, gorpuzñoen filosofia guztia suntsituko dugu eta azpia janda utziko fenomenoak esplikatzeke hainbesteko arrakastaz erabili izan diren printzipio mekaniko horiek. Labur esanda, filosofoek, aintzinakoek edo modernoek, Naturaren ikerketan egindako aurreramenak guztiak, substantzia gorpuztuna edo materiala errealki existitzen den suposamenetik etorri dira. Honi zera erantzuten diot, ez dagoela suposamen honetan oinarriturik esplikatu izan den "fenomeno" bat ere, berau barik ere esplikatu ezin daitekeenik, erraz erakuts daitekeenez kasu partikularretatik indukzioaren bidez. Fenomenoak esplikatzea, egokiera honetan eta hartan zergatik dugun holako eta halako ideien eragina agertzea besterik ez da. Baina materiak nola izan lezakeen eragina izpirituairengan edo beraren baitan ideiak sortu, horixe da filosofo bakar batek ere esplikatu nahi ez duena. Bistakoa da, bada, ezin erabil daitekeela materia natur filosofian. Gainera gauzen esplikazioa eman nahi dutenek, ez dute gorpuztun substantzia erabiliz jokatzeko, baizik eta figura, higidura eta beste nolakotasun batzuen bidez, egiatan ideia hutsak besterik ez direnak eta, beraz, ezereen kausa izan ezin direnak, agertu den bezala. Ikus 25. atala.

51. Zazpigarrenik, honi buruz galdetuko zait ea ez dirudien absurdu kausa naturalak kendu eta dena izpirituen ihardun zuzenari egozte. Printzipioetan oinarriturik, hemendik aurrera utzi egin beharko al diogu suak berotu edo urak hoztu egiten duela esateari, izpirituak berotzen du, e.a., esateko? Honela mintzatuko litzatekeen gizonari barre egitea ez al litzateke ondo merezia? Nire erantzuna baietz da; holako kontuetan "ikasien moduan pentsatu eta jende arruntaren modua hitz egin" behar genuke. Sistema kopernikarraz demostratzeraino konbentziturik daudenak ere, eguzkia atera dela, sartu dela, edo zenitera heldu dela esaten dute; eta hizketa normalean kontrako esakuneak erabiliko balituzte, arras barregarri agertuko lirateke nonbait. Hemen esandakoaz gogoeta pitin bat nahikoa da argi gera dadin hizkuntzaren erabilera normalak ez lukeela aldaketarik edo gorabeherarik izango gure teoriak onartzearen.

52. Bizimoduko gorabehera arruntetan edozein esaldi erabil daiteke, geure ongizaterako behar den eran jokatzeko moduko sentimenduak eta joerak eragiten dituen bitartean, gezurrezkoena bada ere zentzu hertsian edo espekulatiboan hartuta. Areago, hau nahitaezkoa da, zeren hizkuntzaren doitasuna usadioak erregulatutik dagoenez,

hizkuntza onetsitako eritzietara egokitzen baita, egiazkoenak izan ez arren beti. Horregatik, filosofi arrazonamendu hertsienetan eurretan ere, ezin dugu darabilgun hizkuntzaren izaera eta joera ezertan ere aldatu, horrela gogatzailak trabak eta kontraesanak asmatzeko atxakia barik utziz. Baina irakurle zintzo eta asmo onekoak, diskurtsuaren xedean, edukian eta konexioan oinarrituz, atzemango du esangura, erabilerak nahitaezko egin dituen hizkeraren esamolde desegokiak albo batera utziz.

53. Kausa gorpuztunik ez dagoen eritzari dagokionez, orain baino lehenago ere izan dira eskolastikoak aburu honi eutsi diotenak, gaur egun filosofo moderno batzuek egiten duten bezala, zeintzuek, nahiz eta admititu materia existitzen dela, hala ere, uste duten Jainkoa bakarrik dela gauza guztien kausa erazle zuzena. Gizonok ikusi zuten zentzuen hautemangaitan ez dela bat ere bere baitan ahalmen edo eraginik duenik eta hau, beraz, egia zela, existitzen zirela suposatzen zuten zentzuen hautemangai zuzenen antzeko gorpuztuz guztiei buruz. Baina haiek orduan, kontatu ezin ahala izaki kreatu suposatuko litzukete, beraiek onartzen dutenez Naturarengan inolako efekturik eragiteko ezgauza eta, beraz, ezertarako xederik gabe kreatuak liratekeenak, zeren Jainkoak berdin-berdin egin baitzezakeen dena eurak barik; hau diot, posibletzat admitituko bagenu suposamen arras ulertezin eta bitxi hori.

54. Zortzigarrenik, baliteke batzuek uste izatea gizateriaren onarpen unibertsala, materiaren edo kanpoko gauzen existentziaren aldeko argudio garaitezina dela. Mundu guztia dagoela erratuta suposatu behar al da? Eta horrela balitz, zein kausa jarri hain hedatua eta edonon nagusi den erroreari? Erantzuten dut, lehenik, ikerketa zehatzean oinarrituz gero, agian guk uste adina jende ez genukeela aurkituko materiaren edo kanpoko gauzen adimendua gabeko existentzian benetan sinesten duenik. Hertsiki hitzeginda, bere baitan kontraesan bat daraman edo zentzurik ez duen zerbaitetan sinestea ezinezkoa da; eta irakurlearen azterketa inpartzialera uzten dut aurreko esakuneak mota honetakoak direnentz ikustea. Egia da, zentzu batean esan daitekeela gizakiek sinesten dutela materia existitzen dela, hots, uneoro eragiten eta hain aurrean duten euren zentzazioen kausa, izaki sentigabe eta ez-pentsatzailea balitz bezala jokatzeko dutela. Baina hitz hauek adierazitako esanguraren bat argitasunez atzeman dezaketela eta honen eritzi espekulatibo zehatza atera, hauxe da bururatu ezin dudana. Ez da hau gizakiek beren burua engainatzen dutela adierazten duen esanplu bakarra, sinetsi egiten dituztela irudituz sarri entzundako proposizioak, sakonean esangurarik ez badaukate ere.

55. Baina, bigarrenik, nozio bat hain unibertsalki eta iraunkorki onartua dela admititurik ere, hau ez litzateke argudio ahul bat besterik izango kontutan duenarentzat zenbat eta zenbat aurreritzi eta aburu gezurrezkori eusten dion atxekitasun handienaz gogoetarik egiten ez duen gizateriaren zatiak (gehiengoa delarik). Bazen garai bat gizon eskolatuek eurek ere astakeria eta absurdutzat zeuzkatena antipodak eta lurraren higidura; eta kontutan badugu zein proportzio txikia diren gainerako gizakiekiko, ohartuko gara gaur egun ere teoria horiek aurrerakada txikia egin dutela munduan.

56. Baina aurreritzi honi kausa bat esleitzeko eta munduan duen erroztapenaren esplikazio bat emateko eskatzen zaigu. Honi zera erantzuten diot, gizakiek badakitela hainbat ideia hautematen dituztela, euron egile berek izan gabe, beren baitatik eragindakoak ez baitira, ezta beren nahimenaren eragiketen mende daudenak ere: honek zera uste izatera daramatza, ideia edo hautemangai hauek adimendutik ateko existentzia, edo adimendua gabekoa, daukatela, ametsetan ere ikusi ez dutelarik hitzok kontraesana daramatela barruan. Baina filosofoek, argi ikusirik hautemangai zuzenak ez direla adimendua gabe existitzen, zuzendu egin zuten graduren batean jende arruntaren errorea, nahiz eta aldi berean absurdutasun txikiagorik ez daukan beste batean erori ziren, hots, badirela zenbait objektu adimendua gabe existitzen direnak, existitu, eta

hautemanak izatetik diferentea den beren baitako izatea daukatela, gure ideiak, objektu horiek adimenduan inprimaturiko haien irudi edo antzekotasunak besterik ez direlarik. Eta filosofoen doktrina honek aurrekoaren kausa berari dio zor sorrera, hots, beren zentzazioen egile ez zirela konturatu izanari, argi eta garbi baitzekiten kanpotik inprimatuak zirela, eta beraz, inprimatzen diren adimendua ez, beste kausaren bat ukan behar dutela.

57. Baina esplika daiteke zergatik suposatu zuten zentzuetako ideiak euron antzeko gauzek eragindakoak zirela guregan, eta zergatik ez zuten jo izpirituarengana, ihardun dezakeen bakarra izanik. Lehenengo, ez zirelako ohartu kontraesana dela hala gure ideien antzeko gauzak adimendua gabe existitzen direla suposatzea, nola berauei ahalmena edo eragina atribuitzea. Bigarren, adimenduan ideia horiek eragiten dizkigun izpiritu gorena ez zaigulako agertzen begi bistara ideia sentigarrien multzo mugatu partikularren baten bidez, giza eragileei gertatzen zaien moduan, euren garaiera, gorpuzkera, membro eta mugimenduen bidez. Eta hirugarren, haren eragiketak erregularrak eta uniformeak direlako. Mirakulu batez Naturaren abioan etena gertatzen den guztian, gizakiak prest daude goragoko eragileren baten presentzia aitortzeko. Baina gauzak bere ibilbide arruntetik dabiltzanean, ez digute gogoetarik eragiten: duten ordena eta kateamendua, euren Kreatzailearen amaigabeko jakituria, botere eta ontasunaren aldeko argudio diren arren, hain betiko eta etxeko ditugu, non ez baitugu pentsatzen "izpiritu libre" baten efektu zuzenak direnik; batez ere ekintzako iraunkortasunik eza eta aldakortasuna, akatsak izan arren, "libertadearen" seinaleztat hartzen direlako.

58. Hamargarrenik, objektatuko da azaltzen dihardugun teoriak filosofia eta matematiketako zenbait teoria sendorekin kontraesanean daudela. Gaur, adibidez, astronomoek unibertsalki admititzen dute, lurraren higidura arrazonamendu argi eta konbentzigarrienetan oinarritzen den egia dela; baina aurreko printzipioen arabera ezin gerta daiteke horrelakorik. Zeren higidura ideia bat besterik ez bada, hautemana izan ezean ez da existitzen; baina lurraren higidura ez da zentzuez hautematen. Erantzuten dut, doktrina hau zuzen ulertzen bada, konturatuko garela jarritako printzipioekin ados dagoela; zeren lurra higitzen denenzko auzia honexetan soilik baitatza, hots, ea arrazoirik dugun, astronomoen oharpenetatik honako hau ondorioztatzeko, holako eta holako zirkunstantzietan eta lur eta eguzkiarekiko holako eta holako egonpuntuan eta distantziara bageunde, hautemango genukeela lurra planeten zirkuluan higitzen dela eta aspektu guztietan eurentariko bat bezala agertzen dela; eta hau, mesfidatzeko arrazoirik ematen ez diguten Naturaren arau egonkorren bidez, fenomenoetatik jasotakoa da.

59. Ideiak gure adimenduan duten ibilbide eta segidari buruz izan dugun esperientziatik abiaturik, maiz egin genitzake, aierupenak ez ezik, iragarpen segur eta ongi oinarrituak ere, ekintza mordo handi bati dagozkion eta guri eragina egiten diguten ideiei buruz; eta gauza gara eritzi zuzen bat ukateko gaur ditugun zirkunstantzietatik oso ezberdinetan aurkituko bagina agertuko litzaigukeenari buruz. Honexetan datza Naturaren ezagutza, bere emendio eta ziurtasunean iraun lezakeelarik esandakoarekin adostasun osoan. Erraz-erraz aplikatu ahal izango zaio hau izarren magnitudetik edo astronomiako edo naturako beste zeinnahi aurkikundetik etor litekeen mota bereko edozein objekziori.

60. Hamaikagarrenik, galdetuko da zernolako xedetarako den landareen barne-antolakuntza bitxia edo animalien gorputzataletako mekanismo zoragarri hori; hori barik ere ez ote lirateke landareak hazi, loratu eta hostoztatuko, eta animaliak mugituko, hain dotore banatu eta elkarrekin loturiko barne-atal horiek izanda bezalaxe, ez dutenez gero, ideiak izaki, ahalik ez eraginik haietan, ezta haiei egotzitako efektuekin beharrezko konexiorik ere? Izpiritu bat baldin bada efektu guztiok "fiat" edo nahimen-egintza batez zuzenean eragiten dituen, pentsatu beharra dugu, bai gizakia eta bai Naturako lanetan fina edo artifiziosoa den guztia, alferrik egina dela. Doktrina honen

arabera, artisau batek erloju baten malguki eta gurpilak eta mekanismo guztiak egin eta berak aurretik zekien eta lortu nahi zuen higidura sortzeko moduan piezok elkarrekin doitu arren, pentsatu beharra du, hala ere, guzti hau inolako xederik gabe egina dela eta adimen bat dela orratzak mugitu eta eguneko orduak seinalatzen dituen. Hau horrela bada, zergatik ezin egin lezake adimenduak haxe bera, mugimenduak egiteko eta koordinatzeko lana hartu gabe? Zergatik ez du balio kaxa huts batek beste edozeinek bezainbat? Eta nola gertatzen da, erloju baten martxan akatsen bat ageri den guztian, dagokion desordena aurkitzen dela mugimenduetan eta esku trebe batek konpondu ondoren ondo dabilela dena berriro? Gauza bera esan daiteke Naturaren makineria guztiari buruz, zeinaren zati handi bat hain miresgarriro da fina eta xotila, non mikroskopiorik onenak ere nekez hautematen duen. Labur esateko, galdetuko da ea nola eman dakioken, gure printzipioetan oinarrituta, esplikazio onargarririk edo kausa xedezkorik esle dakioken antzerik bikainenaz atondu eta egindako kontatu ezin ahala gorputzi eta makinari, filosofia arruntean oso kontrako erabilerak iratxeki zaizkienak berauek, eta fenomeno asko eta asko esplikatzeko balio dutenak.

61. Guzti honi zera erantzuten diot, lehenengo, probidentziaren administrazioari eta beronek Naturaren alderdi ezberdinei iratxekitako erabilerei buruzko zailtasun batzuk badaude ere aurreko printzipioez konpondu ezingo nituzkeenak, objektzio hau, hala ere, pisu arinekoa litzatekeela "a priori" nabaritasun handienaz froga daitezkeen gauzen egia eta ziurtasunaren kontra. Bigarren, onarturiko printzipioak eurak ere ez daudela horrelako zailtasunetatik aske; zeren galdera hau ere egin baitaiteke, zertarako hartu ditu Jainkoak tresna eta makinen bidez gauzak egiteko zeharkako metodo horiek, inork ukatu ezin duenez, bere nahimen-agindu huts batez egin zitzakeenez gero, "apparatus" guzti hori barik? Ez hori bakarrik: kontu hau hertsiki begiratzen badugu, aurkituko dugu, objektzioa, makina horren existentzia adimendutik at onartzen dutenen kontra bihur daitekeela bestera baino indar handiagoz; agerian jarria baitago sendartasunak, bolumenak, figurak, higidurak eta horrelakoez ez dutela beren baitan "eraginik" ez "efikaziarik" Naturarengan inolako efekturik eragiteko. Ikus 25. "atala". Horregatik, hautematen ez direnean ere existitzen direla suposatzen duen orok (litekeentzat joaz suposamena), nabariki xederik gabe egiten du hau, zeren hauteman barik existitzen direnean iratxekitzen zaien funtzio bakarra honako haxe baita, hots, izpiritua ez den beste ezein izakiri iratxeki ezin zaion efektu hautemangarriak eragitea.

62. Baina zailtasunera hurbilagotzeko, ohartu behar dugu, efektua eragiteko atal eta organo guzti horiek fabrikatzea erabat beharrezko ez bada ere, badela beharrezko gauzak Naturaren araberrako modu erregular eta aldagaitzez eragiteko. Badira lege orokor batzuk efektu naturalen kate osoa zeharkatzen dutenak: hauek Natura aztertuz eta erreparatuz ikasten dituzte gizakiek eta, hala bizimoduko erabilera eta apaindurirako gauza artifiziosak egiteko, nola hainbat fenomeno esplikatzeko aplikatzen dituzte; esplikazio hau edozein fenomenok Naturaren Lege orokorrekin duen adostasuna agertzean datza, edo gauza bera dena, efektu naturalen sorreran dagoen "uniformitatea" aurkitzean, filosofoak antzirudiak esplikatzen saiatzen diren kasuei arreta eman diezaien edonork argi ikus dezakeenez. Egile Gorenak lanerako erabilitako metodo erregular eta aldagaitzak onura eta emendio handi eta argikoak direla, agertua dugu 31. "atalean". Eta ez da nabaritasun txikiagokoa, tamainu, figura, higidura eta parteentzako antolamendu partikular bat beharrezko dela, nahiz eta ez absolutuki efektu bat eragiteko, bai, ordea, ezarritako Naturaren Lege mekanikoen arabera eragiteko. Horrela, adibidez, ezin uka daiteke Jainkoak, edo gauzen abio arrunta sostengatu eta erregulatzen duen adimenak, mirakulua egiteko asmorik izanez gero, eragin ditzakeela mugimendu guztiak erloju baten esferan, mekanismoak inork sekula egin ez balitu eta erloju barruan sartu ez balitu ere; baina helburu zehatz berak Kreazioan ezarri eta sostengaturiko mekanismoen

erregelen arabera jokatu nahi badu, beharrezko da goian esandako mugimendu horien aurretik erlojariak mekanismoak egitea eta behar den moduan doitzea; eta halaber mugimenduen edozein desegokitzerekin batera, mekanismoetan dagokion desegokitzea hautematea, eta hau zuzendu ondoren, dena ondo ibiltzea.

63. Batzuetan beharrezko izan daiteke, izan, Naturaren Egileak gobernatzeko duen botere nagusia hedatzea, gauzen segida arruntetik kanpoko efektuen bat eragiteko. Naturaren Lege orokorren salbuespen hauek, oso aproposak dira gizakiak harritu eta ikaratzeko, Jainkoa ezagutzera eramanez; baina horrexegatik erabili behar dira lantzean behin edo behintxotan bakarrik, zeren bestela argi dago ez luketela lortuko efekturik izatea. Honez gainera, badirudi Jainkoak, beragan sinets dezagun, gertakari anomaloez gu zur eta lur uzten ibili baino nahiago duela, egiturari hain harmonia eta agudezia handia erakusten duten eta euren Egilearen jakituria eta ongiletasunaren seinale argi diren Naturako lanen bidez konbentzitu gure arrazoimena bere atributuei buruz.

64. Gai hau argi oraindik argiagoan jartzeko, ohartaraziko dut 60. "Atalean" objektatu dena honako hauxe besterik ez dela: ideiak ez dira sortzen edozelan eta azarean, beren artean halako ordena eta konexio bat baitute, kausa eta efektuaren artekoaren antzekoa; euren arteko hainbat konbinapen ere badira, modu oso erregular eta artifiziosan sortuak, Naturaren eskuan dauden beste hainbeste tresna diruditenak, zeintzuek, nahiz eta gordeta egon eskenategiaren atzealdean baleude bezala, eragin berezia duten munduko teatroan ikusten diren agerkizunetan, filosofoaren begi ikusberak bakarrik bereiz ditzakeelarik. Baina ideia bat beste baten kausa ezin izan denez gero, zein ote da konexio honen xedea? Eta tresna horiek, adimenduko "hautemate inefikazak" besterik ez izanik, efektu naturalak eragiteko balio ez dutenez gero, galdetzen da ea zergatik izan diren eginak, edo, bestela esanda, zer arrazoi izan daitekeen, Jainkoak, bere lanak zehatz-mehatz begiratzen ditugunean, hain ideiei barietate handia, hain antzetsuki elkarturik eta arauari loturik, ikusaraz diezagun, ez baita sinestekoa arte eta erregularitasun guzti hori eraldi (horrela hitz egiterik bada) egin duenik.

65. Nire erantzuna guzti honi zera da, lehenengo, ideien konexioak ez duela kausa-efektu erlaziorik inplikitzen, baizik marka edo "seinaleak, "adierazten" duen gauzarekin duena soilik. Ikusten dudana sua ez da hurbiltzen natzaionean hartzen dudana minaren kausa, ohartarazten nauen seinalea baizik. Era berean, entzuten dudana zarata ez da inguruan ditudan gorputzen mugimendu edo elkarjotzearen efektu, baizik eta horren seinale. Bigarren, letrak hitzak osatzeko konbinatzen diren arrazoi berberetatik, eratzen dira ideiak makinak bezala, hots, artifiziozko konbinapen erregularretan. Jatorrizko ideia gutxi batzuek efektu eta ekintza asko egin ditzaten, modu ezberdinetan elkarrekin konbinatzea behar dute; eta euren erabilera iraunkorra eta unibertsala izan dadin, konbinapenok "arauen" eta "plangintza zuhurraren" bidez egin behar dira. Era honetan informazio ugaria igortzen zaigu holako eta halako egintzetatik espero dezakegunari buruz, eta holako eta halako ideiak eragiteko egokiak diren metodoei buruz; hauxe dela, izan ere, uste dut garbi aditzera eman nahi den guztia, esaten denean, gorputzen, hala naturalen nola artifizialen, figura, ehundura eta barne-aldeen mekanismoa atzematean, euren mende dagoen erabilera eta tasunak, edo gauzaren izaera, ezagut genitzakeela.

66. Bistakoa da, beraz, efektuen sorkuntza kausa batek kooperatu edo konkurritu behar duela dioen teoriaren arabera erabat ulertezinak diren eta absurduetara jausarazten gaituzten gauzak, guztiz esplikatuta daitezkeela era naturalez eta erabilera propio eta jakina iratxeki dakiekeela, geure informaziorako marka edo seinale hustzat hartzen direnean. Eta Naturaren Egileak ezarritako seinale hauek arakatzea eta ulertzen saiatzea, hain zuzen ere, izan behar luke filosofoaren lanak, eta ez, gorputzun kausen bidez gauzak esplikatuta nahian ihardutea; badirudi doktrina honek gizakien gogo

aldendu egin duela printzipio eragile, izpiritu goren eta jakitun horrengandik, "zeinarengan bizi, mugitu eta izan ere garen".

67. Hamabigarrenik, zera objekta liteke, nahiz eta esandakotik argi dagoen substantzia inerte, sentigabe, hedatu, sendar, forma eta higiduradun, adimendua barik existitzen dena, filosofoek materia deskribatzen duten bezala, ezin existitu dela, hala ere, baten batek kenduko balitu berak materiaz duen ideiatik hedadura, figura, sendartasun eta mugimenduaren ideiak eta esango balu ideia horiez zera adierazi nahi duela, substantzia inerte eta sentigabea, adimendua barik edo inork hauteman gabe existitzen dena, gure ideien okasioa dena, edota beraren presentzian Jainkoak guregan ideiak eragitea atsegin duena, irudi lezake, esangura honetan hartuta materia, agian existi litekeela. Honi erantzunez, diot, lehenengo, ez duela absurdutasun txikiagorik suposatzen akzidente gabeko substantziak, substantzia gabeko akzidenteak baino. Baina, bigarren, substantzia ezezagun hau existi litekeela admitituko bagenu ere, non existitzen dela suposatuko litzateke? Onartzen da ez dela adimenduan existitzen, eta honen adinako egia da ez dela beste inon existitzen, zeren hedadura oro adimenduan bakarrik existitzen baita, frogatua dugunez. Beraz, inontxo ere ez dela existitzen esatea besterik ez da gelditzen.

68. Goazen orain "materiaz" hemen egiten zaigun deskribapena aztertzeraz pixkat. Ez ihardun dihardu, ez berak hautematen du, ez inork hautematen du bera, zeren hauxe baita, izan, esan gura den guztia substantzia inerte, sentigabe eta ezezaguna dela esatean. Ezezko hutsez egindako definizioa da hau, euskarri edo substratu izatea den nozio erlatiboa kenduz gero; baina honetan ohartu beharra dago ez diola ezertxori ere "eusten"; eta gura nuke konturatzea zein hurbil dagoen "ez-izaki" baten deskribapenetik. Baina esango duzue "okasio ezezagun" bat dela, beraren presentzian Jainkoaren nahiak gure baitan ideiak eragiteko. Orain, gustatuko litzaidake jakitea nola egin dakigukeen presente, zentzuez ez gogoetaren bidez hautemangarri ez den gauza bat, gure adimenduetan ideiarik eragiteko gauza ere ez dena, inola ere hedatua ez dena, formarik ere ez duena eta inon ere existitzen ez dena. "Presente egon" hitzak, honela erabilita, ulertzeko gauza ez naizen zentzu abstraktu eta estrainioan hartu behar ezinbestez.

69. Azter dezagun orain "okasio" hitzaz esan nahi dena: hizkuntzaren ohizko erabileratik atera nezakeen neurrian, hitz honek, edo efektu bat sortarazten duen eragilea edo gauzen abio arruntean efektuarekin batera edo aurretik ikusten den zerbait adierazten du. Baina materiari lehen esan bezala aplikatzen zaionean, ezin da hartu esangura hauetako batean ere. Zeren, materia pasiboa eta inerte dela esaten baitute eta, beraz, ezin izan daiteke agente edo kausa erazlea. Hautemanezina ere bada, nolakotasun sentigarritz gabeturik baitago, eta horregatik, ezin izan gure hautemateen okasioa bigarren zentzuan, nire atzamarreko errea berarekin batera datorren minaren okasioa dela esaten denean bezala. Beraz, zer esan nahi da materiari "okasioa" esaten zaionean? Termino hau, edo zentzurik gabe erabiltzen da, edo onarturiko esanguratik oso urrun dagoen zentzuan.

70. Esango da beharbada materia, guk hauteman ez arren, Jainkoak hautematen duela, berarentzat gure adimenduetan ideiak eragiteko okasioa delarik. Zeren, esango baita: konturatzen bagara gure zentzazioak ordenan eta iraunkorki inprimatzen zaizkigula, arrazoizko da suposatzea zenbait okasio iraunkor eta erregular daudela sor daitezen. Hau da, badira materiaren zenbait parte iraunkor eta bereizi, gure ideiei dagozkienak, zeintzuek, nahiz eta gure adimenduan ideiarik sortu ez, eta guregan inolako eragin zuzenik izan ez, erabat pasibo eta guk hauteman ezinak direlako, Jainkoarentzat hautemangarriak direnak, honek gure adimenduan noiz eta zenbat ideia inprimatu behar duen gogorarazten dioten beste hainbeste okasio legez hautematen dituelarik; gauzek beren abioan jarrai dezaketelarik horrela modu iraunkor eta uniformearekin.

71. Honi erantzunez ohartarazi nahi nuke, hemen jarritako materiaren nozioaren arabera, auzia ez dela horrenbeste "izpiritu" edo "ideiatik", hautematetik eta hautemana izatetik diferentea den zerbait existitzen den ala ez, baizik eta ea Jainkoaren adimenduan nolabaiteko ideiak, ez dakit nik nolakoak, prozedura iraunkor eta erregularrez gure adimenduan zentzazioak sortzeko modua erakusten dioten seinale edo nota direnak, existitzen diren ala ez, musikako notek musikariari erakusten dioten bezala "melodia" deritzan segida harmoniatsua eta hots-konposizioa sortzeko modua, nahiz eta musika entzuten ari direnak notarik hauteman ez, eta beraiez ezer jakin ez. Baina materiari buruzko nozio honek⁷ bitxiegia dirudi errefusapenik merezi izateko. Gainera, ez da, izan ere, inolako objekzio guk esandakoaren kontra, hots, "substantzia" sentigabe eta hauteman gabekorik ez dela.

72. Arrazoimenaren argiari jarraitzen badiogu, gure zentzazioen metodo iraunkor eta uniformeetatik, berauek gure adimenduetan eragiten dituen "izpirituaren" ontasuna eta jakituria ondorioztatuko ditugu. Baina hauxe da hortik arrazoiz konkluditu lezakeela ikusten dudan guztia. Nire eritziz, bistakoa da "mugarik gabe jakintsu, on eta ahaltsu den izpiritu" baten izatea nahikoa eta lar dela Naturako fenomeno guztiak esplikatzeko. Baina "materia sentigabe inerteari" dagokionez, hautematen dudan ezerk ez dauka harekin konexio txikiarik eta haren pentsamendurik ere ez dakarkigu. Eta gustatuko litzaidake ikustea nola esplikatzen duen nork edo nork Naturako fenomenorik apalena beraren bitartez, edo beraren existentzia baiezteko eduki lezakeen arrazoi moduren bat erakusten duen, arrazoi hori probabilitate-gradu baxuenekoa izanda ere; edo, behintzat, supostu honi zentzu edo esangura onargarri bat emango liokeena. Okasio izateari dagokionez, agertu dugu argi, nik uste, gurekiko ez dela okasio. Bakarrik geratzen da, geratzekotan, Jainkoarentzat izatea okasio guregan ideiak sortzeko; eta honen esangura zein den, agertu berri dugu oraintxe.

73. Merezi du, bitartean, gizakiak substantzia materialaren existentzia suposatzeraz eman zituzten motiboak apur bat hausnartzeak; horrela, motibo edo arrazoi horiek mailaz maila nola indargetzen eta iraungitzen diren ikusi ondoren, eurretan oinarrituriko atxekimendua ere proportzionalki gibeleraizteko aukera izan dezagun. Lehenengo, jakina, kolorea, figura eta higidura eta gainerako nolakotasun sentigarriak edo akzidenteak errealki existitzen ziren adimendua barik, eta horrexegatik beharrezko ikusten zen "substratum" edo "substantzia" ez-pentsatzaile bat, non existitzen ziren akzidenteak, beren baitan existitzea bururaezina zenez gero. Gero, denbora joan ahala, gizakiak konbentzitu zirenez koloreak, hotsak eta gainerako nolakotasun sentigarri sekundarioak ez zutela inolako existentziarik adimendua gabe, kendu egin zizkioten nolakotasunok "substratum" edo substantzia material honi, primarioak soilik utziz: figura, higidura e.a. Hauetaz oraindik pentsatzen zuten adimendua gabe existitzen zirela eta, izateko, euskarri materiala behar zuten. Baina agertua denez nolakotasun bat ere, ezta hauetarikorik ere, ezin dela existitu hautematen dituen izpiritu edo adimenduan izan ezik, ateratzen da ez dugula arrazoi bat ere "materiaren" existentzia suposatzeke. Are, erabat ezinezko da holakorik existitzea, hitz hori honako hau adierazteko erabiltzen den heinean, hots, nolakotasun edo akzidenteen "substratum ez-pentsatzailea", non adimendua gabe existitzen diren.

74. Baina, nahiz eta "materialistek" berek ere admititzen duten materia akzidenteei eusteko bakarrik bururaturiko zera dela, pentsatzekoa zen, arrazoi hau ezabatzean, adimenduak berez eta inolako uzkuratasunik gabe utziko ziola horrexetan, eta ez beste ezertan, oinarritzen zen zerbaitetan sinesteari. Baina aurreritza hain sakon dago erroturik gure pentsamenduetan, non nola ken daitekeen esaten ere zail dugun, eta mamia bera defendaezina denez gero, "izenaz" bederen geratzera makurtzen gara, nik ez dakit nolako "izaki" edo "okasioaren" nozio abstraktu eta zehazgabeari aplikatzen

diogularik, nahiz eta inolako arrazoirik agertu gabe, nik ikus nezakeen heinean behinik behin. Ezen, zer dago guregan edo zer hautematen dugu gure adimenduan, zentzuez edo gogoetaz inprimaturiko ideia, zentzazio eta nozio guztien artean, bertatik okasio inerte, pentsamendugabe eta inork hauteman gabeko okasioaren existentzia atera ahal dezagun?; eta bestalde, zer ukan lezake "izpiritu ahalguztidunak", gure adimenduetan ideiak sortzeko okasio inerte bat duela "gidari" pentsarazteko, edo susmarazteko ere?

75. Aurreritziek duten indarraren exenplu aparteko bat da, eta benetan deitoragarria, gizakiaren adimenduak, arrazoimenaren ebidentzia ororen kontra, hain ergel eta pentsamendurik gabea den "zerbaitekiko" hain zaletasun handia mantentzea, zeina tartejartzeak Jainkoaren probidentzia estaliko liokeen, gertatu ere egin den legez, eta munduko gorabeheretatik apartatuko. Baina ahalak eta bi egin arren "materiarekiko" sinespena ziurtatzeko, nahiz eta, arrazoiak ihes egin ondoren, geure eritzia gaiaren probabilitate hutsean oinarritzen saiatu eta nahiz eta arrazoimenak erregulatu gabeko irudimenaren mende jarri oso-osoan geure buruak, "posibilitate" eskas hori esplikatzeke, hala ere, Jainkoaren adimenduan zenbait "ideia ezezagun" direla da guzti honen emaitza; zeren Jainkoari buruz "okasio" terminoa erabiliz esan nahi dena haxe besterik ez dela uste baitut, ezer uste izatekotan. Eta hau, sakonean, ez da "gauzari" buruzko eztabaida, "izenari" buruzkoa baizik.

76. Horregatik, ez dut eztabaidatuko ideia horiek Jainkoagan existitzen direnentz, ezta "materia" izena jar dakiekeenentz ere. Baina substantzia ez-pentsatzailearen edo hedadura, higidura eta beste nolakotasun sentigarrien euskarriaren nozioari atxekitzen bagatzaizkio, orduan nabarmenkiago dut ezinezkotzat gauza hori existitzea. Izan ere, erabateko kontraesana baita nolakotasun horiek substantzia ez-hautemailean edo beronek eutsita existitzea.

77. Baina esango duzue: onartu arren ez dela pentsamendu eta hautematen ditugun hedadura eta beste nolakotasunik gabeko euskarririk, agian izan daiteke substantzia inerte ez-hautemaile edo beste nolakotasun batzuen "substratum" bat, guri sortzetiko itsuari koloreak bezain ulertezin gertatzen zaiguna, ez baitaukagu egokitzen zaion zentzurik. Baina zentzu berri bat bageneuka, ez genuke agian haren existentziari buruz, ikusmena eskuratzen duenitsuak argi eta koloreei buruz daukan baino duda handiagorik. Honi erantzunaz, zera diot, lehenengo, "materia" hitzaz esan nahi dena nolakotasun ezezagunen euskarria besterik ez bada, berdin diola gauza hori existitzea ala ez, ez baitu gurekin inolako zerikusirik; eta ez dakusat zer abantaila duen "zertaz" ez dakigun eta "zergatik" ere ez dakigun zerbaiti buruz eztabaidatzeak.

78. Baina, bigarren, zentzu berri bat bagenu, ideia edo zentzazio berriz hornitu besterik ez gintuzke egingo; eta orduan figura, higidura, kolore eta abarri dagokionez eskainitako arrazoi bera izango genuke hau substantzia ez-hautemaile batean existitzearen kontra. Agertua dugunez, nolakotasunak, hautematen dituen "adimenduan" soilik existitzen diren "zentzazioak" edo ideiak besterik ez dira; eta hau egia da, ez bakarrik gaur egun ezagutzen ditugun ideiei buruz, izan litezkeen ideia guztiei buruz baizik, direnak direla.

79. Baina ekingo diozu, zer dio axola, materiaren existentzian sinesteko inolako arrazoirik ez badugu, emendiorik egotzi ezin badiogu, ezta beraren bitartez ezer esplikatu ere, eta areago, hitz honek esan nahi duena bururatu ere ezin badugu ere? Hala ere, ez dago kontraesanik materia existitzen dela eta materia hau "orokorrean" ideien "substantzia" edo "okasio" dela esatean; nahiz eta, egia esateko, hitz horien esangura jorratzen saiatzeak edo berorien azalpen konkretu bat onartzeak zailtasun handiak ukan. Honi zera erantzuten diot, hitzak esangura konkretu bat gabe erabiltzen direnean, nahierara konbina daitezkeela, kontraesanetan jausteko arriskurik gabe. Esan daiteke,

esate baterako, "bi bider bi" "zazpi" dela, beti ere proposizio honetako terminoak ohizko esanguran barik, ez dakit nik zeren adierazletzat hartuz gero. Eta arrazoi berorregatik esan zenezake badela akzidenterik gabeko substantzia inerte eta pentsamendurik gabea, gure ideien okasio dena. Eta proposizio batz, besteaz adina ulertuko dugu.

80. Azkenez esango duzue: eta zer, substantzia materialaren kontu hau bertan behera utzi eta esaten badugu materia "zer" ezezagun bat dela, ez substantzia, ez akzidente, ez izpiritu, ez ideia ez ezer ez dena, inerte, pentsamendurik gabea, banaezina, mugikaitza, hedadurarik gabea, inon ere existitzen ez dena? Zeren esango baituzue "substantziaren" eta "okasioaren" edo materiaren beste edozein nozio positibo edo erlatiboren kontra argudia daitekeen ezerk ez duela balio, materiaren definizio "negatibo" honi gatzexkion neurrian. Erantzuten dut erabil zenezaketela, ongi baderitzozue, "materia" hitza beste gizaki batzuek "ezer ez" erabiltzen duten esangura berean, eta horrela elkarraldagarri bihurtu zeuen mintzakeran. Zeren, azken batean, haxe baita definizio honen emaitza gisa agertzen zaidana, beraren osagaiak arretaz begiratu ondoren, batera edo banan, ez baitut aurkitzen ezelako efektu edo inpresiorik egiten didatenik adimenduan, "ezer ez" terminoak eragiten didanetik diferenterik.

81. Erantzungo didazue beharbada aurreko definizioan ezerezetik behar adinean bereizten duena barnesartzen dela, hots, "quiditate, entitate" edo "existentziaren" ideia positibo eta abstraktua. Ezagutzen dut ideia orokor abstraktuak eratzeke ahalmena dutela diotenek, ideia hori eduki baleukate bezala hitzegiten dutela, denetako noziorik abstraktu eta orokorra omen dena berau, haiek diotenez, eta, nire ustez, ulertezinena esatea beste dena. Ez dut arrazoirik ikusten mota eta kapazitate askotako izpirituak direnik ukatzeko, euron ahalmenak, neure izatearen Egileak niri eman dizkidanak baino askozaz gehiago eta harrera handiagokoak direlarik. Eta uste dut erokeria eta harrokeriarik handiena litzatekeela, neure hautemanbide gutxi, mugatu, eta laburrez zehaztu nahi ukatea zeintzuk ideia inprima dezakeen eurotan Izpiritu Gorenaren ahal agortezinak. Izan ere, nik dakidanetik, kontatu ezin ahala ideia eta zentzazio-mota izan daitezke, eta koloreak hotsetatik bezain diferenteak bata bestetik eta nik hauteman ditudan guztietatik. Baina, presten egonda ere izpiritu eta ideien amaigabeko barietateari buruzko neure ulermenaren eskastasuna aitortzeko, hala ere, susmatzen dut begi bistako kontraesana eta hitz-jokoa dela norbaitek esatea entitate edo existentziaren nozio bat daukala, "izpiritutik" eta "ideiatik", hautematen duenetik eta hautemana denetik, "apartekoa". Erlijio aldetik jar lekizkigukeen objekzioak bakarrik geratzen zaizkigu aztertzeke.

82. Badira batzuk zera uste dutenak, arrazoimenetik gorputzen existentzia errearen alde ateratako argudioak ez direla heltzen demostrazio izatera admititu arren, Eskritura Santua hain dela argia puntu honetan, non guztiz konbentzituko duten kristau zintzoa gorputzen existentzia errearen egiaz, ideia hutsak baino zerbait gehiago direla sinestaraziz, Eskritura Santuan hainbat eta hainbat gertakari kontatzen baita zuraren eta harriaren existentzia nabariki suposatzen dutenak. Honi erantzunez zera diot, hitz horiek edo antzekoak, zentzu arruntean, edo beren baitan zentzua izateko moduan darabilen ezein idazki-motak, dela sakratua dela profanoa, ez duela inolako arriskurik gure doktrinak beraien egia ezbaian jar dezan. Gauza guzti horiek errealki existitzen direla, badirela, izan, gorputzak, are gorputzun substantziak, zentzu arruntean hartzen direnean, gure printzipioekin bat datozen baieztapenak direla agertua dugu⁸. Eta "gauzen" eta "ideien", "errealitateen" eta "kimeren" arteko diferentzia argi eta garbi azaldua izan da. Eta ez dut uste Eskriturako ezein tokitan aipatzen denik filosofoek "materia" esaten dioten hori, ezta gauzen adimendua gabeko existentzia ere.

83. Gainera, kanpoko gauzak existitzen direla ala ez direla, denek onartua da hitzei dagokien egitekoa, geure buruerak, edo gauzak, baina hautemanak direnez soilik, izendatzea dela; hemendik zera ateratzen delarik argi, azaldu ditugun teorietan ez dagoela ezer bateraezin denik "hizkuntzaren" erabilera eta esangura zuzenarekin, eta edozein solasaldi motak, ulergarria izanez gero, inolako aldaerazpenik gabe dira. Baina guzti hau hain dago nabari premisetan jarritakotik, non ez duen behar areago ekiterik.

84. Baina, berriro ere etorriko zarete esatera mirakuluak bederen, gure printzipioen arabera, duten indar eta garrantziaren zati handi bat galduko dutela. Zer pentsatu behar ote dugu Moisesen makilaz? "Benetan" bihurtu al zen suge, ala "ideia" aldaketa bat gertatu zen ikasleen adimenduetan? Eta zilegi al da suposatzea gure Salbatzaileak Kanako eztegiaren eztegiaren ikusmen, usaimen eta zaporamenari eragin besterik ez zuela egin, eurengan ardoaren itxura edo ideia soilik sortzeko? Gauza bera esan daiteke beste mirakulu guztiez ere, zeren, aurreko printzipioen ondorioz, irudimenaren beste hainbeste engainu edo ilusiotzat hartu behar baitira. Honi erantzuten diot makila benetako suge bihurtu zela, eta ura egiazko ardo. Honek ez diola ezelako kalterik egiten beste lekuetan esandakoari nabari aterako da 34. eta 35. "ataletatik". Baina "errealaren" eta "irudipenezkoaren" kontua, hain argi eta erabat azaldua dugu, eta gai honi buruz aurkezten diren zailtasunak hain aise erantzuten dira aurrerago esandakoa kontutan izanda, non irakurlearen enteleguari irain egitea litzatekeen orain berriro horren azalpenari oratzeari. Zera azpimarratu nahi nuke soilik, han mahaian zeuden guztiek ardoa ikusi, dastatu eta edan ahal izan bazuten eta ondorioak igarri ere bai, nik neuk ez dudala ardo haren errealtatearen dudarik. Eta horrela, mirakuluen errealtateari buruzko dudak ez duela lekuri gure printzipioen barruan, normalki onartuetan baizik, eta ondorioz, esandakoaren "kontra" baino "alde" gehiago daudela.

85. Ahalik argien azaltzen eta pisu eta indar handiena ematen saiatu naizen objekzioekikoa egin ondoren, gure doktrinaren ondorioak aztertzea pasako gara. Eurotako batzuk ikusita ematen du, lehen ikusian, makinatxo bat alferreko espekulaziotan erabilitako zenbait arazo zail eta ilun filosofiatik erabat ezabatu bide direla. Pentsatzerik ba al du gorpuztun substantziak? Amaigabeki banagarria al da materia? Zernolako eragiketa du izpirituarengan? Ikerketa hauek eta horrelako beste batzuek entretenigarri agortezina eman die garai guztietako filosofoei. Baina "materiaren" existentziaren mende daudenez, ez daukate jada lekuri inon gure printzipioen arabera. Beste abantaila asko daude, hala erlijiorako nola zientzietarako, edonork deduzi litzakeenak aurrean esandakotik. Baina hau argiago agertuko da jarraian.

86. Jarri ditugun printzipioei zera darraie, giza ezagutza berez sail bitan banaturik utz daitekeela: "ideiena" eta "izpirituena". Ordenan aztertuko dut bakoitza. Eta, lehenengo, ideiei edo gauza ez-pentsatzaileei dagokienez, eurekiko gure ezagutza oso ilundu eta nahasirik egon izan da, eta errore oso arriskutsuetara eramanez izan gara, zentzuen hautemangaiaren existentzia bikoitza, "adigarria" edo adimenduan bata, "erreal" eta adimendua barik bestea, suposatzean: honexegatik uste delarik gauza ez-pentsatzaileek berezko subsistentzia propioa dutela, izpirituak hautemanak izatetik ezberdina. Absurdu eta oinarrigabeenetakoa bat dela, oker ez banago, erakutsia dugun kontu hau, "eskeptizismoaren" sustraia bera da; zeren, jendeak uste zuenez gauza errealek beren gain existitzen zirela adimendua gabe, eta beren ezagutza "gauza errealekin" adosten zen heinean soilik zela "erreal", hemendik baitzetozen ezagutza errealean inolako ziurtasunik ukan ezina. Jakin ere, nola jakin liteke hautematen diren gauzak hautematen ez direnekin adosten direla, edo adimendua gabe existitzen direla?

87. Kolorea, figura, higidura, hedadura eta horrelakoak, adimenduan izandako beste hainbeste "zentzazio" direnez soilik hartuta, ondo baino hobeto ezagutzen ditugu, ez baitago euron baitan hauteman gabekoa den ezer. Baina adimendua gabe existitzen diren "gauzei" edo "arketipoei" dagozkien nota edo irudi moduan begiratzen diegunean, "eskeptizismoan" korapilaturik aurkitzen dugu geure burua. Antzirudiak besterik ez dugu ikusten eta ez gauzen nolakotasun errealak. Zer diratekeen edozein gauzaren hedadura, figura edo higidura errealki eta absolutuki, edo beren baitan, ezin dugu guk jakin, gure zentzuekiko duten proportzioa edo erlazioa ezagutzea besterik ez baita guri dagokiguna. Gauzek beti berek dirauten arren, gure ideiak aldatu egiten dira, eta gure irispidetik at dago zehaztea eurotako zeinek, eta are eurotakoren batek, irudikatzen ote duen gauzaren baitan dagoen benetako nolakotasuna. Eta horrela, dakigunez, ikusten, entzuten eta sentitzen dugun guztia mamu soil bat edo kimera hutsal bat izan daiteke eta "rerum natura"-n existitzen diren gauza errealekin inolako adostasunik ukan ez. Eskeptizismo guzti hau "gauzen" eta "ideien" artean diferentzia bat dagoela suposatetik eta aurrenekoek adimendua gabe edo hautemanak izan gabe subsistentzia dutela uste izatetik dator. Errazean legoke gai honi buruz luzatzea eta nola garai guztietako "eskeptikoe" jarritako argudioak kanpoko gauzak suposatzearen mende dauden erakustea.

88. Gauza ez-pentsatzaileei hautemanak izatetik ezberdina den existentzia erreala egotz diezaiegun bitartean, ez dugu izaki erreala ez-pentsatzaile baten ere izaerarik ezeze, are existentziarik ere ezagutzerik. Hemendixek dator filosofoak beren zentzuez mesfidatzen, eta zeru-lurren existentziaz, ikusi edo sentitzen duten guztiaz, are beren gorputzez ere, dudatzen ikustea. Eta pentsamenduzko lan eta esfortzurik handienak egin ondoren, beren burua beharturik aurkitzen dute onartzera ezin iritsi direla gauza sentigarrien existentziaren ezagutza autoebidente edo demonstrakorrera. Baina adimendua hainbestean konkortu eta nahasten, eta "filosofia" munduaren begietarako barregarri bihurtzen duen ziurgabetasun hau ezabatu egiten da, baldin eta geure hitzei esangura ematen badiegu eta zer esan nahi duten ere ez dakigun "absolutu, kanpoko, existitu" eta antzeko terminoekin jolas-molas entretenigarrian aritzen ez bagara. Neure izatea ere zalantzan jar nezake zentzuez errealki hautematen ditudan gauzen existentzia bezalaxe; kontraesan nabaria delarik, izan, gauza sentigarri bat ikusmen edo ukimenaz zuzenean hautematea eta aldi berean existentziarik ez izatea Naturan, izaki ez-pentsatzaile baten existentzia bera "hautemana izatean" baitatza.

89. "Eskeptizismoaren" erasoei aurre egiteko moduko ezagutza jator eta errealeko sistema finko bat eraikitzeke, ezerk ez dirudi garrantzitsuago hasiera-hasieran "gauza, errealitatea, existentzia" kontzeptuen azalpen bereizi bat argi jartzea baino; zeren alferrik eztabaidatuko dugu gauzen existentzia errealarari buruz, edo euren zelako halako ezagutza geuganatu nahian ariko gara, gauza horien esanahia finkatu baino lehen. "Gauza" edo "izakia" izenik orokorra da: bere baitan mota ezberdin bi hartzen ditu, elkarrekin izena beste zerikusirik ez daukatenak, hots, "izpirituak" eta "ideiak". Lehenak "substantzia eragile" eta "banaezinak" dira; azkenak "izaki inerte, iheskor eta menpekoak"⁹, berengan izaterik ez dutenak, substantzia izpiritualen adimenduek sostengatzen dituztelarik edo berauengan direlarik. Gure geure existentzia barne-sentimendu edo gogoeta baten bidez ulertzen dugu, eta beste izpirituen arrazoimenaren bidez. Esan daiteke guk geure adimenduen, izpirituen eta izaki eragileen nolabaiteko ezagutza edo nozioa daukagula, zentzu hertsian euren "ideiarik" ez daukagularik. Era berean gauzen edo ideien arteko erlazioak ere ezagutzen ditugu, erlaziook erlazonaturiko ideia edo gauzetatik diferenteak direlarik, azkenengook guk hautemanak izan baitaitezke aurrenekoak hauteman barik. Nik uste dut ideiak, izpirituak eta erlazioak, zein bere erara, giza ezagumenaren jakingai direla eta gure diskurtsoaren gai;

eta "ideia" hitza desagokiro hedatuko litzatekeela guk ezagutzen dugun edo nozioren bat daukagun oro adierazteraino.

90. Zentzuetan inprimaturiko ideiak gauza errealak dira, edo errealki existitzen dira; hau ez dugu ukatzen, baina hautematen dituen adimendurik gabe berengain izan daitezkeenik, hori bai ukatzen dugu, edo adimendurik gabe existitzen diren arketipo edo irudiak direnik; izan ere, zentzazio edo ideia izatea bera hautemana izatean datza, eta ideia ideia ere ez besteren antzeko izan daiteke. Honez gainera, zentzuek hautemandako gauzak euren jatorriari dagozkionez "kanpokoak" direla esan daiteke, adimenduak berak barrutik sortuak ez direnez, baizik eta eurak hautematen dituenak ez den beste izpiritu batek inprimatuak. Berdin esan daiteke objektu sentigarriak beste adimenduren batengan existitzen direla. Horrela, begiak ixten ditudanean, nik ikusitako gauzek existitzen iraun dezakete, baina beste adimendu batean nahitaez.

91. Errakuntza bat litzateke pentsatzea hemen esan denak gauzen errealitateetik hastantzen gaituela apurrik apurrenean ere. Onartua da ontzat jotako printzipioen arabera, hedadurak eta higidurak eta, hitz batean, nolakotasun sentigarri guztiek eustazpi bat behar dutela, ez baitira berengain izateko gauza. Baina aitortzen da zentzuek hautemandako objektuak nolakotasun berorien konbinapenak besterik ez direla, eta ondorioz ezin direla berengain izan. Honaino denak daude ados. Eta beraz, zentzuek hautemandako objektuei existitu ahal izateko behar duten substantzia edo eustazpiarekiko lokabe datekeen existentzia ukatzean, ezertan ere ez gara aldentzen euren "errealitateari" buruz onetsia den eritzetik, eta kontu honetan ez gara ezein berrikuntzaren errudun. Dagoen alde guztia zera da, guk uste dugula zentzuek hautemandako gauza ez-pentsatzaileek ez daukatela hautemanak izatetik ateko existentziarik, eta ezin direla, beraz, existitu, izan ezik haiek eragin, pentsatu eta hautematen dituzten substantzia banaezin edo "izpirituen" baten baitan; filosofoek, oster, eskuarki uste dute nolakotasun sentigarriak "materia" esaten dioten substantzia inerte, hedagabe, ez-hautemaile batean existitzen direla, subsistentzia naturala atribuitzen diotelarik beroni, izaki pentsatzaile guztietatik atekoa, edo edozein adimenduk, Kreatzailearen adimendu eternalak berak ere, hautemana izatetik ezberdina, beronetan Hark kreaturiko substantzia gorpuztunen ideiak soilik daudela suposatzen baitute, benetan onartzen badute kreatuak izan direla.

92. Zeren, materia edo substantzia gorpuztunaren doktrina "eskeptizismoaren" harroin edo euskarri nagusi izan dela erakutsi dugun bezalaxe, halaxe sortu izan baitira eustazpi beronen gainean "ateismo" eta erlijioabetasun eskema guztiak ere. Eta, gainera, hain zailtasun handiak izan ziren materia ezerezetik sortua zela bururatzeko, non aintzinako filosoforik ospetsuenek, Jainkoaren existentzia onartzen zutenek eurek ere, uste izan baitzuten materia kreagabea eta Harekin batera betieretikoa zela. Esan beharrik ez dago zein lagun handia izan den garai guztietako "ateoentzat" substantzia materiala. Euren sistema higuigarri guztiek hain dute berarengandiko dependentzia nabaria eta beharrezkoa, non kantoiharria kenduz gero, eraikin guztiak ez duen lurrera erortzea beste erremediorik; ez du, beraz, merezi zorigaitzoko ateo-sekta bakoitzaren absurdutasunak aztertzeari luzaroago ekiterik.

93. Pertsona erlijio gabe eta profanoak gustura erortzea euren berezko joeren alde dauden sistemetan, substantzia inmaterialari irri eta barre egitean eta arima banagarria eta gorputza bezalaxe usteltasunaren menpekora dela suposatzean, honen bidez gauzen formakuntzatik libertate, adimen eta asmo oro kenduz eta honen ordeztu substantzia berez-den, zozo eta ez-pentsatzaile bat asmatuz, gauza naturala da. Naturala den moduan baita ere, berauek jaramon egitea goragoko adimendu batek munduko arazoei probidentzia edo ikuskapena duenik ukatzen dutenei, gertakarien segida guztia azare itsuari edo gorputzen elkarbultzadatik sorturiko ezinbesteko halabeharrari

iratskekiz. Eta, bestalde, printzipio hobeak dituzten gizonak ikusten dutenean erlijioaren etsaiek hainbesteko garrantzia ematen diotela "materia ez-pentsatzaileari" eta hainbesteko ahalegin eta trikimailuz jotzen dutela den-denek dena horrexetara biltzeko, uste dut poztu egin beharko lirakeela beraien euskarri nagusia kenduta eta beren buruak gotorleku bakar izan dutenetik kanpora egotzita ikustean, berau gabe "Epikuroar, Hobbestar" eta antzekoek ez bailukete erreibindikazioaren gerizarik ere ukanen, aitzitik, euren kontrako garaitzarik erraz eta merkeena erdietsiko litzatekeelarik.

94. Materiaren, edo hauteman gabeko gorputzen, existentzia "ateo" eta "fatalisten" euskarri nagusi izatez gain, "idolatria" ere, bere forma diferenteetan, printzipio honexen mende dago. Gizonak uste izateaz bakarrik eguzkia, ilargia, izarrak eta zentzuetako beste objektuak beren adimenduetako zentzazioak besterik ez direla, hautemanak izatea beste existentziarik ez daukatelarik, ez lirakeke egundo ere belauniko jarriko beren "ideiak" gurtzeko, baizik eta gauza guztiak sortu eta sostengatzen dituen Adimendu Ikusezin eta Eternalari zuzenduko liokete beren gorazarrea.

95. Printzipio absurdu honek, gure fedeko artikuluekin nahastean, Kristauei ere ez dizkie zailtasun makalak ekarri. Esate baterako, "berpizkundeari" buruz zenbat eta zenbat eskrupulu eta objektzio ez dute atera sozintarrek eta beste batzuek? Baina hauetako txalogarrienek ere ez al daukate oinarritzat honako suposamen hau, gorputz bat "bera" dela esaten dela, ez forma edo zentzuez hautematen dena kontutan izanda, baizik eta hainbat formaren pean beti bera dirauen substantzia materiala? Ken dezagun beraren identitatearen inguruan eztabaida guztia biltzen duen "substantzia material" hau, eta har dezagun "gorputzat" edozein pertsona arruntek ulertzen duena, hau da, zuzenean ikus eta sentitzen dena, nolakotasun sentigarri edo ideien konbinapena besterik ez dena; eta orduan haien objektzio erantzungaitzenak hutsera datoz.

96. Behin materia Naturatik kanpora jaurtikiz gero, hainbeste nozio eskeptiko eta jainkogabe daramatza narraz berarekin, hainbeste, sinetsi ezin beste, eztabaida eta auzi nahaspilatu, teologoen, baita filosofoen ere, saihezteetan arantza izan direnak, eta hain lan fruitugabea egin dute gizateriarentzat, non, materiaren kontra aurkeztu ditugun argudioak demostrazioa adinakotzat hartu ez-eta ere (nik ebidentziaz uste dudana moduan), hala ere ziur nagoen ezagutza, bakea eta erlijioa maite duten guztiek badutela arrazoirik horrela izan ledu nahi izateko.

97. Hautemangaien kanpoko existentziaz gain, ezagutza idealari buruzko beste errore eta zailtasun-iturri handi bat "ideia abstraktuen" doktrina dugu, Sarreran azaldu den bezalaxe. Munduko gauzarik sinpleenak, etxekoen ditugunak eta ondoen ezagutzen ditugunak, abstraktuki begiratzen direnean, txundigarriro zail eta ulertezin agertzen zaizkigu. Denbora, lekua, mugimendua, modu partikular edo konkretuan hartuta, edonork ezagutzen dituen zerak dira; baina metafisikari baten eskuetatik pasa ondoren, abstraktuegi eta mehegi bihurtzen dira adimen arrunteko pertsonen atzemateko. Agin biezaio edozeinek bere otseinari hain "ordutan" hain "tokitara" etortzeko: ez da inoiz geratuko hitzon esangurari eragiten; ez du zailtasun txikiarik izango ordu eta toki hori edo hara eramango duen mugimendua bururatzen. Baina "denbora", eguna ezberdintzen duten ekintza eta ideia partikularrak kenduta, existentziaren segidatasun edo abstraktuki iraupen moduan hartzen bada, orduan agian filosofoari berari ere lanbrotsu eta ulergaitz gertatuko zaio.

98. "Denboraren" ideia sinple bat eratzen saiatzen naizen guztian, albo batera utziz berari uniformeki darion eta izaki guztiek konpartitzen duten ideien segidatasuna nire adimenduan, galdu egiten naiz eta zailtasun lazkatsuetan korapilatu. Ez daukat denboraren inolako noziorik; soil-soilik besteak mugagabe banagarria dela esaten eta beraz halako moldez hitz egiten entzuten ditut, non neure existentziari buruz pentsamendu estrainioak bururarazten baitizkidate; zeren doktrina honek zeharo

behartzen du bat pentsatzera, edo pentsamendu batik ere gabe iragaten direla kontatu ezin ahala denboraldi, edo norbera deusezturik geratzen dela norbere bizitzako une bakoitzean, biak ere berdinki absurdu direlarik. Denbora ez denez gure adimenduan gertatzen den ideien segidatik ezer diferenterik, hemendik dator edozein izpiritu finituren iraupena, izpiritu eta adimendu horretan elkarren ondoren gertatzen diren ideien kopurutik zenbatetsi beharra dagoela. Hemendik ondorio argi legez ateratzen da arima beti ari dela pentsatzen, eta benetan uste dut bere pentsamenduan izpiritu baten "existentzia" haren "cogitatio"-tik banatzen edo abstraitzen saiatzen denak, hau lan erraza ez dela eridengo duela.

99. Era berean, hedadura eta higidura beste nolakotasunetatik abstraitzen eta eurenez soilik kontutan hartzen saiatzen garenean, behingoan galtzen ditugu bistatik eta nabarmenkeria handietan erortzen gara. Eta hau guztiau abstrakzio bikoitzetik dator: lehenengo eta behin suposatzen da hedadura, esate baterako, abstrai daitekeela beste nolakotasun sentigarri guztietatik; bigarren, hedaduraren entitatea abstrai daitekeela berau hautemana izatetik. Baina gogoeta egin eta zer dioen ulertzeko ardura har dezan edozeinek aitortuko du, oker ez banago, nolakotasun sentigarri guztiak direla berdinki "zentsazio" eta berdinki "erreal"; hedadura dagoen tokian hantxe dagoela kolorea ere, hots, bere adimenduan, eta beraien arketipoak beste "adimenduren" batean bakarrik existi daitezkeela; eta zentzuen hautemangaiak ez direla zentsazio konbinatu, elkartu edo (horrela hitz egiterik badago) batera ormigoituak besterik, eta hauetako batik ere ezin suposa daiteke hautemana izan barik existitzen denik.

100. Mundu guztiak pentsa dezake berak badakiela zer den zoriontasuna gizonarentzat edo gauza on bat zer den. Baina "zoriontasunaren" ideia bat eratzea, plazer partikular oro albo batera utzita, edo "ontasunarena", gutxik esan dezakete lortzen dutela. Era berean gizon bat zuzena eta bertutetsua izan daiteke "zuzentasunaren" eta "bertutearen" ideia zehatzegirik ukan gabe. Hitz horiek eta horietakoek pertsona edo ekintza partikular orotatik bananduriko nozio orokorrak adierazten dituztela baieztan duen eritziak, badirudi zail bihurtu duela moralitasuna eta probetxu urriko beronen estudioa. Egin ere ez die azpijana makala egin "abstrakzioaren" doktrinak ezagutzaren adar emankorrenei.

101. Zentzuen bidez jasotako ideiez eta berauen arteko erlazioez ari diren zientzia teoretikoaren alor nagusi biak "natur filosofia" eta "matematikak" dira; bioi buruzko zenbait ohar egingo ditut. Eta lehenengo natur filosofiaz esango dut zertxobait. "Eskeptikoak" garaile ateratzen diren gaia da hau: gure ahalmenak gutxiesteko eta gizateria ezjakin eta doilor agertarazteko berauek asmatzen duten argudio piloa honako ideia nagusi honetatik dator batipat, hots, gauzen izaera "benetako" eta "errealari" buruz itsutasun gaindiezinean bizi garela. Hau haiek gehiegitu egiten dute eta ez titan ibiltzen dira handiagotzen. Gure zentzuak irri eta barreka ari zaizkigu eta gauzen azal eta itxura hutsean entreteniturik gauzkate. Objekturik ñimiñoenaren esentzia erreala, barneko nolakotasunak eta konstituzioa, ezkutatu egiten zaigu bistatik: ur-tanta bakoitzean, hondar-garau bakoitzean, gure ezagumenaren irizpidetik eta ulerbideetik at dagoen zerbait dago. Baina azaldua denetik ebidenteki ateratzen da erostok ez dutela inondiko oinarririk, eta printzipio faltsuen eraginpean gaudela halako moldez, non zentzuez mesfidatu eta hain ondo ezagutzen ditugun gauzen inolako ezagutzarik ez dugula uste baitugu.

102. Gauzen izaeraren ezagupiderik ez daukagula deklaratzeko zio bat, arrunt den eritzi hauxe da, gauza bakoitzak bere barnean gordetzen duela bere propietateen kausa: edo objektu bakoitzean barne-esentzia bat dagoela, haren nolakotasun bereizgarrien iturri dena, beroni darizkiolarik eta beronen mende daudelarik. Antzirudiak nolakotasun gordeen bidez azaltzen saiatu izan dira batzuk, baina oraintsu oraindik, partikula

sentigaitzen kausa mekaniko hutsetara jo da, hala nola, figura, higidura, pisu eta horietarikoetara; egiatan, ordea, ez dagoen arren "izpiritua" baino beste eragile edo kausa erazlerik, zeren begi bistakoa baita higidura, gainerako "ideia" guztiak bezalaxe, erabat inerte dela. Ikus 25. atala. Eta hemendik ateratzen da, koloreen edo hotsen sorketa figuratik, higiduratik, tamainutik... azaldu nahian ibiltzea alferreko lana dela ezinbestez. Eta honen arabera, ikusten dugu horrelako saiakerak ez direla inola ere gogo-asegarriak. Hauxe bera esan daiteke, eskuarki, ideia edo nolakotasun bat beste baten kausatzat jartzen den kasu guztiei buruz. Ez dut esan beharrik zenbat "hipotesi" eta espekulazio utzi diren kanpo, eta zenbat laburtu den naturaren estudioa doktrina honi esker.

103. Orain modan dagoen printzipio mekaniko nagusia "erakarpena" da. Harri bat lurrera jaustea, edo itsasoa ilargirantz hanpatzea, printzipio honen bidez aski azaldutzat jo dezakete batzuek. Baina, zein zentzutan argitzen zaigu ezer, hau erakarmenaren eraginez gertatzen dela esaten zaigunean? Hitz honek joeraren modua eta hau gorputzen elkarrekiko tirarengatik gertatzen dela adierazten al du, bata besterantz bultzatuak edo jaurtikiak izan beharrean? Baina ez da ezer zehazten moduari edo ekintzari buruz, eta (dakigunetik) "bultzada" edo "jaurtiketa" ere dei dakioke "erakarpena" esaten zaion moduan eta doitasun berdinez. Gainera ikusten dugu altzairuaren zatiak kohesio handia dutela elkarrekiko eta hau ere erakarpenaren bidez azaltzen da; baina kasu honetan ere, besteetan bezalaxe, ez dut inondik ikusten efektuaz aparte ezer besterik adierazten denik; zeren, sortarazten duen ekintzaren modua edo kausa azaltzea jopuntutzat ere ez baita hartzen.

104. Egia esateko, "phaenomena" ezberdinak aztertu eta elkarrekin gonbaratzen baditugu, euren artean nolabaiteko antzekotasuna eta adostasuna daukatela kontura gaitezke. Adibidez, harri bat lurrera erortzean, itsasoa ilargirantz altxatzean, kohesioan eta kristalizazioan, antzeko zerbait dago, hau da, gorputzen elkartze edo elkarrekiko hurreratzea. Halako moldez, non Naturako efektuak kontuz erreparatu eta gonbaratu dituen pertsonari ez baitzaio horrelako edo antzeko "fenomenorik" estrainio edo txundigarri irudituko. Zeren arrunta ez dena edo berez dena eta gure oharbidetik kanpo dagoena bakarrik hartzen da horrela. Gorputzek lurraren erdigunerako joera izatea ez zaigu arraro egiten, hauxe baita bizitzako une orotan hautematen duguna. Baina holako grabitapena izatea ilargiaren erdigunerantz, estrainio eta ulertezin gerta dakioke gizon askori, mareetan bakarrik soma baitaiteke. Baina filosofo batek, bere pentsamenduek Naturaren eremu zabalagoa hartzen dutenez, antzirudietan nolabaiteko antzekotasuna erreparatzean, hala zeruan nola lurrean, antzekotasun honek adierazten duelarik kontatu ezin ahala gorputzek duela berak "erakarpena" hitz orokorraz izendatzen duen elkarretarantzko joera, uste du honetara bil daitekeen guztia azalduta dagoela beste barik. Horrela mareak, lurgloboak ilargirantz duen erakarpenaz esplikatzen ditu, ez zaiolarik hau estrainio edo anormal iruditzen, Naturaren arau orokor edo legearen exenplu konkretu bat baizik.

105. Hala ere, "phaenomena"-en ezagupen kontuan natur filosofoen eta beste gizonen artean dagoen aldea aztertzen badugu, kausituko dugu aldea ez datzala berauek eragiten dituen kausa erazlearen ezagupen zehatzagoan, hau ezin baita "izpiritu baten nahia" besterik izan, baizik eta ulerpen zabalago batean, zeinari esker Naturaren lanetan analogiak, harmoniak eta adostasunak aurkitzen eta efektu konkretuak esplikatzen baitira, hau da, arau orokorretara biltzen baitira; ikus 62. atala. Natur efektuen sorkuntzan ohartematen den analogia eta uniformetasunean oinarritzen diren arauok atseginagoak eta adimenak bilatuagoak dira, zeren hedatu egiten baitute gure ikusmena orain eta hurbil daukagunetik harat, aierupenak, daitezkeenak oso, egiteko ahalbidea luzatuz denbora eta leku-distantzia arras handira gertaturiko gauzei buruz, eta zer gerta

datekeen auresateko modua ere eskainiz; orojakiteranzko joera duen saialdi hau maite-maite duelarik adimenak.

106. Baina kontuz jokatu beharra daukagu honelako gauzetan, aiher baikara analogiei garrantzi handiegia ematera eta, egiaren kaltetan, adimenak bere ezagutza printzipio orokorretara hedatzera duen jaidurari amore ematera. Adibidez, grabitazioa, edo elkarrerakarpina: kasu anitzetan ageri delako, askok, besterik gabe, "unibertsaltzat" dauka, eta "erakartzea eta beste gorputzek erakarria izatea gorputz orori datxekion tasuna dela" baieztatzen dute. Baina, hala ere, izar tinkoek ez dute joera hori elkarrekiko; eta hain urrun dago batzuetan grabitazioa gorputzen propietate esentziala izatetik, non badirudien aurkako printzipioa agertzen zaigula, landereen hazkunde perpendikularrean eta airearen elastizitatean, esate baterako. Ez dago ezer beharrezko edo esentzialik kontu honetan, fenomeno hau, aitzitik, "governatzen duen Izpiritu" baten nahimenaren menpean baitago zeharo, honexek egiten duelarik gorputz batzuk elkarri atxekitzea edo elkarretarako joera izatea, eta beste batzuei aurrekoaren erabat aurkakoa den joera ezartzea, elkarretatik urruntzekoa, alegia, komenigarri deritzon legez.

107. Jarri ditugun premisen ondorioz, uste dut atera daitezkeela honako konklusio hauek. Lehenik, argi dago filosofoak beren buruak entretenitzen ari direla, "adimen" edo "izpiritu" ez den kausa erazleren bat bilatzen dihardutenean. Bigarrenik, kreazio guztia "egile jakitun eta on" baten obra dela kontutan izanik, egokitza edukitzekoa litzateke filosofoek -batzuek uste dutenaz bestera- kausa xedezkoei buruz pentsatzeari ekitea, eta aitortu beharra dut ez dakidala zergatik ezin hartu den gauzen xede ezberdinak seinalatzea, gauzak esplikatzeke prozedura ontzat eta filosofoaren lan erabat duintzat, xedeotara egokitzen baitira gauzak, berauotarako asmatuak izan direlarik hasiera-hasieratik jakituria adierazkaitaz. Hirugarrenik, jarritako premisetatik ezin da ondorioztatu inolako arrazoirik Naturaren historia aztertu beharrik ez dagoela esan ahal izateko eta behaketarik eta esperimenterik ez egiteko, berauek, hala ere, gizateriarentzak baliagarri eta zenbait konklusio orokor ateratzeko bide izanik ere, ez ditugularik izaera aldaezin baten ondorio, ezta gauzen euren arteko erlazioarena ere, baizik eta mundua gobernatzean Jainkoak duen ontasun eta gizakiarenganako maitasunaren fruitu soilik. Ikus 30 eta 31 atalak. Laugarrenik, bistara ageri zaizkigun "fenomenoei" arduratsuki ohartemanenez, naturaren lege orokorrak aurkitu ahal ditugu, eta eurotan oinarrituz beste "fenomenoak" deduzitu. Ez diot "demostratu", zeren mota honetako demostrazio guztiek ezinbestez suposatzen baitute Naturaren Egileak, guk uniformeki eta printzipiotzat hartzen ditugun arauok -ezagutu ezin ditugunak, jakina- betez jokatzen duela beti.

108. "Fenomenoetatik" arau orokorrak atera eta gero arauotatik "fenomenoak" inferitzen dituzten pertsonak, zeinuz ari direla ematen dute, kausez baino areago. Pertsona batek ondo ezagut ditzake zeinu naturalak euren analogia ezagutu barik, edo gauza bat zein arauen eraginez den horrelakoa edo halakoa esateko gauza izan barik. Eta, nola gramatikako arau orokorrak hertsiki betez ere desgokiro idatz daitekeen, halaxe, Naturaren lege orokorrak oinarritzat hartuta argudiatzean, ez da ezinezko geuk ere analogia urrunegira eramatea eta bide horretatik errakuntzetan erortzea.

109. Nola gizon jakintsu bat, beste liburu batzuk irakurtzean, bere gogoetak, hizkuntzari buruzko oharra azpimarratzen baino areago, esanguran finkatzen eta probetxuzko den zerbaitetarako erabiltzen saiatuko den, halaxe Naturako liburua irakurtzean ere, ematen du adimenduaren duintasunaren azpitik jokatzea litzatekeela zehaztasun osoa nahi izatea, fenomeno partikular bakoitza arau orokorretara murriztu eta hura hauetatik datorrela erakustean. Goragoko egitekoak proposatu behar genizkioke geure buruari, hala nola, gauza naturalen edertasun, ordena, hedapen eta barietatearen kontenplazioaz

geure adimenak laketu eta goratzea; eta hemendik abiatuta, inferentzia egokiak eginez, Kreatzailearen handitasun, jakituria eta ongiletasunari buruzko geure nozioak zabalagotzea; eta azkenez, ahal dugun neurrian, Kreazioaren zati ezberdinak zertarako eginak izan ziren hartarakoxe balio dezaten egitea, hots, Jainkoaren aintzarako eta geure eta lagunurkoaren mantenu eta erosotasunerako.

110. Erraz aitortuko da aurreko analogiaren, edo natur zientziaren, giltzarik onena "Mekanikako" tratatu ospetsu bat dela¹⁰. Arrazoiz miretsia den tratatu honen hasieran, espazio eta mugimenduan honako bereizketa hauek egiten dira, hots, "absolutua" eta "erlatiboa", "egiazkoa" eta "itxurazkoa", "matematikoa" eta "arrunta"; autoreak zabalki azaltzen duen bereizketa honek suposatu ere kantitate horiek adimendua gabe dutela existentzia suposatzen du, eta sentitzen diren gauzekiko erlazioan bururatzen direla, nahiz eta euren izaeran inondiko erlazorik izan ez.

111. "Denborari" dagokionez, han zentzu absolutu edo abstraktuan hartzen denez gauzek existentzian irautea edo mantentzea, ez daukat ezer gehitzekorik honi buruz 97 eta 98 "ataletan" esandakoari. Gainerakoari buruz, autore ospetsu honek "espazio absolutu" bat dagoela sostengatzen du, zentzuek hautemanezina izan arren beti berdin eta aldaezin dirauena, eta espazio erlatiboa haren neurria dela, eta hau mugikorra eta sentitzen diren gorputzekiko posizioak definitua izanik, espazio mugiezintzat hartua dela arruntki. "Lekua" gorputz batek betetzen duen espazioaren zati definitzen du; eta espazioa absolutua ala erlatiboa den heinean, halaxe da lekua ere. Esan ohi da "mugimendu absolutua" gorputz baten lekualdaketa dela leku absolutu batetik beste leku absolutu batera, mugimendu erlatiboa lekualdaketa bera den bezala, baina leku erlatibo batetik bestera. Eta espazio absolutuaren zatiak gure zentzuen irizpidean ez daudenez, euren orde zentzu neurri sentigarriak erabiltzera beharturik aurkitzen gara, eta horrela lekua eta mugiezintzat ditugun beste gorputz batzuekiko mugimendua batera definitzen ditugu. Baina esan ohi da filosofian sujetetan abstrakzioa egin behar dugula geure zentzuetatik, gerta baitaiteke geldirik daudela ematen duten gorputz horietatik bat bera ere ez egotea geldirik, eta erlatiboki higitzen ari den gauza bera ere zirkular egin gabe egotea. Era berean gorputz bat bera geldirik eta mugimendu erlatiboan egon daiteke, eta are higidura erlatibo aurkakoez aldi berean mugitu ere bai, segun eta lekua modu batera edo bestera definitzen den. Anbiguotasun guzti hau itxurazko mugimenduetan aurki daiteke, aurkitu, baina inola ez egiazkoetan edo mugimendu absolutuetan, berauek izanik, beraz, filosofian kontutan hartu beharreko bakarrak. Esan ohi zaigu, egiazko mugimenduak itxurazkoetatik edo mugimendu erlatiboetatik ondoko propietateengatik bereizten direla. Lehenik, mugimendu egiazko edo absolutuan, osoarekiko posizio berean mantentzen diren zati guztiak osoaren mugimenduen partaide dira. Bigarrenik, lekua mugitzean, bertan dagoen guztia ere mugitu egiten da, halako moldez non mugimenduan ari den leku batean mugitzen den gorputza bere lekuaren mugimenduaren partaide baita. Hirugarrenik, egiazko mugimendua ez da inoiz sortzen ez aldatzen, gorputzean bertan inprimatua den indarren baten eraginez izan ezik. Laugarrenik, egiazko mugimendua gorputz mugituan inprimaturiko indarren baten eraginez aldarazten da beti. Bostgarrenik, mugimendu zirkular erlatibo hutsean ez dago indar zentrifugorik, baina egiazko edo absolutuan mugimendu-kantitatearekiko proportzionala da indar hori.

112. Baina esan den guztia kontutan hartuta ere, ez dut uste "erlatiboa" baino beste mugimendurik izan daitekeenik; halako moldez non, mugimendua bururatzeko, gorputz bi gutxienez bururatu beharra baitago, elkarrekiko distantzia edo posizioa aldatzen delarik. Horregatik gorputz bat bakarrik existituko balitz, ezingo litzateke agian higitu. Honek begien bistako dirudi, mugimenduaz dudak ideiak nahitaez baitauka erlazioa bere baitan.

113. Baina, mugimendu orotan gorputz bat baino gehiago bururatu beharra badago ere, gerta daiteke bat bakarrik mugitzea, hots, distantzi aldaketa kausatzen duen indarra inprimatzen zaion hura, edo, bestela esanda, eragina aplikatzen zaion hura. Zeren, nahiz eta batzuek mugimendu erlatiboa defini dezaketen halako moldez non gorputz "mugitua", beste gorputzen batekiko duen distantzia aldatzen duenari deitzen dioten, hala aldaketa horren indar edo eragin kausatzailea aplikatzen bazaio nola ez bazaio, hala ere, mugimendu erlatiboa zentzuez hautematen dena eta bizimoduko afer arruntetan kontutan hartzen dena izanik, badirudi sen komuna duen edozein gizonek dakiela zer den berau, filosoforik onenak bezalaxe. Orain nik edozeini galdetzen diot ea, berak duen mugimendua ulertzeko moduaren arabera, esaterik dagoen kalean zehar dabilenean pasatzen dituen harriak "mugitu" egiten direla, beraren oinekiko duten distantzia aldatzen dutelako. Nik uste dut, mugimenduak gauza baten bestearekiko erlazioa bere baitan duen arren, ez dela beharrezko erlazioaren termino bakoitza hartatik izendatzea. Nola gizon batek pentsa dezakeen pentsatzen ez duen gauza batez, halaxe gorputz bat ere hurbil edo urrun daiteke mugitzen ari ez den beste batetik.

114. Lekua modu ezberdinez definitzen denez, berarekin erlazonaturik dagoen mugimendua aldatu egiten da. Untzi batean doan gizona esan daiteke geldirik dagoela, untzia karelekiko, eta hala ere mugitzen ari da lehorrarekiko. Edo ekialderantz mugi daiteke batarekiko eta mendebalderantz bestearekiko. Bizimoduko kontu arruntetan, gizonek inoiz ez dira joaten lurraz harago gorputz baten lekua definitzeko; eta beronekiko geldirik dagoena, "absolutuki" dagoela horrela uste da. Baina pentsamenduzko luze-zabaltasun handiagoa eta gauzen sistemari buruzko nozio zehatzagoak dauzkaten filosofoek, aurkitzen dute lurra bera ere mugitu egiten dela. Horregatik, beren nozioak finkatzeko, badirudi finitu moduan bururatzen dutela gorputzun mundua eta beronen azken horma mugiezinak edo gainazala bailiren benetako mugimenduak aintzatesteko lekua. Geure ezagupenak sakonduko bagenu, sakondu, uste dut konturatuko ginatekeela ideietara ekar genezakeen mugimendu absolutu guztia ez dela azken batez horrelaxe definituriko mugimendu erlatiboa besterik. Zeren, esana dugunez, mugimendu absolutua, kanpo-erlazio oroz gabetua, ulertezina baita; eta, oker ez banago, aurkituko da mota honetako mugimendu erlatiboari, arestian aipatu ditugun mugimendu absolutuari iratxekitako propietate, kausa eta efektu guztiak dagozkiola. Indar zentrifugoaz esandakoari dagokionez, hots, inola ere ez dela berau mugimendu zirkular erlatiboarena, ez dut ikusten nola ateratzen den hau frogatzeko ekarritako esperimendutik. Ikus "*Philosophiae Naturalis principia Mathematica*, in Schol. Def. VIII". Eta ontziko urari buruz pentsatzen dut, mugimendu zirkular erlatibo handiena omen duen momentuan, ez duela inolako mugimendurik, aurreko ataletik argi geratu den moduan.

115. Zeren, gorputz bat "mugitu" egiten dela esateko, behar baita, lehenengo, honek bere distantzia edo posizioa aldatzea beste gorputzen batekiko; eta bigarren, aldaketa hau kausatzen duen indarra edo eragina berari aplikatzea. Baldintza biotarik bata falta bada, ez dut uste esan daitekeenik gizateriaren sentikeraren edo hizkuntzaren propietasunaren arabera gorputza mugitzen ari denik. Onartzen dut, onartu, pentsa dezakegula beste gorputz batetik distantzia aldatzen ikusten dugun gorputza mugitu egiten dela, indarrrik aplikatu ez zaion arren ere (zentzu honetan itxurazko mugimendua gerta daiteke), baina, orduan, zera pentsatzen dugulako da: mugitu egiten dela uste dugun gorputzari distantziaren aldaketa eragiten duen indarra aplikatzen edo inprimatzen zaiola. Honek erakusten digularik erratu egin gaitezkeela mugitzen ari ez den gauza bat badela ari pentsatzean, eta horixe da dena.¹¹

116. Esana denetik, ateratzen da gogoeta filosofikoak ez duela inplikitzen "espazio absolutu" bat dagoenik, zentzuek hautemanikotik diferentea eta gorputzekikoa: hau ezin

dela adimendua gabe existitu argi dago, zentzuen beste objektu guztiez ere berau berdin demostratzen duten printzipioen arabera. Eta agian, ikerketa hertsiki eginez gero, aurkituko dugu ezin dugula eratu ezta "espazio hutsaren" ideiarik ere, gorputz oro kenduta. Aitortu behar dut honek ezinezko dirudiela, ideia erabat abstraktua delako. Neure gorputzaren zati bat mugiarazten dudanean, libreki edo oztoporik gabe gertatzen bada, "espazioa" dagoela esaten dut; baina oztoporik aurkitzean, "gorputzen" bat dagoela esaten dut; eta mugimenduarekiko oztopoa handiagoa edo txikiagoa den heinean, "espazioa" "hutsagoa" edo ez hain "hutsa" dela esaten dut. Horregatik espazio hutsaz edo hutsaz ari naizenean, ez da suposatu behar "espazio" hitzak irudikatzen duenik gorputza eta mugimendutik diferentea den edo hauek barik burura daitekeen ezer. Nahiz eta gai garen, izan, pentsatzeko izen substantibo bakoitzak ideia diferente bat, beste guztietatik bereiz daitekeena, irudikatzen duela, honek errakuntza pila bat ekarri du. Horregatik, mundu guztia zatekeela deuseztua suposatuta ere, neure gorputza salbu, orduantxe ere baieztatuko nuke "espazio hutsak" iraun egingo lukeela; honekin haxe besterik ez da esan nahi: litekeentzat daukadala nire gorputz-atalak norabide guztietara mugitzea, oztoporik txikienik ere topatu gabe. Baina nire gorputza ere deuseztua balitz, orduan ezingo luke mugimendurik izan eta ondorioz espaziorik ere ez. Agian batzuek uste dukete ikusmenak erraztu egiten diela espazio hutsaren ideia. Baina beste leku baten erakutsitakotik argiro deduzitzen da espazioaren eta distantziaren ideiak ez direla zentzuez erdiesten. Ikus "Essay concerning Vision".

117. Hemen zutik utzi denak, badirudi amaiera damaiela "espazio hutsaren" izaerari buruz ikasien artean sortu izan diren eztabaida eta zailtasun guztiei. Baina hemendik datorren abantailarik handiena, libre geratzen garela da beren pentsamenduak gai honi emanak ukan zituzten batzuen "dilema arriskutsutik", esan nahi baita, pentsatzea ala benetako espazioa Jainkoa dela, ala Jainkoaz aparte, beste zerbait ere badagoela, eternala, kreagabea, mugagabea, banaezina eta aldaezina dena. Gauza biok dira nozio galgarri eta absurdutzat hargarriak bidezki. Egia da teologo ez gutxik, eta izen handiko filosofoek ere, espazioaren edo limiteak edo deuseztapena bururatzen aurkituriko zailtasunengatik, "jainkozkoa" behar zuela izan konkluditu dutela. Eta batzuk azkenaldi honetan bereziki dedikatu izan dira Jainkoaren atributu komunikaeezinak espazioarekin ados datozela demostratzera. Doktrina hau, Jainkoaren izaerarekiko desegokitasun handikotzat eduki arren, ez dut ikusten nola astin genezakeen aldetik, onarturiko doktrinekin ados egon gaitezen bitartean.

118. Honaino filosofia naturalari dagokiona: orain ezagutza espekulatiboaren beste adar handi horri buruz, hots, matematikei buruz zerbait ikertzera joko dugu. Berauok, alabantzarik asko hartzen badute ere beren demostrazioen argitasun eta ziurtasunarengatik, horrelakorik beste inon ere nekez aurki daitekeelarik, ezin jo dira, hala ere, erabat erroretik salbutzat, beren printzipioetan zientzia honetako irakasleek gainerako gizonekin konpartitzen duten errore sekreturen bat gordetzen bada. Matematikariek, beren teoremak goi-mailako ebidentziatik deduzitzen badituzte ere, mugaturik daude, kantitatea baitute ikergai, eta ez dute gorago jotzen zientzia partikular guztietan eragina duten printzipio transzendentalei buruz ikerketa egitera; zientzietako atal bakoitzak, beraz, matematikak kanpo utzi gabe, haietan diren erroreen partaide dira. Ez dugu ukatzen matematikariek ezarritako printzipioak egiazkoak direnik, ezta printzipio horretatik deduzitzeko era argia eta ihardeskaitza denik ere. Baina mantzentzen dugu matematiken gaia baino hedadura handiagoko printzipio okerrak egon daitezkeela, eta horrexegatik espresuki aipatzen ez direnak, zientzia haren garapen osoan zehar tazituki suposatzen badira ere; eta errore sekretu horien efektu galgarri aztergeak haren adar guztietan zehar barreiatzen dira. Argi eta garbi esateko, susmatzen dugu matematikariek ere, beste askok moduan, beren partaidetza dutela ideia orokor

abstraktuen eta adimendutik kanpoko ideien existentziaren doktrinatik sorturiko erroreetan.

119. Uste izan da "aritmetikak" "zenbakiaren" ideia abstraktuak dituela aztergai. Berauen propietateak eta elkarrekiko erlazioak ulertzea, ezagutza espekulatiboaren zati dextente bat dela suposatzen da. Zenbakiak abstraktuki izaera garbi eta endeleguzkoa dutela uste izateak, pentsamenduzko fintasun eta altuera ezohizkoa duten filosofoek estimu handitan berauok izatea ekarri du. Prezioa jarri izan zaie zenbaki-espekulazio arruntenei, praktikarako inondiko emendiorik ez badute ere, entretenigarritzat besterik; eta, hala ere, hain gradutaraino gaizkoatu ditu batzuen adimenduak, non zenbakietan gordetako misterio handiez amets egin eta gauza naturalak berauen bidez esplikatzen saiatu baitira. Baina, geure pentsamenduak ikertu eta premisa moduan jarri dena kontutan badugu, goi-hegaldi eta abstrakzioon eritzi kaxkarra izango dugu agian, eta zenbakiakiko ikerketak beste hainbat "difficiles nugae"-tzat hartuko, praktikarako emendio gabeak eta bizitzako ongizatea sustatzen ez dutenak direnez.

120. Unitatea abstraktuan lehen, 13. atalean, aztertua dugu; bertatik eta Sarreran esana dugunetik, argi deduzitzen da horrelako ideiarik ez dela existitzen. Baina, zenbakia "unitate-multzo" definitzen denez, konkluditu ahal izango dugu, unitatea edo bata abstraktuan ez bada existitzen, zenbakien izenek edo zifrek irudikatzen dituzten zenbakiak abstraktuan ere ez direla existitzen. Aritmetikako teoriek, beraz, izenetatik eta zifretatik, emendio eta izaera praktikoro orotik bezalaxe, eta zenbakia daramaten gauza partikularretatik abstraitzen badira, suposa daiteke ez daukatela inongo eginkizunik. Hemendik ikus dezakegu, zeinen osoro dagoen zenbakien zientzia praktikaren mendean eta zein pobre eta kaxkar den espekulazio hutseko kontutzat hartzen denean.

121. Hala ere, badaitekeenez batzuk, egia abstraktuak aurkitzeko irudikeriak atzipeturik, inondiko emendiorik ez duten teorema eta problema aritmetikoetan denbora galtzen ari izatea, ez litzateke desegoki azterketa zabalagoari ekitea eta nahikeria horren hutsa azaltzea; eta hau argi agertuko da aritmetikari bere garapeneko lehen mailan begitu bat emanez eta ikusiz zerk eraman zituen hasieran gizonak zientzia hau ikastera eta zein xedetara zuzendu zuten. Naturala da pentsatzea gizonak, hasieran, memoriari lagundu eta kalkulua errazteko, fitxak erabili zituztela eta idatzi orduan marraz, puntuz edo antzerako zeinuz baliatu zirela, eurotako bakoitzari unitatearen esangura emanez, hots, kontatu nahi zuten generoko gauza batena. Gero zenbait marra edo puntu ordeztzeko modu laburragoak aurkitu zituzten. Eta, azkenez, arabiarren edo hinduen zenbakitzeko sistema erabili zen, beronetan, zeinu edo zifra gutxi batzuk errepikatuz eta dagoen lekuaren arabera zifra bakoitzaren esanahia aldatuz, egokiroago adieraz daitezkeelarik zenbaki guztiak. Badirudi hau hizkuntza imitatuz egin zela, analogia handia hautematen baita zifren bidezko notazioaren eta izenen bidezkoaren artean: bederatzi zifra sinpleek, zenbakien lehenengo bederatzi izenei erantzungo liekete, eta zifrei lehenengo notazioan emandako lekuak bigarreneko izendapenei dagozkienak izanik. Eta, zifren balio sinple eta lekukoaren baldintza hauen arabera, metodoak asmatu ziren, emandako zifra edo parteen zeinuetatik aurkitzeko zeintzuk zifra eta zein lekutan jarrita ziren aproposagoak guztirakoa adierazteko edo "vice versa". Eta bilaturiko zifrak aurkitu ondoren, arau edo analogia berari jarraikiz beti, erraz da hitzetan irakurtzea, eta horrela zenbakia oso ondo ezagutzera iristen da. Zeren esaten baita gauza partikular baten zenbakia ezagutzen dugula, indarreango analogiaren arabera dagozkion izena edo zifrak (behar den ordenan) ezagutzen ditugunean. Zeren behin zeinuok ezagutuz gero, aritmetikako eragiketen bidez, ezagut ditzakegu berauek adierazten dituzten batura partikularren edozein zatiren zeinuak ere; eta horrela, zeinuekin kalkulatz (zeinuon eta gauza pila ezberdinen artean ezarritako konexioarengatik, gauzotako bat unitatetzat hartzen

delarik), gai izan gaitezke batzeko, zatikatzeko eta zenbakitu nahi ditugun gauzen arteko proportzioak ezartzeko.

122. "Aritmetikan", beraz, ez ditugu "gauzak" kontutan hartzen, "zeinuak" baizik, hauek, hala ere, ez direlarik eurenez kontutan hartzen, gauzekiko nola jokatu eta berauok nola zuzen erabili adierazten digutelako baizik. Orain, aurrerago hitzei buruz orokorrean esandakoaren arabera ("Sarrera. 19 Sekzioa"), hemen ere gauza bera gertatzen da, hots, ideia abstraktuak zenbaki-izen edo zifrez adierazten direla pentsatzen da, gure adimenduari gauza partikularren ideiarik iradokitzen ez dien bitartean. Ez naiz orain sartuko gai honi buruzko solasaldi zehatzagoan. Bakarrik ohartarazi, esan denetik begi bistakoa dela egia abstraktutzat eta zenbakiei dagozkien teorematzat aurkezten diren gauza horiek, gauza partikular zenbagarriei dagozkiela, izenen eta zifren salbuespen bakarrarekin; hasieran, hauek, "zeinuak" zirelako ez beste ezerengatik hartu ziren kontutan, hots, gai zirelako gizonek kalkulatu behar zuten edozein gauza partikular egokiro irudikatzeko. Hemendik ateratzen da zeinuak eurenez estudiatzea hain zentzudun eta egoki litzatekeela, nola gizon batek, hizkuntzaren egiazko erabilpen eta jatorrizko xedea ahaztuz, hitzei buruzko kritika absurduetan eta hitz hutsezko eztabaidetan bere denbora alferrik galduko balu bezala.

123. Zenbakietatik "hedaduraz" hitz egitera pasako gara, zeina, erlatibotzat hartuta, geometriaren aztergai baita. Hedadura "finituaren" zatikagarritasun "infinitua", zientzia horren elementuetan axioma edo teorema bezala espresuki ezarria ez bada ere, hala ere, suposatutzat jotzen da zientzia guzti horretan zehar, eta hain lotura askaezina eta esentziala duela uste da geometriaren printzipio eta demostrazioekin, non matematikariek ez duten zalantza ere jartzen eta are gutxiago kuestionatzen. Eta nozio hauxe denez geometriaren paradoxa entretenigarri guzti horien iturri, gizateriaren sen komun arruntaren hain zuzenean aurkako direnak berauek, eta ikasketek alferrik galdu gabeko adimenduek hain erreparatu handiz hartzen dituenak, honexek dakar berau izatea "matematiken" ikasketa hain zail eta gogaikarri bihurtzen duen gehiegizko xotiltasun bitxi horren kausa. Horregatik, gai baldin bagara erakusteko ezein hedadura finituk ez daukala kontatu ezin ahala zatirik, eta ez dela mugagabeki zatikagarria, hemendik etorriko da geometriako zientzia, giza arrazoimenarenganako destainatzat beti hartu izan diren zailtasun eta kontraesan askotik libre utziko dugula, eta honekin batera lortuko dugula orain arte izan den baino denbora eta zailtasun gutxiagoko kontua izatea hura menderatzea.

124. Gure pentsamenduaren aztergai izan daitekeen hedadura finitu oro, adimenduan bakarrik existitzen den "idea" da, eta, ondorioz, beraren zati bakoitzak izan behar du hautemana. Beraz, ezin hauteman badut kontatu ezin ahala zati, pentsagai darabildan edozein hedadura finitutan, ziur ez daudena berorren baitan; baina begi bistakoa da ezin bereizi dudala kontatu ezin ahala zati zentzuez hauteman edo adimenduan irudikatzen dudana lerro, hedadura edo solidu partikular batean; eta horregatik konkluditzen dut ez daudela berorien baitan. Ezer ez da nire usterako argiago, pentsagaitzat hartzen ditudan hedadurak neure ideiak besterik ez direla baino, eta ez da hau baino ilunago nire ideia bat bera ere ezin deskonposatu dudala kontatu ezin ahala zatitan, hau da, ez direla mugagabeki zatikagarriak. "Hedadura finitutzat" ideia finitutik diferentea den zerbait ulertzen bada, deklaratu beharra dut ez dakidala zer den hori, eta horregatik ezin dut berari buruz ezer baieztatu ez ukatu. Baina "hedadura", "zatiak" eta beste terminoak pentsa daitezkeen zentzuan hartzen badira, hau da, ideia moduan, orduan hedadura finitu bat zati-kopuru infinituak osotua dela baieztatzea hain kontraesan nabaria da, ezen edonork aitortuko duen baietz, kontraesana dela. Eta ezinezko litzateke izaki arrazonararen onarpena egundo lortzea, horretara pausuka poliki eta astiro eramana izan ezik, konbertsiora etorritako sinesgabe bat "transubstantziazioan" sinestera

bezalaxe. Maiz aurreritzi zahar eta errotuak printzipio bilakatzen dira, eta behin proposiziook "printzipio" baten indarra eta sinesgarritasuna erdiesten dutenean, ez beraiek bakarrik, beraietatik deduzituriko beste edozein ere berdin, azterketa orotatik salbuetsitzat jotzen dira. Eta, horrelako prozeduraz, ez dago absurdurik gizonen adimendua irensteko prest ez dagoenik, den handiena dela ere.

125. Endelegua ideia orokor abstraktuen doktrinaz beterik daukanari, sinestaraz dakioke hedadura, "abstraktuan" (zernahi uste izanik ere zentzuen ideiez) mugagabeki zatikagarria dela. Eta zentzuen ezagugaiak adimendua gabe existitzen direla uste duena, agian honexen eraginez, iritsiko da onartzero hatzbete besterik ez duen lerro batek benetan existitzen diren ezin kontatu ahala puntu eduki ditzakeela bere baitan, txikiegiak izan arren bereizi ahal izateko. Errore hauek grabaturik daude "geometrarrien" adimenduetan, beste gizonenetan bezalaxe, eta antzerako eragina dute beraien arrazonamenduetan. Eta ez legoke zail erakusten hedaduraren mugagabeko zatikagarritasuna defendatzeko erabiltzen diren argudioek berautan dutela oinarria. Orain, matematikariek doktrina honekiko duten zaletasuna eta atxekitasuna nondik sortua den aztertuko dugu soilik.

126. Ikusia dugu beste leku batean geometriako teoremak eta demostrazioak ideia unibertsalez ari direla. "Sarrera. 15 sekz." Han dugu azaldua zernolako zentzuan ulertu behar den hau, hots, lerro partikularrek eta diagraman barnesarturiko figurek suposatzen dela beste kontatu ezin ahala tamainu diferenteko figura irudikatzen dutela; edo, bestela esanda, geometrak berauen magnitudea albo batera utzita hartzen dituela, honek ez duelarik inplikutzen ideia abstraktua eratzen duenik, baizik eta ez duela kontutan hartzen nolakoa den magnitudea, txikia ala handia, zeren uste baitu hori berdin dela demostraziorako; honi darraikio diagramako lerro bakar bat hamar mila zati baleuka bezala hartu behar izatea, ez baita hartzen bera denez, unibertsala denez baizik; eta unibertsala esanahian bakarrik da, eta honexegatik irudikatzen ditu bera baino handiagoak diren kontatu ezin ahala lerro, berautan hamar mila zati bereizi daitezkeelarik, hatzbete baino handiagoa ez izanda ere. Horrela adierazitako lerroen propietateak zeinuari (figura arrunt baten bidez) transferitzen zaizkio; eta hortik pasatzen da, errorez, aipatu zeinuarenak, bere izaera propioan hartuta, direla uste izatera.

127. Ez dagoenez hain zati-kopuru handirik, kopuru handiagorik daukan lerrorik aurkitu ahal izatea ezinezko bihurtzeko modukorik, esan ohi da hatzbeteko lerroak eslei dakiokeen baino zati-kopuru handiagoa daukala. Hau egia da, ez hatzbeteari absolutuki hartuta dagokionez, berak adierazitako gauzei buruz baizik. Baina gizonen beren pentsamenduan bereizpen hori atxekitzen ez dutenez, paperean marraturiko lerrotxoak bere baitan kontatu ezin ahala zati dauzkala sinestera erortzen dira. Ez dago inon hatzbetearen hamar milarena bezalako zatia denik; baina bai badago "miliarekiko" edo "lurraren diametroarekiko", gauza biok direlarik hatzbete horrek adieraziak. Beraz, triangelu bat paperean marrazten dudanean eta adibidez hatzbete baino handiagoa ez den angelu bat "erradioa" dela suposatzen badut, hamar mila edo ehun mila zatitan edo hortik gora zatikatua kontsideratzen dut. Zeren, lerro honen hamar milarena bera ezer ez den arren, eta, ondorioz, ezetsgarria errore edo eragozpenik gabe, hala ere, marraturiko lerrook kopuru handiagoak adierazten dituzten zeinuak besterik ez direnez, "erradioa" hamar mila zatiz edo gehiagoz osatutzat hartu beharra dago, errore nabariak ekiditearren.

128. Esandakotik argi ateratzen da zergatik den beharrezko, edozein teorema bere erabileran unibertsala izatera irits dadin, paper batean marrazturiko lerroez hitzegitea eduki ez dauzkaten zatiak baleuzkate moduan. Hau egitean, arazoa zeharo aztertzen badugu, agian aurkituko dugu ezin dugula bururatu mila zatiz osotua edo zatikagarria

datekeen hatzbetea, baizik eta hatzbetea baino askoz handiagoa den eta hark irudikatzen duen lerroa. Eta, lerroa "mugagabeki zatikagarria" dela esaten dugunean, egiaz esaten ari garena zera dela, lerroa " mugagabeki handia" dela. Badirudi hementxe aztertu duguna dela hedadura finituaren zatikagarritasun infinitua geometrian beharrezkotzat jotzeko izan den kausa nagusia.

129. Pentsatzekoa litzateke, printzipio faltsu honetatik ernetako absurdu eta kontraesan ezberdinak, beronen kontrako beste hainbat demostraziotzat har zitezkeela. Baina, ez dakit zein logika moduren eraginez, sostengatzen da infinitutasunari dagozkion proposizioen kontrako "a posterioriko" frogak ez direla onargarriak. Ezinezko ez balu moduan adimendu infinituak berak ere kontraesanak kontziliatzea. Edo edozein gauza absurdu eta kontraesankorrek egiarekin lotura eduki ahal balu bezala edo hari erion. Baina asmo honen ahulezia kontutan har dezan edonork pentsatuko du adimenduaren nagitasunera egokitzeo asmatua dela, honek eskeptizismo nagitsuan atsedean hartu nahiago izan duelarik, beti egiazkotzat izan dituen printzipioen azterketa hertsia bide neketsutik jo baino.

130. Azkenaldion infinituari buruzko espekulazioak hain gora igon dira eta hain nozio estrainio bihurtu, non eskrupulu eta eztabaida makalak ez dituzten sortu gaur eguneko geometrien artean. Badira izen handiko batzuk, lerro finituak puska-kopuru infinituan zatika daitezkeela sostengatzeaz nahikotu barik, urrunago joan direnak zera mantenduz, infinitesimal horietako bakoitza ere mugagabeko puska edo bigarren mailako infinitesimal kopuruan dela azpizatikagarria eta horrela "ad infinitum". Hauek, diot, infinitesimalen infinitesimalen infinitesimalak daudela, azkenera inoiz heldu barik, baieztatzen dute. Eta horrela, berauen arabera, hatzbetek ez dauka soilik zati-kopuru infinitua, baizik eta mugagabeko zati-kopuruaren mugagabeko zati-kopuruaren "ad infinitum" mugagabeko zati kopurua. Beste batzuek sostengatzen dute lehenengo mailatik beherako infinitesimalak ez direla ezertxo ere, zeren arrazoiz uste baitute absurdua dela iruditzea badela hedaduraren kantitate positibo edo zati bat, mugagabeki biderkatua izanda ere, beti berdindu dezakeena emandako hedadurarik txikiena. Eta, bestalde, ez dirudi absurdutasun txikiagokoa pentsatzea erro positibo erreal baten karratua, kuboa edo beste potentzia positibo bat ez dela ezer berez, hauxe delarik lehen mailako infinitesimalak onartzen dituztenek sostengatu beharra dutena, hurrengo azpimailak ukatzean.

131. Ez al daukagu, beraz, arrazoirik esateko, "batzuk eta bestetzuk" erratuta daudela eta ez dela, izan, zati mugagabeki txikiak bezalako gauzarik, edo kantitate finitu batean barnesartutako amaigabeko zati-kopururik? Baina esango zaigu, doktrina hau ezartzen bada, geometriaren oinarri-oinarrien deuseztapena ekarriko duela eta zientzia hori hain garaiera harrigarria jaso duten gizon handi horiek gazteluak airean eraikitzen ari izan direla. Honi erantzun dakioke geometrian emendioa daukan eta giza bizimoduan ongizatea sustatzen duen guztiak tinko eta lokagaitz dirauela gure printzipioen arabera. Zientzia horrek, zientzia praktikoko denez kontutan izanda, kalteak barik abantailak jasoko ditu esana dugunetik. Baina hau behar bezain argiro jarrita uztea, beste ikerketa baten gaia izan daiteke. Bestelakoan, "matematika teorikoen" zati korapilatsu eta mehenak diren batzuk inautesta gertatuko balitz ere, ez dakusat, hala ere, zer kalte modu ekarriko liokeen honek gizateriari. Aitzitik, gura izatekoa litzateke oso, antze handietako eta etengabeko lanari emandako gizonen beren pentsamenduak entretenigarri horietatik aparta litzaten eta bizitzako interesetatik hurbilagokoak diren edo ohituretan eragin zuzenagoa duten gai-arazoen ikerketara dedika litezen.

132. Zenbait teorema zalantzarik gabe egiazkoak, infinitesimalak erabiltzen diren metodoei esker aurkitu direla esaten bada, hau ez zelarik gertatuko haien existentziak kontraesanik inplikatu balu, ihardesten dut, azterketa osobetea oinarritzen bagara,

ezein kasutan ere ez daukagula zati infinitesimalak erabili edo lerro finituak bururatu beharrik, ezta "minimum sensibile"-a baino zati txikiagorik ere; areago oraindik, hau ez da inoiz egingo, ezinezkoa baita.

133. Jarritako premisetatik begi bistakoa da errore asko eta asko, eta inportanteak, tratatu honen aurreko ataletan aurkatu diren printzipio faltsu horietatik sortuak direla. Eta printzipio oker horien aurkakoak, aldi berean, fruitutsuagoak direla gertatu da, hemendik, hala egiazko filosofiarako nola erlijiorako, ondorio oso abantailatsu asko datozelarik. Bereziki erakutsi da "materian" edo "gorpuztun objektuen existentzia absolutuan" jarri izan dutela beti ezagutza ororen, hala gizatarraren nola jainkotarraren, etsai nabarmen eta kaltegarrien direnak beren indar eta konfidantza nagusia. Eta, izan ere, Naturako ezer ez baldin bada esplikatzeko gauza ez-pentsatzaileen existentzia erreala eurak hautemanak izatetik bereizteagatik eta gauzoi izapide propioa aitortzeagatik izpirituen adimendutik kanpo, eta, aitzitik, hemendik oztopo esplikaezinak sortzen baldin badira; materia suposatzea erabat prekariora baldin bada, arrazoi bat beretan ere oinarritzen ez delako; haren ondorioek ezin baldin badiete aurre egin azterketa eta ikerketa libre baten argiari, aitzitik, "printzipio infinituak ulertezinak direla" bezalako atxakia ilun eta orokorrean babesten direlarik; "materia" hau kentzetik ondorio kaltegarri txikienik ez baldin badator; beronen faltarik sentitu ere ez baldin bada egiten munduan, berau gabe, beronekin hainbatean ez, baizik eta askoz errazago bururatzeko delarik dena; eta azkenez, izpirituak eta ideiak suposatze hutsaz bai "eskeptikoak" bai "ateoak" isilarazten baldin badira eta gauzen eskema hau erabat ados baldin badator hala "arrazoimenarekin" nola "erlijioarekin", badagoela uste dut berau onartua eta tinkoki besarkatua izango dela espero izaterik, "hipotesi" moduan soilik proposatuko balitz ere eta materiaren existentzia posibletzat admitituko balitz ere, hau, ostera, horrela ez dela ebidentziaz demostratu dugula uste dudana arren.

134. Egia da aurreko printzipioen ondorioz baliogabekotzat arbuiazen direla jakituriaren zati ez-esanguratsutzat jotzen diren zenbait eztabaida eta espekulazio. Baina, mota honetako ikerketan sakonki engaiatu eta aurrerakada handiak egindakoengan honek gure teorien kontra sor ditzakeen aurreritziak handienak izanda ere, hala ere, espero dugu beste batzuek ez dutela hartuko hemen jarritako printzipio eta tesien bidezko ezezpidez, ikerketa-lana laburtu eta giza zientziak lehen ziren baino argiago, laburbilduago eta eskuragarriago bihurtzen baitituzte.

135. "Ideien" ezagutzari buruz esan nahi genuena bukatu ondoren, proposatzen genuen metodoak, orain, "izpirituez" aritzera garamatza, berauoi buruzko giza ezagutza ez delarik arruntki uste bezain eskasa. Izpirituen izaerarik ez dugula ezagutzen pentsatzeko jartzen den arrazoi nagusia, beronen ideiarik ez daukagula da. Baina ez genuke giza enteleguaren menstzat hartu behar "izpirituaren" ideia ez hautematea, nabariki ezinezko bada "ideia" hori existitzea. Eta hau, oker ez banago, demostraturik geratu da 27. ataletan; honi gehituko diot izpiritua dela izaki ez-pentsatzaileek existitu ahal izateko duten substantzia edo euskarri bakarra; baina ideiei eutsi edo hautematen dituen "substantzia" hau berau ere "ideia" bat izatea, edo "ideia" baten antzekoa, absurdu nabarmena da.

136. Esango da agian zentzu bat behar dugula (batzuek iruditu duten bezala) substantziak ezagutzeko aproposa, beraren bidez, bagenu, gai izango ginatekeelarik geure arima ezagutzeko triangelu bat ezagutzen dugun bezalaxe. Honi zera ihardesten diot, baldin eta zentzu berri bat konferituko balitzaigu, beronen bidez zentzuen ideien zentzazio berriak besterik ezingo genukeela atzeman. Baina ez dut uste inork esango duenik "arima" eta "substantzia" hitzez esan nahi duguna ideia edo zentzazio mota partikular bat baino ez dela. Inferi genezake, beraz, gauza guztiak behar den moduan kontutan izanda, gure ahalmenei "karratu biribila" ulertzeko gai ez direlako errua

botatzen hastea baino arrazoizkoagoa ez dela akasdunak direla pentsatzea, ez digutelako izpiritu edo substantzia aktibo pentsatzailearen ideiarik ematen.

137. Izpirituak ideia edo zentzazio baten antzera ezagutu behar direla uste duen eritzitik teoria absurdu eta heterodoxorik asko eta arimaren izaerari buruzko eskeptizismo handia sortu da. Are, daitekeena da eritzi honek batzuen baitan gorputzez at arimarik ote daukaten duda eragin izatea, ikerketan zehar ezin izan baitzuten aurkitu haren ideiarik zeukatenik. Izatez ez-eraginkorra den, eta hautemana izatean existentzia daukan, "ideia" bat beregain den eragile baten antz eta irudi izateak, badirudi ez duela hitzoz esan nahi dena arretaz ikustea beste errefusapenik behar. Baina esango da beharbada, "ideia" "izpiritu" baten antzekoa izan ezin bada ere, pentsatzeari, eragiteari eta beregain izateari dagokienez, agian beste aspektu batzuetan antzekoa izan daitekeela; eta ez da, izan, beharrezko ideia edo irudi bat aspektu guztietan izatea originala bezalakoa.

138. Honi ihardesten diot, aipatu aspektuotan irudikatzen ez badu, ezinezkoa dela beste ezertan hau egitea. Kendu nahi izatearen ahalmena, pentsatzea eta ideiak hautematea, eta ezertxo ere ez da gelditzen ideia izpirituaren antzekoa izan dadin. Zeren "izpiritu" hitzaz, pentsatu, nahi izan eta hautematen duen zerbait bakarrik ulertzen baitugu; eta hauxe bakarrik da termino honen esangura. Beraz, ezinezko bada ahalmenok ideia¹² batean irudikatuak aurkitzea, begi bistakoa da ezin dela izpiritu baten ideiarik izan.¹³

139. Baina aurkatuko da, "arima", "izpiritu" eta "substantzia" terminoez adierazitako ideiarik ez bada, aipatu terminook esangura gabekoak direla erabat edo ez daukatela inongo zentzurik. Ihardesten dut hitzok gauza erreal bat izendatzen dutela edo esan nahi dutela, ideia bat edo ideia baten antzekoa ez dena, baizik eta ideiak hautematen dituen, nahi duena eta berauoi buruz arrazonatzen duena. Ni neu naizena, ni terminoarekin izendatzen dudana, eta "arima" edo "substantzia" adierazi nahi dena gauza bera dira. Inork badi¹⁴ hau hitz bati buruzko eztabaida besterik ez dela eta, akordio orokorrekin beste hitzen zuzeneko esanahiari "ideiak" esaten diegunez ez dela arrazoirik "izpiritu" edo "arima" hitzez izendaturikoa izendapen beraren erdikide izan ez dadin, ihardesten dut adimenduko objektu ez-pentsatzaile guztiak pasiboak izatean datozela bat eta berauon existentzia hautemanak izatean datzala, arima edo izpiritua, oster, izaki eragilea den bitartean, beronen existentzia ez datzalarik hautemana izatean, ideiak hautematean eta pentsatzean baizik. Horregatik, beharrezko da, errakuntzak ekidin eta izaera erabat desakort eta ezberdineko izakiak ez nahasteko, "izpiritu" eta "ideia" elkarretatik bereiz ditzagun. Ikus 27. atala.

140. Zentzu zabalean esan dezakegu, noski, "izpirituaren" ideia edo, hobeto, nozio bat¹⁵ badaukagula, hau da, ulertzen dugula terminoaren esanahia, bestela ezingo baikenuke berari buruz ezer baieztatu ez ezeztatu. Are, nola beste izpirituen adimenduetan dauden ideiak, haien antzeko direla suposatzen ditugun geureen bitartez bururatzen ditugun, halaxe ezagutzen ditugu beste izpiritu batzuk ere gure geure arimaren bitartez, zentzu honetan haien irudi edo ideia delarik; beste izpirituekin duen erlazioa, neuk hautemandako urdinak edo beroak beste batek hautemandako ideia berekin duten erlazioa bezalakoa delako.

141. Ez da suposatu behar arimaren hilezkortasun naturala baieztan dutenek uste izatea inola ere ezin daitekeela deuseztua izan, ezta lehenbizi izatea eman zion Kreatzailearen mugagabeko ahalmenez ere: baizik eta naturaren edo mugimenduaren lege arruntez ez dagoela apurketaren edo deuseztapenaren menpean. Giza arima bizi-sugar mehe bat, edo animali izpirituen sistema bat, besterik ez dela sostengatzen dutenek, gorputza bezain galkor eta eta ustelkor egiten dute, egin ere, ezer ez baita xahuerrazagorik, bera barruan daukan tabernakuluaren hondamena gaingitu eta bizirautea ezinezko duen izakia baino. Eta nozio hau bertute eta erlijio-ideia ororen aurkako antidotorik eraginkorrenzat onartu eta lausengatu du gizateriaren zati txarrenak. Baina ebidentziak

erakutsi da edozein itxura edo egiturako gorputzak adimenduko ideia pasibo hutsak direla, berau haiekiko, argia iluntasunarekiko den baino urunduago eta heterogenoagoa delarik. Erakutsi dugu arima banaezina, gorputzgabea, hedaduragea eta, ondorioz, ustelgaitza dela. Ezer ez daiteke zera baino argiagorik, hots, gorputz naturalei uneoro gertatzen ikusten ditugun mugimendu, aldaketa, narriadura eta deuseztapenek (eta "Naturaren abioa" deitzen diogunak) ezin dutela eraginik izan substantzia eraginkor, simple eta ez-konposatu baten baitan; horrelako izakia, beraz, naturaren indarrak deuseztaezina da; hau da, "gizonaren arima naturalki hilezina da".

142. Esandakoaren ondoren, uste dut argi dagoela gure arimak ezin ezagutu direla objektu ez-eraginkor ez-sentiberak bezala, hots, "ideia" baten bidez. "Izpirituak eta "ideiak" bi gauza oso ezberdinak dira, halako moldez non "existitzen direla", "ezagutuak direla", e.a., diogunean, ez da pentsatu behar hitzok izaera biokiko komuna den ezer esan nahi dutenik. Ez dago eurotan ezer antzeko edo komunik, eta uste izatea gure ahalmenen biderkaketa edo zabaltzeari esker gai izango ginatekeela izpiritu bat ezagutzeko triangulu bat ezagutzen dugun bezalaxe, "hotsa ikustea" espero izatea bezain absurdua litzateke. Honi ekiten ari banatzaio, hainbat gai inportante argitzeko eta arimaren izaerari buruzko zenbait errore ekiditeko garrantzizkoa izan daitekeela pentsatzen dudalako da. Uste dut ezin¹⁶ esan dela, zentzu hertsian, izaki eragile edo ekintza baten ideiarik daukagunik, eurekiko nozio bat daukagula esan daitekeen arren. Neure adimenduaren eta ideiekiko beronen ekintzen nolabaiteko ezagutza edo nozio bat daukat, hitz horiez esan nahi dena ezagutzen dudan neurrian. Ezagutzen dudana, nozioren bat daukat. Ez dut esango "ideia" eta "nozio" terminoak bata zein beste berdin erabili ezin daitezkeenik, jendeak horrela nahi badu. Baina gauza erabat ezberdinak izen ezberdinez bereizteak argitasuna eta propietatea dakar. Azpimarratu behar da baita ere, adimenduaren ekintzek erlazio oro hartzen dutelako, ezin esan dugula, propietatez, gauzen arteko erlazio edo konexioen ideiarik daukagunik, nozioa baizik. Baina, erabilera modernoaren arabera, "ideia" hitza izpiritu, erlazio eta ekintzetara hedatzen bada, hori hitz kontua besterik ez da azken batez.

143. Ez dateke soberan gehitzea "ideia abstraktuen" doktrinak ez duela eragin txikia izan gauza izpiritualdez bereziki ari diren zientzia horiek jakintza korapilatsu eta ilun bihurtzeko. Gizonek iruditu izan dute gai zirela adimenduaren ahalmenen eta ekintzen nozio abstraktuak eratzeke eta, hala adimendu edo izpiritu berarengandik nola haiei dagozkien objektu eta efektuetatik bereizita kontutan hartzeko. Hemendik etorri da metafisikan eta moralean ideia abstraktutzat jo diren hainbat eta hainbat termino ilun eta ambiguo sartu izana eta eurotatik mila nahasketa eta eztabaida sortu izana ikasien artean.

144. Baina ez dirudi gizonak adimenduaren izaera eta eragiketei buruzko eztabaidetan eta erroreetan nahasten ezerk lagundu duenik gehiago, gauza horiei buruz zentzu-ideietatik maileguz hartutako terminoetan hitzegiten ohitu izanak baino. Adibidez, nahia arimaren "mugimendu" izendatzen da: gizonaren adimendua mugimenduan dabilen pilota bezalakoa dela uste izatea dakar honek, zentzuen objektuek bultzatua eta mugatua delarik, pilota raketa-kolpeak bezain derrigorrez. Hortik mila eskrupulu eta errore datoz, moralasunerako ondorio arriskugarriekin. Ez daukat dudarik, guzti hau argituta gera eta simple, uniforme eta sendo ager daitekeela egia, filosofoak beren baitaratu eta zer esan nahi duten arretaz aztertzen jarri beharra duten konbentzimendura heltzeaz besterik gabe.

145. Esan denetik, argi dago ezin dugula ezagutu beste izpiritu batzuen existentzia, beraien eragiketetatik edo guregan sortarazten dituzten ideietatik izan ezik. Ideien zenbait mugimendu, aldaketa eta konbinazio hautematen dut, berauokin batera agertzen diren eta berauok eragiten partehartzen duten neure antzeko eragile partikularren existentziaz informatzen nautenak. Horregatik beste izpirituez dudana ezagutza ez da

zuzenekoa, neure ideiez dudana bezalakoa, baizik eta nik, neuregandik diferenteak diren eragile edo izpirituei, batera datozen efektu edo zeinu bezala, erreferitzen dizkiedan ideien eskuharmenaren menpean dagoena.

146. Baina, badiren arren gauza batzuk konbentziturik uzten gaituztenak giza eragileek eurak egitean duten partaidetasunaz, begi bistakoa da Naturaren lanak deitzen ditugun gauzak, hots, guk hautematen ditugun ideia edo zentzazio gehienak, ez direla gizonek eraginak ezta berauon nahiaren menpean daudenak. Beste izpiritu bat dago, beraz, kausatzen dituen, kontraesankorra baita horiek berez existitzea. Ikus 29. atala. Baina, arretaz aztertzen badugu gauza naturalen erregulartasun, ordena eta elkarkateakuntza, kreazioko zati handien handitasun, edertasun eta perfektasun txundigarria eta txikiaren artifizio bikaina, osotasunaren harmonia eta elkarrekikotasun zehatzarekin batera, baina batez ere behar den moduan inoiz miretsi gabeko minaren eta plazeraren legeak, instintu eta jaidura naturalak eta animalien asegaileak eta grinak; gauza guztiok kontutan baditugu eta, aldi berean, bat, eternala, mugagabeki jakituna, ona eta perfektua tasunen esanahian eta garrantzian jartzen badugu arreta, argitasun osoz konturatuko gara arestian aipatu Izpirituarenak direla, zeinak "guztietan dena egiten duen eta zeinaren eraginez gauza guztiak Harengan diren".

147. Horregatik begi bistakoa da Jainkoa ere geurea ez dugun beste edozein izpiritu bezain ziurki eta zuzenean dela ezagutua. Are, esan dezakegu Jainkoaren existentzia gizonena baino ebidentzia handiagoz hautematen dela, Naturaren efektuak giza eragileei iratxekitakoak baino mugagabeki gehiago eta aintzatesgarriagoak direlako. Ez dago gizakumea, edo berak eragindako efektu bat, denotatzen duen zeinu batik ere, "Naturaren Egilea" den Izpiritu horren izatea indar handiagoz erakusten ez duenik. Zeren begi bistakoa da, beste pertsonen eragitean, gizakumearen nahimenak ez daukala bere gorputz atalen higidura soilak beste helbururik; baina higidura hori hautemana izatea edo beste baten adimenduan ideiak eragitea erabat Kreatzailearen nahimenaren menpean dagoena da. Berak bakarrik, "bere Boterearen Hitzaz gauza guztiei eutsiz", mantentzen ditu izpirituen arteko harremanak, zeintzuei esker bata bestearen existentziaz konturatzeko gai diren. Eta, halarik ere, denei argi egiten dien argi garbi eta klar hau berau ikusezina da.

148. Dirudienek, pentsatzen ez duen artaldearen estakuru jenerala da Jainkorik ezin ikusi dutela. Ikusi ahal bagenu gizon bat ikusten dugun moduan, sinetsiko genuke existitzen dela, eta, sinetsiz gero, diote, beteko genituzke haren aginduak. Baina, baina, begiak irekitzea besterik ez baitugu behar edozein gure lagunurko ikusteko daukagun baino ikuspen argi eta beteagoaz gauza guztien Jaun gorena ikusteko!. Ez pentsa, gero, iruditzen dudarik Jainkoa ikuspen zuzen eta bitartekorik gabekoz ikusten dugunik (batzuek nahi luketen moduan), ezta gauza gorpuztunak beraian barik Jainkoaren esentzian irudikatzen dituen ikusiz ikusten ditugunik ere, doktrina hau, aitortu behar, ulertezin egiten zaidalarik¹⁷. Baina azalduko dut esan nahi dudana. Giza izpiritua edo pertsona ez da zentzuez hautematen, ez baita ideia bat. Beraz, gizon baten kolore, tamainu, figura eta mugimenduak ikusten ditugunean, geure adimenduan eragindako zenbait ideia besterik ez dugu hautematen; eta berauek gure bistara multzo ezberdinetan agertzean, geure antzeko izpiritu finitu eta kreatuen existentzia guri seinaltatzeko balio dute. Hemendik argi dago ez dugula gizakumea ikusten, "gizakitzat" gu bezala bizi, mugitu, hauteman eta pentsatzen duena ulertzen bada, ideia-multzo bat baizik, hauxe delarik pentsatzera garamatzana badela gure antzeko pentsamendu eta mugimendu-iturri bat, harekin batera dagoena eta hark irudikatua. Eta era berebanean ikusten dugu Jainkoa ere. Diferentzia honako hauxe da, ideia-multzo finitu eta mugatu batek giza adimendu partikular bat denotatzen duen bitartean, edonora begiratuta une eta leku orotan hautematen ditugula aldi berean Jainkotasunaren ezaugarri nabariak; zeren zentzuen

bidez edozein erataraz ikusi, entzun, sentitu edo hautematen dugun guztia, Jainkoaren boterearen zeinu edo efektu baita, gizonek egiten dituzten mugimenduak eurak guk hautematea ere den bezalaxe.

149. Argi dago, beraz, ezer ez dela begi bistakoagoa, hausnarketa txikiena egiteko gai den edozeinentzat, Jainkoaren existentzia baino, hots, gure adimenduen barne-barnean presente dagoen izpiritua, etengabeki eragiten ari zaizkigun ideia eta zentzazio ezberdin horiek sortaraziz, beraren menpean eta beharrean garelarik erabat eta zeharo, labur esanda, "berarengan bizi, mugitu eta izan ere garelarik". Hain hurbil daukagun eta adimenduarentzat hain bidezko den egia haundi honen aurkikuntzara gutxi batzuen arrazoimena bakarrik iritsi ahal izatea, gizonen zozokeria eta arretagabekeriaren adibide triste bat da, zeintzuek, Jainkoaren hain agerkunde argiz inguraturik aurkitu arren, hala ere, berauen hain eragin txikia duten, non argi gehiegiak itsutuak baitirudite.

150. Baina esango duzu, ez al dauka Naturak inolako partaidetzarik gauza naturalen produkzioan eta guztiak iratxeki behar al zaizkio Jainkoaren eragin zuzen eta bakarrari? Ihardesten dut, "Naturatzat", gure adimenduetan zenbait lege finko eta orokorren arabera inprimaturiko efektu edo zentzazio ikuskorren "segida" bakarrik ulertzen bada, orduan argi dagoela Naturak, horrela hartuta, ezertxo ere ezin duela eragin. Baina "Naturatzat" Jainkoaz eta era berean Naturaren Legeez eta zentzuek hautemandako gauzez aparteko beste izaki bat ulertzen bada, aitortu beharra dut hitz hau hots hutsa dela, bere baitan inolako esangurarik ez daramana. Esangura honetan Natura, Jainkoaren omnipresentzia eta perfektasun mugagabearen nozio zehatzik ez duten paganuek sartutako "kimera" hutsa da. Baina ulergaitzagoa da Idazteunetan sinesten dutela baieztatu duten kristauek hau onartzea, berauotan Jainkoaren eragin zuzenari iratxekitzen baitzaizkio etengabeki filosofo paganuek "Naturari" iratxeki ohi dizkioten efektu horiek. "Jaunak lurrinak jasotzen ditu, oinaztarrien bidez euria askatzen eta beraren gordelekuetatik haizea ateratzen du", Jerem. 10. Kap. 13. ber. "Heriotzearen itzala egunsenti bihurtzen du eta eguna gau iluntzen", Amos 5. Kap. 8. ber. "Lurra bisitatu eta euriez bigundu zuen; haren fruituak benedikatu zituen eta urtea bere ontasunaz koroatu zuen; halako moldez, non larreak artaldean estaldu eta ibarrak gariz janzten diren", 65. Salmua. Baina hauxe den arren Idazteunak etengabeki darabilen hizketa moldea, ez dakit nik nolako kontrakotasuna diogun Jainkoa gure kontuez hain zuzenean arduratzen dela sinesteari. Gustura suposatzen dugu oso urrun dagoela Hura eta beraren ordeiz izaki ez-pentsatzaileraren bat jartzen dugu, nahiz eta (San Pablori sinesten badiogu) "gutariko bakoitzarengandik urrun ez dagoen".

151. Ez dut dudarik egiten aurkatuko dela gauza naturalen produkzioan ikusten diren metodo astiroko eta gradualek ez diruditela "Eragile guztiahaldunaren" eskua dutenik kausa. Gainera, munstroak, garaiaurretik jaioak, loretan iharturiko fruituak, basamortuetan erorritako euriak, giza bizitzari gertaturiko ezbeharrak, beste hainbat argudio dira, mugagabeko jakituria eta ontasuneko Izpirituak ez duela zuzenean eragiten ez eskuhartzen Naturaren egitura osoan frogatzeko. Baina objekzio honekiko ihardespena, hein handi batean, argi dago 62. ataletik, zeren bertan ikus baitaiteke aipatu metodoak zeharo beharrezko direla arau sinple eta orokorrenak eragiteko irmoki eta sendoki; hau aldi berean "Jainkoaren jakituria eta ontasunaren" aldeko argudio delarik. Naturaren makina boteretsu honen artifiziozko mekanismoa halakoa da, non, beraren mugimendu eta fenomeno ezberdinek gure zentzuetan eragina duten bitartean, dena mugiarazten duen eskua ia nabariezina baita hezur eta haragizko gizonentzat. "Egia da - esan zuen profetak- Jainko ezkutua zara zu", Isaias, 45. Kap. 15. ber. Baina, Jainkoa, pentsatzen ahaleginik txikiena jartzen ez duten gizon "lizun eta alferren" begietatik ezkutatu egiten bada ere, hala ere, ezer ezin izan daiteke hain garbiki irakurgarri adimendu inpartzial eta artatsu batentzat, izakiaren sistema osoa moldatu, erregulatu eta

mantentzen duen "Izpiritu orojakitunaren" presentzia baino. Argi ateratzen da beste leku batean esandakotik, lege orokor eta finkoen arabera jokatzeari hain beharrezko dela bizimoduko kontuetan gu gidatu eta Naturaren sekretua guri ezagutzera emateko, non, berau barik, pentsamenduaren norainoko eta handitasun guztiek, giza ohartasun eta asmo guztiek ez duten ezertxotarako balioko; are ezinezko litzateke adimenduak horrelako eskuduntzak edo ahalmenak izatea. Ikus 31. atala. Gogoeta berau bakarrik ere aski da honetatik sor daitekeen edozein eragozpen partikular konpentsatzeko.

152. Honez gain, kontutan izan behar genuke Naturaren ments-akatsak berak ez direla emendio gabekoak, halako barietate atsegin bat sortzen baitute eta kreazioko gainerako guztiaren edertasuna areagotzen, koadro batean itzalek alde distiratsu eta argitsuenak nabarmentzeko balio duten bezalaxe. Horregatik on litzaziguke aztertzea ea guk uste izatea Naturaren Egilearen zuhurtzigabezia dela hazi eta umekien galtzea eta landare eta animalien ezbeharrezko deusezteak beraien heldutasun osobetera iritsi aurretik, ez ote den gizaseme ahalmengabe eta ziztrinekin izandako harremanetan hartutako aurreritzi baten ondorio. "Gizakumearengan", "jakituriatzat" jo daiteke, jo, lan eta esfortzu handi barik lortu ezin daitezkeen gauzak xuhurki administratzea. Baina ez dugu iruditu behar animalia edo landare baten makineria esplikagaizki delikatuak egiteak Jainkoari harrikoxkor bat egiteak baino lan edo esfortzu handiagorik suposatzen dionik. Ezer ez da, izan ere, zera baino begi bistakoagorik, hots, Izpiritu ahalguztidunak berdin egin dezakeela edozein gauza "fiat" edo bere nahimenaren egintza batez. Hemendik argi ateratzen da gauza naturalen ugaltzen ikusgarria ezin litekeela interpretatu berauek egiten dituen eragilearen ahultasun edo prodigotasun moduan, haren boterearen aberastasunaren aldeko argudio moduan baizik.

153. Naturaren lege orokorreari eta izpiritu finitu ezperfektuen egintzei jarrai, munduan nahasturik dagoen min eta atsekabeari dagokienez, gaur egun aurkitzen garen egoeran ezinbestez dira beharrezko gure ongizaterako. Baina gure perspektibak hertsiegiak dira: min partikular bat, adibidez, hartzen dugu kontutan eta "txartzat" balioesten dugu; baina gure ikuspena zabaltzen badugu zera hartzeraino, gauzen xede, konexio eta dependentziak, eta nolako une eta neurrian ukitzen gaituzten atsekabeak eta plazerak, giza askatasunaren izaera eta zein xedez izan garen munduratuak, aitortu beharra izango dugu bakarka kontutan hartuta "txarrak" diruditen gauza partikular horiek, "onak" direla, izan, izakien sistema osoarekin bigiztaturik ikusten ditugunean.

154. Esandakotik argi gera dateke pentsa dezan edozein pertsonarentzat, arreta falta eta adimenduko zabaltasunik ezagatik aurkitu ahal direla "ateismoaren" edo "heresia manikeistaren" jarraitzaile batzuk. Arima ziztrin eta gogoetageak gauza dira, noski, Probidentziaren egintzez burlatzeko, ez baitira gai berauen edertasun eta ordena ulertzeko edo ez baitira horretan ahalegintzen. Baina pentsamendu justu eta zabalaren jabe direnek eta gainera hausnartzen ohituak direnek, inoiz ere ezingo dituzte behar bezainbatean miretsi Naturaren ekonomia osoaren bidez distiratsu ageri diren Jainkoaren jakituria eta ontasunezko lorratzak. Baina zein egia ote da adimenduan hain distiratsu argi egiten duena, non ez pentsamenduaz kontra eginez, ez norberak nahita begiak itxiaz ere, ez daukagun bera ikustetik ihes egiterik? Harritu egin beharko al gara, bada, gizonik gehienek, beti negoziataria eta plazerera dedikaturik dabiltzanek eta adimenduaren begiak tinkatzen edo irekitzen gutxi ohituek, zentzudun kreaturengandik espero zitekeen Jainkoaren izatearen konbentzimendu eta ebidentziarik ez ukateaz?

155. Txundituago beharko genuke egon hain egia ebidente eta garrantzitsua oharkabe pasatzerainoko gizon zozoak aurkitu ahal izateaz, oharkabe pasa zaielako horrelako egiaz konbentziturik ez egoteaz baino. Eta, hala eta guztiz ere, beldur izatekoa da talentu eta astidun pertsona gehiegi, herrialde kristauetan bizi direnak, "ateismo" antzeko batean hondoratuko ez diren, utzikeria supino eta ikaragarriagatik, zeren zeharo

ezinezko baita, Izpiritu Guztiahaldunaren omnipresentzia, santutasun eta justiziaren kontzientzia osobetea sartua duen eta beronek argi dagion arimak Haren legeak hausten ekin eta jarraiki dezan aladurarik gabe. Horregatik, puntu hain garrantzitsu horietan geratu eta gogoeta egin behar genuke; horrela honako hauen eskrupulurik gabeko konbentzimendua erdietsiko genuke, hots, "Jaunaren begiek ona eta txarra ikusten dutela toki orotan, gurekin dagoela eta goazen toki guztietan zaintzen gaituela eta jateko ogia eta janzteko jantziak ematen dizkigula"; presente dagoela eta gure pentsamendurik barrukoenak ere ezagutzen dituela eta Berarengandiko dependentziarik erabatekoena eta zuzenena daukagula. Egia handi hauek argi ikusteak begiramendu ikaratsuz eta beldur sainduz bete behar dizkigu bihotzak, eragingarririk indartsuena direlarik, berauek, "bertutea" erdiesteko eta defentsarik onena "bizioaren" kontra jokatzeko.

156. Izan ere, azken batez, gure ikerketan lehenengo lekua merezi duena "Jainkoaren" eta geure "eginbeharraren" azterketa da. Eta nire lanen asmo eta helburu nagusia hauxe sustatzea izan denez, erabat alferreko eta efektugabetzat hartuko ditut, esan dudana ezin iradoki badiet nire irakurleei Jainkoaren presentziaren sentimendu bihozkoia, eta berdin, gizon ikasien lan nagusia diren espekulazio antzu horien faltsua edo hutsa erakutsi ondoren, Ebangelioko egia osasungarriak, zeintzuk ezagutu eta praktikatzea gizatasunaren perfektasun gorena den, gurtu eta besarkatzeko jarrera hobea izaten lagundu ez badiet.